euskaldunon
# Egunkaria
larunbata
1999ko martxoaren 20a -- X. urtea -- 2.570. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

**Kosovo: bake negoziazioak Parisen**



Yves Logghe / AP

Wesley Clark generalak esan zuen erasoak «gogorrak eta eraginkorrak» izango direla

## Serbia aire erasoen mehatxupean da, Milosevicen ezezkoak negoziazioak eten ondoren

21

Iker Aranburu berriemaile berezia

## Luis Fernandezek utzi egingo du Athletic kontratua amaitzean

*Espanyolen aurka puntu baliotsuak eskura ditzakete gaur zuri-gorriek* 26-27

**Euskal Departamendua**

# Alderdi sozialistak Frantzia mailako batzarra egingo du «eztabaida pizteko berriro»

*Ehun eragile politikoen deiak erreakzio baikorrak sortu ditu, EGUNKARIAk eginiko galdeketak erakusten duenez*

6-7

# Hasi da Korrika



Joxe Lacalle

- Iruñeko Gaztelu plaza jendez gainezka zela ekin zion Joxema Leitza bertsolari eta Oinarriak taldeko kideak Korrika 11ko lehen kilometroari
- Iruñerrian eta Baztan aldean lehendabiziko kilometroak osatu eta gauerdian Ipar Euskal Herrian sartu zen lekukoa, Izpegi gainetik barrena
- Euskarazko irratigintzari eta Euskalerria irratiari omen egingo zaio gaur eta irratiek '24 ordu euskaraz' saioa eskainiko dute
- Iñaki Lasa Nafarroako AEK-ko arduradunak ofizialtasun falta kritikatu du: «Hegoak moztu nahi dizkiote, hegaldiaren beldur direlako» 12-15

# iritzia

## gaurko...

### ...elkarrizketa



**Yves Brillaxis**

• Baionako Merkataritza eta Industria Ganberako lehendakaria •

*«Hiri erdiko merkatuaren batzea dugu helburua».*

Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak urteroko biltzar nagusia egin du.

■ **Nola jorratzen duzue merkatarien arteko batasuna ?**
Iaz erabaki genuen Baionan komertzio bulego baten irekitzea. Laneko tresna horretan komertzioen batasuna, Baionako Udala, ofizialeen ganbera, merkataritza ganbera eta turismo bulegoa partzuergoan dira. Bulego honek animazio lana segurtatuko du. Merkatarien batasuna azkartu nahi dugu ere, informazioaren banatzea sakonduz eta partaide kopurua igoz.
■ **Zinema proiektua aipatu duzue ?**
Ez zaigu inporta nork etorri behar duen Baionara, baina Angelu eta Baionaren arteko birrorekatze kezkarekin, nahi genuke zinema Baionara etor dadin. 350 saltzailek eskatu dute.
■ **Aparkalekuez zer diozue?**
Larunbat arratsaldeetan aparkatzea urririk uztea ikertzen ari gara, bereziki momentu azkarretan.
■ **Saltegi handien emendatzeaz lan egin duzue?**
Erne egon behar da. Carrefour-en handitzeaz, ofizialeen ganberaren posturak harritu gaitu. Horrekin loturik, interesatzen zaigu jakitea merkatu xeheak gurekin partzuerrean direnak, Baionako udala batez ere, kezkatzen dituen ala ez.

**Eneko Bidegain**
BAIONA

### ...esaera

*«Bat ezin da guztiz zoriontsua izan, beste guztiak ere hala ez diren bitartean»* **Spencer**

### ...hizpideak

## *Euskararen aldeko konpromiso garaia*

■ *Korrika 11* abian da. Atzo goizean eman zioten hasiera Iruñeko Gaztelu plazan, eta hilaren 28 arte Euskal Herri osoa zeharkatuko du *euskararen lekukoak*. Aurtengo edizioa Donostian amaituko da. Antolatzaileek hamaika berritasun bildu dituzte *1+1=hamaika* lelopean, baina guztiaren gainetik euskararekiko konpromisoa azpimarratu dute. Herritarrek, taldeek, erakundeek, alderdi politikoek... euskararen alde hartu beharreko konpromisoa.

Eta atzoko hasiera ekitaldian nabarmendu zutenez, euskararen alde konpromiso mota ugari har daitezke. Semealabak D ereduan matrikulatuz, enpresen publizitatea euskaraz eginez, erakunde eta elkarteen funtzionamendua euskaldunduz... Euskararen aldeko konpromisoa guztioi dagokigula gogorarazi digu, beste behin, Korrikak.

Euskara normalizatuko bada, ordea, herritarren konpromisoa baino gehiago beharko dugula ere hamaika aldiz gogorarazi digute. Erakunde publikoen konpromisoa beharrezkoa dela, alegia. Euskararen Gizarte Kontseiluak *Bai Euskarari* lelopean oraintsu hainbat erakunde eta alderdi politikorekin sinatutako akordioa urrats garrantzitsua izan da normalizazioaren bide luze horretan . Oraindik egiteko ugari dagoela ezin uka. Baina hazia erein da jada, eta hori ezinbestekoa zen.

*1+1= Hamaika. Zu eta ni euskaraz* leloak konpromiso garaia dela gogoraraziko digu ondorengo egunotan. Euskararen aldeko konpromiso garaia dela.

## *Serbiarren indarra*

■ Rambouilleten hasitako elkarrizketek ez dute serbiarren prepotentzia aldarazi eta errotik bezalaxe Belgradera itzuli dira. Indartsu sentitzen dira: aliatu errusiarrak hurbil dituzte, eta NATOk beldur dio bonbardaketaren *biharamunari*. Infanteriako soldaduen balizko *baja* kopuruak min egin diezaioke NATOri. Serbiarrak horren jakitun, indartsu dira gerran eta indartsuago bake elkarrizketetan.

## *Luis Fernandez, garaiz kanpo*

■ Luis Fernandez Athleticeko entrenatzaileak talde zuri-gorria datorren urteko ekainean utziko duela iragarri zuen atzo. Hurrengo denboraldia bukatu ondoren, ba omen doa. Zertara datoz, ordea, hitz hauek? Taldea Ligako azken txanpan sartzen ari den une berean bota du Tarifakoak badoala. Ez ote da izango lehenbailehen alde egiteko gogoa duela? Mallorcako Hector Cuperrek ez du oraindik ahoa zabaldu, eta Valenciako Claudio Ranierik azkenean taldea utziko duela onartu du , baina isilik egon da kazetariek estutu duten arte. Luis Fernandez ez du inork estutu. Hemendik aurrera, oraindik Athleticen gelditzen zaion urte luze honetan, nolako erantzuna emango dute jokalariek, zuzendaritzak eta zaleek gauzak okertzen badira? Garaiz kanpoko adierazpenak izan dira. Beroaldian, edota irteera behartzeko helburuarekin egindakoak?

### ...pertsonaiak



**ANDOLIN EGUZKITZA •** Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak, biltzar nagusiaren ostean, balorazio baikorren ondoan badela autokritikarako lekurik aipatu du.



**MUAMMAR EL GADAFI •** Libiako buruzagiak esan du Lockerbie auziko susmagarriak entregatuko dizkiola Holandari. 1988an abioi bat lehertaraztea leporatzen diete bi libiarri, Gadafik orain arte onartu ez duena.



**PHILIPPE BERGEROO •** Ziburutarrak gaur debutatuko du Paris Saint Germain taldeko entrenatzaile moduan. Jaitsierako postuetatik gertu da Parisko taldea.

### ...datua

**18.000** irakiarren erromesaldia –guztiak ere muga zeharkatu eta Saudi Arabiara joanak– ordainduko duela esan du Saudi Arabiako Fahd erregeak.

### ...adierazpena

*«Poesiak jendearen sentsibilizazioa pizteko edota mantentzeko balio behar du»*
•
***Miquel Marti i Pol***
Poeta

### ... seiko urrea

Iñaki Irazabalbeitia

## *Ie i'r Gymraeg*

Joan den asteburuan Galesen egoteko parada izan genuen Kontseiluaren ordezkaritza batek. Aberystwyth-en urteroko batzarra egin zuen *Cymdeithas yr iaith Gymraeg* elkarteak, Galeseraren Elkarteak hain justu, eta bertan parte hartzera gonbidatua izan zen Kontseilua. Gure egitekoa Kontseiluaren berri ematea izan zen, helburu, jardun, etab.i buruzkoa.

Abegitsuak dira galestarrak, baina hizkuntza eta kultura minorizatua dugunon berezko elkartasunaz eta abegikortasunaz harandi doa galestarrek euskaldunokiko duten jarrerra. Gure herria eta kultura ondo ezagutzen dute. Euskal Herriaren egoera eta bilakaera politikoak ez zaizkie arrotz. Gertutasun hunkigarria sentitu dugu, anai-arrebak baikinen Horretaz gain, euskara biziki maite dute. Euskaraz berritu izan ahal gatzaizkie hainbat galestarrei. Bada marka!



Euskal Herrira begira daude. Hemengo hizkuntzaren normalizazio-politika eta -jardunak eredutzat dituzte. Bada horretarako arrazoirik. Euskal Herria eta Gales herri eta kultura bikitzat jo daitezke beren ingurumenari begiratzen badiogu: hedaduraz eta biztanle-kopuruaz paretsu; galeseraren eta euskararen hiztun-kopuruaren portzentaiek ez dute alde handirik eta, gainera, hizkuntza indartsuak dituzte auzo.

Haiek guri begira eta euskaldunok, oro har, deus gutxi dakigu haiei buruz. Kontraesan nabarmena alajaina! Hizkuntzaren normalizazioaren bidean beste batzuengana jotzen dugu eredu bila. Katalunia eta Quebec-en ispilatzen ditugu gure nahiak eta Irlandari so egiten diogu amildegia saihesteko. Gales ez dugu apenas kontuan hartzen. Arrazoizkoa da neurri batean. Nekez izango dira eredu orokor guretzako gu baino atzeago daudelako hizkuntzaren gizarte-normalizazioaren auzian eta egitura politiko propioak orain garatzen ari direlako. Adibidez, sortzear dagoen Galesko Asanblearen hizkuntz politika egokia izan dadin borrokatzen ari da Cymdeithas orain sutsuki. Alabaina, guri zer irakatsia izango dute eta guk haiengandik zer ikasia. Donostiatik Cadiz bezain gertu dago Cardiff...

• MATTIN •



# Europako nekazaritza

• IÑAKI GERENABARRENA •
[EAEKO NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILBURUA]

Nekazaritzaren gaineko negoziazioen amaieran zertxobait hutsalduta gelditu da Agenda 2000, Europako Batzordeak proposatua bera. Nekazaritza Ministroen Kontseiluak Europako gizarteari aurkeztu dion Nekazaritza Politika Komunak (2000/2006) ez die erantzun egokirik ematen Europak mende berriaren hasieran landa-inguruneari egiten dizkion eskakizunei. Nekazaritza politika bateratu berriak ezer gutxi du berritik. Neurri handi batean, lehengoa da, areagotua, eta Fischler Proposamena –hau da, Agenda 2000– iradoki zuten printzipioetatik nahiko gutxi gordetzen du.

Eusko Jaurlaritza bere garaian proposamen haren alde agertu zen, abiapuntu onargarria zelako, zenbait gaitan hobetu beharrekoa izan arren, hala nola Europako laguntza zuzenen modulazioan, nekazaritza multifuntzionalenaren errentaren hobekuntzan, eta basoetan, nekazaritza-inguramenetan zein landa garapenean aplikatu beharreko politika berrietan.

Emaitza ez da ona izan, eta, gainera, oraindik ere zalantza garrantzitsuak daude. Emaitza horretan erabakigarriak izan dira, alde batetik, Alemaniaren Lehendakaritza, haren ikuspegia ez delako guztiz inpartziala izan, eta, beraz, aurrekari desegoki bat ezarri duelako; bestetik, Frantziaren jarrera, bertako nekazaritza-ustiategi handiez oso arduratuta egon delako; baita Espainiaren jarrera inkoherentea ere; eta, azkenik, Europako Batzordearen ahulezia.

Konpondu gabeko arazo nagusietako bat laguntza zuzenen modulazioaren gaia izan da. Agenda 2000-k ildo horretan hasieran egindako proposamena ez zen behar adinakoa Eusko Jaurlaritzaren ustez, eta azkenean atzera bota dute. Hala, laguntzak, gutxienez 2007. urtea arte, produktuarekiko era zuzenki proportzionalean banatzen jarraituko dute, baina, ziur aski, Europako gizarteak ez du hori ulertuko.

Oraingo honekin Europako Batzordeak, estatuetako ordezkaritzen interesen ondorioz, bigarren aldiz huts egin du Nekazaritza Politika Komunaren printzipioak sakon berritzeko eta eguneratzeko egin duen ahaleginean –lehendabiziko aldiz 1991n gertatu zen *IInform Mac Sharry*– delakoaren bidez-. Jakina, horrela ez da eraikitzen Europa.

Hala, guztiz indarrean jarraitzen du Nekazaritzako komisarioak berak, Mac Sharry irlandarrak, zabaldutako salaketa guztiz ezagunak, alegia, Nekazaritza Politika Komunaren laguntzaren %80a –haren aurrekontuak guztira EBkoaren %47 izaten jarraituko du– %20 nekazarik soilik jasotzen dutela.

Hau da, Nekazaritza Politikaren egungo ereduak oraindik ere lehentasuna ematen die kopuruari, produktuari eta elikagaien autohornikuntza hutsari, eta ez kalitateari, ekoizleari edo nekazaritzaren multifuntzionaltasunari; hots, Nekazaritza Politika Komunak iraganean errotuta jarraitzen du, eta ez du inolako zentzurik une honetan, Europako gizarteak nekazaritzari lurralde esparrua antolatzeko eskatzen diolako, inguramenaren kontserbazio aktiboa egiteko, landa-inguruneko gizarte egiturak iraunarazteko, eta eskaintzen diren elikagaiek kalitatea eta osasun-berme guztiak izateko.

Bereziki Espainiako ordezkarien jarrera izan da koherentzia gutxikoa; izan ere, Bruselari elkartasuna eskatzen diote kohesio fondoen mantenimenduaren bidez, baina gero ez ditu kohesio printzipio horiek aplikatu nahi bere nekazaritzan laguntza zuzenen modulazioaren bitartez.

Modulaziorik gabeko laguntza zuzenen arazoa da nekazaririk gabeko nekazaritza baterako daudela pentsatuta, ezin direlako nekazaritzat hartu laguntza horien jasotzaile handiak.

Alde ilun garrantzitsu asko agertzen dituen beste gai bat da esnekien eta belarki-laboreen merkatuak antolatzeko erreformak gauzatu diren era, batez ere prezioen jaitsierengatik, laguntza berriek ez dituztelako berdindu, eta Europa osoan, merkatuaren desoreka egiturazkoa izan arren, gertatutako esnekuotaren gehikuntza orokortuagatik. Hala, egoera larriagotu egingo da bereziki hainbat merkatutan, Espainiakoan esate baterako, soberakin horiek jaso ohi baititu.

Europako laguntzak jasotzearren belarki-laboreetan errendimendu handiagoa onartzeak, lehenik eta behin, ekarri beharko luke Arabako zerealistei itzultzea azken erreformaren hastapenean Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak kendu zizkien errendimenduak; izan ere, ministerio horrek berak helarazi zuen Europako Batzordera errendimenduak handitzeko eskakizuna, Eusko Jaurlaritzak proposatuta.

Bestalde, Nekazaritza Politika Komuna berritzeko oraindik oraingo akordioak baditu beste alderdi on batzuk ere, Fischler Proposamenetik datozenak, hala nola nekazaritza-inguramenetarako neurri berriak, landa-garapenerako programa horizontal berria, eta Europako eskualdeek esku-hartze handiagoa izatea laguntza zuzenen kudeaketan.

***• Erredakzioan itzulia***

OLATZ OSA

## *Konpromisoaren lekukoa*



Lekukoa. Euskarak etenik gabe eta korrika garatzeko duen premiaren lekukoa. Euskaldunok eta Euskal Herriak aitzinaratzeko duten nahiaren lekukoa. Konpromisoaren lekukoa. Kompromisoa. Euskarak gaurdaino iraun dezan milaka herritarrek hartu duten kompromisoa. Lekukotzaren konpromisoa. Alderdi politikoek egundaino lehentasunez bultzatu ez duten konpromisoa.

Gizarte osoarena da euskara bultzatu eta garatzeko konpromisoa, bistan da. Ez nau, ordea, herritarren ahaleginak arduratzen, batetik oraino euskararen aldeko apustua eta lana herritarrengandik etorri delako eta bestetik beti egon delako lekukoa hartzeko adorea eta ilusioa izan duenik. Gehiago kezkatzen nau euskara alderdi politikoen agendatik kanpo ikusteak, edo gaitzago, hitzordua euskara egurtzeko soilik eskaintzeak.

Oraintsu sinatu dute hainbat alderdi politikok, Kontseiluak bultzatuta, euskararen aldeko neurriak hartzeko konpromisoa jasotzen duen akordio politikoa. Bada, akordio hori garatzeko unea iritsi da, serioski erdu behar zaio gaiari eta euskara zokoratu nahi dutenek probokatuko dituzten ekaitzen aurrean, euskararen garapena ahalbidetuko duen bidea egin behar da, oskol eta guzti, behar bada. Baina aurrera. Eta Korrika!

Eta alderdi politikoek euskararen garapenaren aldeko lanean sartu behar duten bezalaxe, euskarak eta euskalgintzak ezin dute azken hilabeteotan eraikitzen ari den herrigintza proiektutik at gelditu. Euskalgintzak ere badauka Lizarra-Garazi akordioa gizarteratzen eta eraikitzen zer egina. Alderdiei euskara eta euskararen erakundeak laguntzea eskatu behar zaie, euskalgintzari, eguneroko lanaz gain, Lizarra-Garazin abiatutakoa zabaltzea. Abagune aparta urratsak emateko, hizkuntza eta herria elkar elikatzeko.

Hurrengo Korrikak Lizarratik Garazirako bidea egin dezake... agian.

...kornerra

MIKEL ELORZA

## *Asmatu nahian*

■ Nekane Txapartegi eta Mikel Egibarren atxiloketaldiaren irudirik ez zaigu eskainiko, ubeldurak ez baitu ondo ematen telebistan, batez ere nabarmenegi ez ikusteko moduan egina dagoenean. Egibar eritetxera eraman behar izanak izango du, bestalde, jatorrizko azalpen mediku *garbirik*. Madrilgo IUko hainbat diputatuk egindako salaketa ere, presoek bizi duten egoerari buruzkoa (isolamenduak, umiliazioak, eskubideen zanpaketa...), ez da *Documentos TV* edo *Informe Semanal*-en agendan sartzen. Beti da deigarriagoa besteen begietako lastoa. Gainera, ez ote naiz ohartu gauza inportanteagoak dituztela eskuartean: Milosevic *deabrua*-rekin zer egin asmatzen dihardute. Guri erakusten ez zaizkigun irudi horiek nola bidali asmatu nahian, agerikoegia izan gabe, Kosovokoa bezalako arazoak nola tratatu erakusgarri.

## ■ erantzuiguzu...

943 300 228 — zuzendariari@jalgi.com

# Modak bultzatzen al du anorexia?

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizenak eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

**■ Eragina izugarri du.** Ezin esan daiteke haren errua dela soilik, baina eragin handia du; horretan ez dut zalantzarik. Modak —komunikabideen laguntzaz, hein handi batean— edertasunaren ereduak zein diren ezartzen digu, eta guk, batik bat neskatila gazteek, sinistu egiten dugu. Alegia, komunikabideetan neska eder moduan agertzen diren modelo eskeletikoak eredutzat hartzen dituzte gazte askok, eta haien modukoak izan nahi dute. Eta, noski, gutako askok haien modukoak izan nahi badugu, horretarako gaixotu egin behar. Ezinezkoa baita bestela. Hor eztabaida serio eta sakona egin beharko litzateke, eta *edertasunaren neurriak* aldatu egin beharko genituzke —denon artean—. Hori ezean, gazteek gaixotzen jarraituko dute, hein handi batean modaren eta komunikabideen erruz. **Elena Barrinagarrementeria** (Galdakao)

**■ Modak eragina badu,** baina arazoa hori baino haratago doa. Gizarte osoan debate serioa egin beharko litzateke gaiaren inguruan. Nondik datorren, nola konpon daitekeen... Baina ezin ulertu dut komunikabide guztiak zergatik ari zareten orain horren inguruan hitz egiten, arazoa orain urte askotik datorkigu eta. **Juan Ordorika** (Gasteiz)

## galdeiozu...

### Jose Angel Cuerda

GASTEIZKO ALKATEA



***Mendebaldeko garapen ereduak esportatzen dira ekialdeko herrialdeetara, eta ez da hango garapen autokudeatua bultzatzen. Neokolonialismo mota berria?***

**Javi Aguillo** (Gasteiz)

**■ MENDEBALDEKO BIZIMODUA** mundu osoan ezartzen ari da. Ezbairik gabe, joera horrek kalte egiten die zenbait herrialderi. Horregatik, gure betebeharrak laguntzea baino ez du izan behar; daukagun ona eskainiz, baina, aldi berean, haien bizimodua eta kultura babestuz.

Martxoaren 23tik aurrera
**Patxi Zabaleta** • HBKO PARLAMENTARIOA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

## zuzendariari

**Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain**

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

### *Alberto Barandiarani*

Martxoaren 12ko EUSKALDUNON EGUNKARIAn Alberto Barandiaranek «Euskal Eskola Publikoaren aldeko elkarteak batu egingo dira laster» izenburupean idatzitako artikuluari dagokionez, bertan azaltzen diren pare bat gauza argitu nahi ditu Ikasbatuaz elkarteak:

1.- Azpi-izenburu gisa «Sortzen, Ikasbatuaz eta Ikas Bi taldeak biltzeko elkarte berria bihar aurkeztuko dute» esaldia azaltzen da.

Horri buruz, zera argitu nahi dugu: gure asmoa Euskal Herri osoan sare publikoan gauden ikastola-eskola euskaldunak biltzea bada ere, oraingoz ez dugu Iparraldeko egituraketa batere lotuta eta, momentuz, ez dago ezer adostua ez Ikas Bi ezta beste elkarte batzuekin ere. Iparraldeko taldeekin egituraketa hau bideratzen den bitartean, Sortzen eta Ikasbatuaz taldeen arteko elkartea jarriko dugu martxan.

2.- Beste alde batetik, Ikasbatuaz osatzen duten ikastolei buruz honako hau dio artikuluak: «...Hain zuzen ere, ikastolen Elkartearen barruan segitu ez eta sare publikoan sartzearen alde egin zuten ikastetxeak biltzen ditu Ikasbatuaz taldeak...».

Gure osaketari dagokionez, Ikasbatuaz Elkartea osatzen duten sare publikora bildutako 22 ikastoletatik 20 Ikastolen Elkartearen kide direla argitu nahi dugu. Momentu honetan Ikastolen Elkartearen berregituraketa planteatu da, eta antolaketa berri horren ondorioz sare desberdinetako ikastolen arteko harremanak nolakoak izango diren aztertzen ari gara, baina, oraingoz, gure kide diren ikastola gehienek Ikastolen Elkartearen parte izaten jarraitzen dute.

Jakin badakigu Euskal Hezkuntzaren mundua ez dela ulerterraza, hamaikatxo taldek osatzen baitugu, eta bakoitza kokatzea zail samarra egiten zaigu denoi, barrenetik ari garenotik hasita; beraz, gaizki ulertzeak ekidin eta egoera pixka bat argitzeko baliagarri direlakoan egin nahi izan ditugu aurreko zehaztapenak.

Zehaztapen horiek eginda, gauza bat utzi nahi dugu argi: izaera publikoa izateak ez du esan nahi orain arte izandakoari uko egin diogunik, Ikastolen Elkartearen barruan zein kanpo egonda, ginenak gara, gure izaera juridikoa aldatu bada ere.

Horrekin zera adierazi nahi dugu: sare publikora bildutako ikastolok badugula esperientzia desberdin bat sare honi eskaintzeko, bere onura eta akats guztiekin, sare publikoan gauden ikastetxe euskaldun guztiekin konpartitu nahi duguna, denon asmotan dagoen Euskal Eskola Publiko Berria lortzearen helburuarekin, bakoitzak duena aportatuz. **Marije Fullaondo** • DONOSTIA

### *Aitzakiak eta aitzakiak*

Besterik ez digute jartzen Madriletik eta Parisetik konponbide politikoez hitz egiten hasterakoan. Lehen ETA zen aitzakia. Orain kaleborroka. Eta bihar beste zerbait izanen da. Udalerrien Biltzarra akaso. Beharbada, euskal nazionalisten eskakizunen gehiegikeria. Hurrena, Mayor Orejak, umore txarrez jaiki dela-eta, hamaikagarren aitzakia jarriko du mahai gainean. Proposamen politikorik ezean, mahai gainean aitzakiak, aitzakiak eta aitzakiak jartzen dihardute. Noiz arte? **Jon Ruiz** • DONOSTIA

• MONTXO •



## astejorran

• PERNANDO BARRENA •
[HERRI BATASUNAREN MAHAI NAZIONALEKO KIDEA]

# Zalantzarik bazegoen ere...

Lerrook idazten ari naizen honetan, HBko mahaikideok Arantzazuko santutegian egiten ari garen barauaren erdian etorri zaigu guardia zibilak Donostiako egoitzetan sartu direneko berria. Joan den asteko operazio polizialen ondoren, eta zalantzarik bazegoen ere, argi agertu da berriro ere zein den espainiarren apustua.

Eta orain artean gizartearen aurrean bake-prozesu birtual baten irudikatzea helburu bazuen PPren politikak, argi geratu da oraingoan hemen bake-prozesu batean gaudenik esatera eraman gaitzakeen zantzurik ere ez dela inondik antzematen. Bake-prozesu bat abian jartzeko ez delako nahikoa alde baten borondatea besteak gerrarako apustua dagien bitartean.

> Euskal Herriari zor zaizkion gutxieneko eskubide demokratikoen aitortzaren esku etorriko da bakea

Bakea ez da helburu bat bere baitan. Horrela planteatzea bakeari mesede eskasa egitea litzateke. Bakea zerbaiten ondorioa da, herri gehienetan justizia sozialaren ondorioa izaten da, eta gurean, Euskal Herriari zor zaizkion gutxieneko eskubide demokratikoen aitortzaren esku etorriko da. Hori izanen da bake iraunkorra ezagutu ahal izateko bide bakarra.

Tentazioak baitaude hainbaten aldetik bakearen aldeko ekinbidea batetik eta prozesu politikoa bestetik bereizteko, eta horrela pentsatu eta bere ekinbide politikoa horretan oinarritu egiten duena planteamendu guztiz faltsuaren inguruan ari da, azken finean bakea presoen truke formularen berredizio hutsala eta aldez aurretik porrot biribilera deitua.

Nabaria da Mayor Orejaren saiakera tematua Lizarra-Garazi lehertzeko, ezker abertzalearen apustua sabotaiatzeko, irail aurreko garaietara itzultzeko. Etekin politiko handiagoko garaiak baitziren haiek PPrentzat oraingoekin alderatuta. Parisen eta Gipuzkoan egindako operazioen helburua ez da ETA, prozesu politikoa baizik. Horregatik da beharrezkoa gatazkaren soluziobide demokratikoan sinisten dugunon erantzun amankomunatua, prozesua blindatzearren. Ez dago jokoan proiektu politiko bat edo bestea, baizik eta herri honen existitzeko eskubidea, eta horrek euskaldun guztiok hartzen gaitu.

Bekatuan du penitentzia; Mayor Orejak ez dio bere buruari aitortu nahi dagoeneko ez dela ari ezker abertzalearen kontra bakarrik, iazko irailetik askoz indar handiagoko proiektu bat baitauka aurrez aurre: Euskal Herria.

• RAMON ETXEZARRETA •
[DONOSTIAKO PSE-EEKO ZINEGOTZIA]

# Batasun aireak

Batasun aireak dabiltza nagusi euskal politikagintzako nazionalismoan. Badirudi zauri historikoenei, estali ondorenean, azala egiten hasi zaiela. Kontuak aurrera jarraitzen badu, aurrera egiten, historian aurrera, historian beti, aurki ikusiko dugu oraindik ere historikoago, ondoren historikoagoak izan zituen neurrian, izan zen haustura (PNV eta ETArena) berehala konponduko dela. Adostasun guztiak dira txalogarriak; jendea umilago, eskuzabalago eta bihozberago bihurtzen laguntzen dute.

Dena den, nekeza da umiltasuna, eskuzabaltasuna, bihozberatasuna eta beste edozein *tasun* matematikoki neurtzea. Esan nahi dut etorkizun matematiko hala nolako bat ikusten diodala EAk eta PNVk sinatu berri duten batasunari, batasuna euforiaz eta lainezaz bizi duen zenbaitek baino gutxiago arren. Hauteskunde arrakasta ere, oraindainokoa baino gehiago esan nahi da, bai. Hala ere, hauskortasun zenbait nabariago ditu nere bistarako.

> Inoren edo ezeren alde baino inoren kontra pentsatuagoa iruditzen zait EA-EAJ ezkontza hori

Inoren edo ezeren alde baino inoren kontra pentsatuagoa iruditzen zait maiorazko ezkontza hori. Maite, ez dute elkar maiteko, baina etxeko soroek, zorioneko gure lurrak!, osorik, urraturik gabe, golde arrastorik ia ere gabe, aintzina bezala, jarraituko dute. Ahalegin handia izango da sozialistak eta gainerantzeko espainol klaseak Euskal Herriko eguzkipetik ezkutatzeko. Ezin hobeto bizi omen daiteke maitasunik gabe elkarrekin. Ez, ordea, ilusiorik eskatu arren.

Zerrenda bateratuak garaile aterako dira leku askotan, baina aurrera begira, behin espainolak eta gainerantzeko sozialista klaseak bazterrera utzi ondoren, bi talde guztiz ezberdin izaten jarraitzeko asmoa dute, zeren inoiz haserretutako bikotea ordez sozialdemokratak eta beste zerbait diren adiskideak omen, arras ezberdinak euren esanera. Hau esplikatu beharrak berak ez dakit matematikak are eta zailagoak ez ote dituen bihurtuko.

Nekeza da herritarrari esplikatzea nahi dena zera dela, arerio pilo bat elkartu nahi dela beste herritar pila bat demokratikoki (inork ez dezala hemen ironiarik irakur) menperatzeko, zer nahi den esan gabe, azkenean zer nahi duen galdetzeko eta berriro zikloari edo gurpil zoroari ekiteko. Zaila, ezinezko ez bada.

Baina zailena, guztiz ezinezkoa, arerio izendatua guztiz meneperatu ondoren, hor interlokutorea aurkitzea da. Aldiz, guztiz da erraza horrelako bizibideen ondoren matematikoki ez irabaztea eta interlokutorerik ez aurkitzea. Biak gertatzea da normalena, ez onena. Esan dut.

## gogoratuz

• JOXAN ELOSEGI •

### • Duela 162 urte

# *Kantuak, txapelak eta sinbolo lapurretak*

1837ko martxoaren 16an menderatu zituzten karlistek Lacy Evans jeneral ingelesak gidaturiko tropa ingelesak eta liberalak Oriamendiko gainean, Hernani eta Astigarraga artean. Galera handiak eragin zizkieten karlistek etsaiei, baina liberalek neke handirik gabe eutsi zieten aurkariei. Donostia inguruko beste muino eta gain ugaritan gertatu zen bezala, Oriamendi gerra-postu gutiziatua izan zen XIX. mende hasieratik aurrera.

Karlisten eta liberalen arteko guduek famatu zuten bereziki Oriamendi izena, baina ez zen horrenbesteko izango baldin Jose Juan Santesteban musikari donostiarrak, *Maisu Zarra* deituak, hango garaileen omenean gerokoan sona handia hartuko zuen martxa militar bat ondu ez balu. Liberalen omenez idatzi zuen *Oriamendiko martxa* Santestebanek 1837. urte hartan, Mozartek 1788an pianorako prestatu zuen sonata batean oinarritua, Bello Portuk dioskunez, baina karlistek jarri zioten lehen letra, euskaraz jarri ere, eta jabetu ziren doinuaz. Honela zuen hasiera:

*Gora Jainko maite maitea*
*[egin] zagun denon jabe*
*Gora España ta Euskalerria*
*ta bidezko errege.*

1936ko gerra aurreko urteetan, guztiz zabaldu zuten karlistek martxa honen letra-bertsio ezagunena, erdaraz, eta karlisten ereserkia bilakatu zen handik goiti Santestebanek liberalen omenez onduriko martxa. Karlisten irudi tradizionale faxista egoskorra laudatzen zen bigarren bertsioan:

*Por Dios, por la Patria y el Rey*
*lucharon nuestros padres*
*Por Dios, por la Patria y el Rey*
*lucharemos nosotros también*
*(...)*
*Cueste lo que cueste*
*Se ha de conseguir*
*Que los boinas rojas*
*Logren entrar en Madrid.*

Txapelgorriak Madrilen! Lehen gerra karlistatik aurrera hedatu zen txapela euskal eremu guztietara, ekialdetik mendebalderako norabidean, txapelaz jantzi baitzituzten alde bateko eta besteko soldado bolondresak, gerokoan kapelua zabalduko zutenak. Txapelgorriak ziren, ordea, bolondres liberalak eta txapeltxuriak karlistak. Txapel gorria zen, hain xuxen, liberalen sinboloetako bat... karlistak XX. mendean hartaz jabetu ziren arte.

Sinboloak sinbolo, txapela jazten eta nortasuna ukatzen digute euskaldunoi Madrilen eta Parisen. Garaia da gure Askatasunaren Ereserkia entzun dezaten.

EHUNEN DEIAK ERREAKZIO BAIKORRAK ERAGIN DITU EUSKAL ALDERDI POLITIKO ETA SINDIKATUETAN

# Alderdi sozialistak Frantzian aztertuko du departamenduaren gaia

- Irailean edo urrian eginen den manifestaldian parte hartzeko prest agertu da Frantxua Maitia sozialista
- Max Brisson-ek dio RPR alderdi politikoak so egile gisa parte har dezakeela Ehunen Deiaren ekimenean
- François Bayrou UDFko eta egungo Pirinio Atlantikoetako departamenduko buruak «arduragabekeriatzat» jo du

Hur Gorostiaga / **Baiona**

EUSKAL DEPARTAMENDUAREN inguruan mobizatzeko Iparraldeko ehun eragile publikok egindako deiak hainbat erreakzio sortu zituen atzo. Frantxua Maitia sozialisten idazkari nagusiak EGUNKARIAri egindako adierazpenetan, alderdi sozialistak heldu den egunetan Frantziako eztabaida bat eginen duela adierazi du, eta gaia «alderdiaren baitan berpiztu» egingo duela aitzinatu. Maitia prest agertu da heldu den irailean edo urrian egitekoa den manifestaldian parte hartzeko.

Max Brisson RPRko bozeramaileak, berriz, alderdiaren baitan eztabaidatu beharra azaldu du, eta so egile gisa parte hartzeko aukera agertu, baina RPR zatitzeko arriskurik ez duela hartuko adierazi digu.

François Bayrou Pirinio Atlantikoetako buru eta Euskal Departamendauren aurkari nagusiak, berriz, beldurraren estrategia erabili zuen atzo @RFPB irratian. «Gobernuak bere erabakia hartu du, eta inongo gobernu arduratsuk ez du beste hautu bat eginen, inork ez baitezake uka zer gertatzen den mugaz bestaldean. Mugaz bestaldean gertatu dena gure etxean gertatzea ez badugu nahi, gure ardurak hartu beharko ditugu».

Horiez gain, AB, EAJ, EA, ELB eta CFDTko ordezkariak baikor agertu dira, EGUNKARIAri eskainitako erreakzioetan.



BOB EDME

**Maitia, Capdevielle, Saint Martin eta Aniozbehere, Euskal Departamenduaren aldeko agerraldi batean.**

**GALDERAK**

**1.** Zein da zure iritzia Ehunen Deiari buruz? **2.** Nolaz heldu dira alderdietako kideak elkarrekin lanean aritzera? **3.** Zure alderdi edo erakundeak parte hartuko al du ekimen berri horretan?

**Frantxua Maitia** • PSko bozeramailea

### «Alderdi sozialistan nazional mailan eztabaida berpiztuko da»

**1.** «Sozialista ordezkari batzuek beren sustengua eman dute, baina bertze anitz izaten ahal ginen, Albert Pery edo ni bezala. Ene ustez, Euskal Departamenduaren Aldeko Hautetsien Elkarteak eta AND elkarteak beste manifestaldi bat antolatzea bide ona da. Alderdi batek antolatu ordez, hobe bi elkarte horiek egitea. Baldintza horietan, iduritzen zait sozialistek parte har genezakeela halako elkarretaratze batean».

**2.** «Ideiak aldatu dira urteak jin eta urteak joan. Anitz gauza lasaitu zituen Pierre Joxek 1988an honat jin zelarik, eta orduan abiatu urratsetan ari gara orain. Euskal Kultur Erakundea, Euskal Kulturaren aldeko sindikata, biltzarren bateratzea, debatea hor pausatua izan da urtetik urtera, eta, azkenik, *pays* egiturak ere abiarazi gaitu elkarrekin lan egitera. Baina argiki erraiteko, Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarrak, Europan euskal estatu bat sortu nahiak jende anitz hoztu du. Helburua departamendua baldin bada, Frantziako beste departamendu bat bezala izan behar du. Adostasun horrekin posible da lan egitea. Ber mementoan erraiten bada segidan behar dela bertze zerbaiterat pasatu, horrek hoztuko ditu anitz jende».

**3.** «Ene ustez, ehun horien deiari beharko da erantzun bat egin. Alderdi sozialistan, maila nazionalean guti dira hortaz arduratzen direnak. Nor da oroit François Mitterrandek bere 110 proposamenetan Euskal Departamendua proposatua zuela? Berriz ere eztabaida hori irekiko dugu maila nazionaleann alderdi sozialistan. Heldu den egunetan bilkura bat eginen dugu maila nazionalean horretaz mintza gaitezen. Batzuek aipatu baitute debate hori arras mugatua zela, eta ez zela gehiago ai-

*erreakzioak*

× **Frantxua Maitia** (PS): «Europan euskal estatu bat sortu nahiak jende anitz hoztu du. Helburua departamendua baldin bada, Frantziako beste departamendu bat bezala izan behar du»

× **Max Brisson** (RPR): «Euskal Herria 2010 eta Garapen Kontseiluan egindako lanen ondorioz, Ipar Euskal Herriko gizon eta emazteek elkarrekin mintzatzen eta elkarrekin lan egiten ikasi dute, eta horregatik heldu da aldaketa»

× **Xabi Larralde** (AB): «Mobilizazioa Euskal Departamendua lortzeko beste tresna bat bezala ageri da gaur egun, eta Ehunen Deiak bide horretan beste etapa bat egiteko xedea agertu du»

× **Jean Baptiste Etxeto** (CFDT):«Alderdi politiko eta organismoetako kideak alde agertzeak Euskal Departamendua sakoneko behar bat dela agertarazten du»

## Ehunen Deia — Erreakzioak

patuko. Ez da horrela, eztabaida hori berpiztuko baita. Bi gizaldi iraun duen eztabaida ez da hala isiltzen ahal».

**Max Brisson** • RPRko bozeramailea

### «Ez dut Alliot Marie edo Intxauspe baztertzerik nahi»

**1.** «Zerrendan RPRko kide edo hurbilekoak ageri dira, baina beren kontu egin dute. RPRk ez du posiziorik horretan, eta ez dut inolako gogorik horregatik bitan zarta dadin».

**2.** «Euskal Herria 2010 eta Garapen Kontseiluan egindako lanen ondorioz, Ipar Euskal Herriko gizon eta emazteek elkarrekin mintzatzen eta elkarrekin lan egiten ikasi dute, eta horregatik heldu da aldaketa. Bestetik, sindikatu eta elkarteetan ez dago gehiago zentsurarik orain dela 20 urte bezala, eta bakoitzak pentsatzen duena erran dezake».

**3.** «RPRk kolektibo horrek abiatutako ekimen batean alderdi gisa parte hartuko duen ala ez, gure artean eztabaidatuko dugu, baina aukera hori ez dut baztertzen. Hala ere, besterik ez bada, so egile bezala parte hartu dezakegu. Baina ez dezaket hori nik soilik erabaki. Eztabaidatu eta bozkatu beharko dugu. Baina ez dugu bazterketa prozedurarik abiatuko. Ez dut Michele Alliot Marie edo Michel Intxauspe baztertuko RPRk gai horri buruz erabaki bat harturik».

**Fernando Almandoz** • EAJko bozeramailea

### «Ehunen Deiak gizartearen gehiengoa islatzen du»

**1.** «Erabat ados naiz Ehunen Deiarekin, bai eta alderdia ere, bere osotasunean. Ipar Euskal Herriak, garatzeko eta Hegoa Euskal Herriarekin harreman zuzenak izateko, ezinbestekoa du berezko departamendua».

2. «Euskal Departamenduak egun ez du zerikusirik politikarekin. Bide handia egin da azken urteotan, eta AND eta AEDk asko lan egin dute bide horretan, bai eta Abertzaleen Batasunak ere, manifestaldi handi horrekin. Gu hastapenetik agertu gara Euskal Departamenduaren alde, eta horren alde indarrak batzen saiatu gara. Ehunen Deiak, nonbait, Euskal Departamenduaren alde dagoen gizartearen gehiengoa islatzen du».

**3.** «Gu ez gara manifestaldietarat ohituak, baina Euskal Departamenduaren aldeko ekimen oro sinatu dugu eta lagundu dugu. Aldi honetan ere hor izanen gara».




BOB EDME

**Iragan urtarrilean Euskal Departamenduaren alde Baionan egindako manifestaldia.**

*erreakzioak*

× **Fernando Almandoz** (EAJ): «Erabat ados naiz Ehunen Deiarekin, eta baita alderdia ere, bere osotasunean. Ipar Euskal Herriak, garatzeko eta Hego Euskal Herriarekin harreman zuzenak izateko, ezinbestekoa du berezko departamendua»

× **Michel Berhokoirigoin** (ELB):«Estatuko ordezkariek ezezkoarekin beren xedearen kontrako ondorioa lortu dute. Chevenementek edo besteek ez dute sekula gure eskaera kalituko. Desafioa bota du, baina euskal gizarteak altxatu du, beste desafio batekin ihardetsiz»

× **Manex Pagola** (EA): «Euskal Departamenduaren alde orain arte agertu zen jendeaz gain, alderdi zenbaitetan deus egiten ez zela ikusirik, pertsonaia publiko batzuek nahi izan dute beren iritzia agertarazi Euskal Departamenduaren afera aitzina dadin»

**Xabi Larralde** • Abertzaleen Batasunako bozeramailea

### «Gizarteak ez du nahi Parisek inposatutako agindurik»

**1.** «Jean-Pierre Chevenement Barne ministroaren adierazpenen ondoren, ezinbestekoa ikusi genuen Euskal Departamenduaren aldeko mugimenduari indar berri bat eman behar zitzaiola. Ehunen Deiak beste behin ere adierazten du Ipar Euskal Herriko gizarteak ez duela Parisek inposatutako agindurik onartu nahi. Bestetik, Euskal Departamenduaren eta ofizialtasunaren alde egin genuen kanpainan, faktore berri bat sartu genuen Euskal Departamenduaren gaian: mobilizazioa. Mobilizazioa Euskal Departamendua lortzeko beste tresna bat bezala ageri da egun, eta Ehunen Deiak bide horretan beste etapa bat egiteko xedea agertu du».

**2.** «Hiru elementu izan dira erabakigarriak. Batetik, Herriko Etxeen aldeko boza garrantzitsua izan da; inork ez zuen hain indartsu espero. Bigarrenik, urtarrilaren 30eko manifestaldi paregabea dago. Eta hirugarrenik, Iparraldeko gehiengoari Parisek agertu dion mespretxua».

**3.** «ABren azken biltzar nagusian estrategiazko testu bat onartu genuen, eta bertan Euskal Departamenduaren alde sektore guztiekin lan egiteko erabakia hartu genuen. Garrantzitsuena gizarte osoa mobilizatzea da, ahalik eta indar harreman handiena sortzeko, Paris eta hemengo hautetsi jakobinoen aitzinean. Gisa berean, abertzaleon mezua gizarte osoari helarazteko bidea izan daiteke».

**Michel Berhokoirigoin** • ELBko bozeramailea

### «Estatuak egindako desafioari ihardetsi dio gizarteak»

**1.** «Ekimen baikorra da, dudarik gabe. Orain dela denbora guti ez zen pentsatzen ahal ere halakorik gerta zitekeenik. Estatuko ordezkariek ezetza agertzean, beren helburuaren kontrako ondorioa lortu dute. Chevenement edo bestek ez dute sekula gure eskaera kalituko. Desafioa bota du, baina euskal gizarteak altxa du, beste desafio batekin ihardetsirik».

**2.** «Ohargarria da euskal gizartea ematen ari den erantzuna, inork ez zezakeen halakorik pentsa. Abertzaleen Batasunaren manifestaldian bildu zen jende andanak, abertzale eta beste, horrek ere erakutsi du gizartean erroturiko eskaera dela. Manifestaldi hori izan da nire ustez, gauzak gehien aldatu dituena azkenaldian».

**3.** «Euskal Herriko Laborarien Batasunak Ipar Euskal Herriko laborariendako ezinbestekotzat jo du Euskal Departamendua, laborantza egiturak ekarriko batitu. Gisa horretan departamenduaren alde eginen den ekimen orotan partehartuko dugu, urtarrilaren 30eko manifestaldian partehartu genuen bezala».

**Manex Pagola** • EAko bozeramailea

### «Harrigarriak dira azkenaldian izaten ari diren aldaketak»

1. «Gauza ona dela iduritzen zait. Euskal Departamenduaren alde orain arte agertu zen jendeaz gain, alderdi zenbaitetan deus egiten ez zela ikusirik, pertsonaia publiko batzuk nahi izan dute beren iritzia agertarazi Euskal Departamenduaren afera aitzina dadin».

**2.** «Harrigarri dira azken aldian ematen ari diren aldaketak. Hala ere iduri du Euskal Departamendua geroz eta gehiago hauteskundeetara begira erabiltzeko gaia izanen dela».

**3.** «EA aspaldian agertua da Euskal Deparatamendua, euskara eta euskal kulturaren ezagutzaren alde. Hegoaldean ere bada ordua mugi daitezen Bordeleri buruz, Ipar Euskal Herriak bertze eskualdeekin aritzeko ez baitu nahi Pauetik pasatzera beti beharturik egon».

**Jean Baptiste Etxeto** • CFDTko idazkari nagusia

### «Inteligentziaren erakusle da»

**1.** «CFDTrendako ez da besteen araberako iritzi agerpen bat, aspaldian hartua duen sakoneko posizio baten aldeko adierazpena baizik».

**2.** «Euskal Departamenduaren alde agertzea, inteligentziaren erakusle da. Hemen lurralde berezi batean bizi gara eta lurralde horrek existentzia izan behar duela ukaezina da. Alderdi eta organismo ezberdinetako kideak alde agertzeak Euskal Departamendua, sakoneko behar bat dela agertarazten du».

**3.** «CFDT Frantziako sindikatu bakarra da egitura propioa duena Ipar Euskal Herrian, eta Euskal Departamenduaren alde engaiatua. Departamenduak dinamismo ekonomiko enplegu sortzailea ekarriko luke. Herritar gisa, instituzionalki administrazio ezberdinetako ordezkariekin komunikatzeko erraztasuna ekarriko luke».

Sabotajeak Bizkaian eta Gipuzkoan

# Urtuellako PSE-EEren egoitza kiskalita geratu da atzoko erasoaren ondorioz

*Erasoa gaitzesteko ezohiko osoko bilkura egingo du Udalak gaur eguerdian*

Agentziak/ **Bilbo**

**Urtuellako PSE-EEko Herriko Etxeari eraso zioten atzo goizeko hamarrak eta erdiak aldera. Bost kaputxadunek egoitzaren tabernan erregaia bota ostean, sua eman zioten, eta haren ondorioz guztiz kiskalita gelditu zen.**



XOUSE SIMAL

**Urtuellako sozialisten egoitzako taberna erasoa gertatu ondoren.**

URTUELLAKO PSE-EEko Herriko Etxeari eraso zioten atzo 10:30ak aldera bost kaputxadunek, Ertzaintzak jakinarazi zuenez. PSE-EEko egoitzaren taberna zabaldu eta minutu batzuk geroxeago, erasotzaileak kristalak apurtu eta tabernaren barruan sartu ziren. Behin barruan, erregaiz beterik zeramatzaten bidoiak bertan hustu eta sua piztu zuten. Erasoaren ondorioz, taberna zeharo kiskalita geratu zen, eta suteak sortutako keak egoitzaren beste instalazioetan ere kalteak eragin zituen.

PSE-EEk zabaldutako informazioaren arabera, une hartan egoitzaren barruan zeuden lau pertsonek itzali zuten sortutako sutea tabernan zeuzkaten suitzalgailuez.

Atzoko erasoak agintari sozialisten berehalako gaitzespena eragin zuen. Nicolas Redondo Terreros PSEko idazkari nagusiak EAJri exijitu zion kale borrokaren erasoak pairatzen dituzten ordezkari sozialistei benetako elkartasuna adieraz diezaien, «urte askotan EAJk herrialde honetako demokratei eman diena bezalakoa». Atzo Durangon egin zituen Redondok adierazpen horiek, Gladis Garciari, Bizkaiko udalerri horretako sozialisten bozeramaileari, elkartasuna adieraztera joan zenean.

Redondok, halaber, gizartean zatitze prozesua gertatzen ari dela esan zuen, eta, beraz, kale indarkeriaren aurrean lasaitasuna eskatu zuen; izan ere, haren ustez, «ekintza bortitz hauek desagertu egingo dira udal hauteskundeak hurbiltzen doazen heinean».

Erasoa dela-eta, ezohiko udalbatza egingo du gaur eguerdian Urtuellako Udalak. Ostean ekintza politikoa egingo du PSE-EEk. Ekitaldian parte hartuko dute Redondo Terrerosek, Patxi Lopez Bizkaiko PSEko arduradunak eta Urtuellako alkate Jose Antonio Pastorrek.

Erasoaren berri izan ostean horri buruzko iritzia eman zuen Pastorrek. «Haserre eta suminduta sentitzen naiz», esan zuen. Urtuellako alkateak EAEko erakundeak kritikatu zituen, ez dituztelako erasoak gaitzetsi. Horretaz gain, Lopezek dei egin zien herritarrei indarkeria horren aurrean ETAren aurka erakutsitako gizabidezko kuraiari eusteko.

«Lotsagarria da eraso basati hauen aurrean erakundeek hartzen duten jarrera, beste alde batera begiratzen dute, eta ez dute ezer egiten. Bada garaia behingoz denok gure erantzukizuna hartzeko eta erasotzaileei deitzeko merezi duten bezala, faxista hutsak besterik ez dira eta», gaineratu zuen.

## Tolosako eta Eibarko epaitegiei eraso diete hainbat ezezagunek

Efe / **Donostia**

EIBAR eta Tolosako epaitegiei su eman zieten hainbat ezezagunek atzo goizaldean. Eibarren molotov koktel bat jaurtiz eta Tolosan likido su-eragile baten bidez eraso zieten bi epaitegiei, eta Herrizaingo Sailak azaldu duenez, altzarietan eragin dituzte kalterik handienak.

Lehen erasoa goizaldeko 00:15etan gertatu zen, Tolosan. Informazio agentziek zabaldu dutenez, hainbat ezezagunek Tolosako Epaitegiko leihoa hautsi zuten, barrenera likido su-eragilez betetako bi txanbil jaurtiz. Horren ondoren su eman zioten zuzi batekin. Suak mediku forentsearen bulego zaharrean eragin zituen kalte larrienak, Herrizaingo Sailaren arabera. Tolosako Epaitegiaren kontra hainbat sabotaje egin dituzte dagoeneko. Azken erasoa urtarrilaren 1ean gertatu zen.

Eibarko Victor Sarasketa kalean dagoen epaitegiari, berriz, goizaldeko 1:50 inguruan egin zioten eraso. Horretan ere erasotzaileek kristala hautsi zuten, baina molotov koktel batek eragin zuen ondoren piztu zen sutea. Suteak zaindariaren gelako altzariak eta epaitegiko korridorea kaltetu zituen batez ere, baina han zeuden dokumentu eta paperek ez zuten kalterik jasan.

## Durangoko PSEko hautetsi bati etxean egin lehergailu bat ipini diote auto azpian

Agentziak / **Bilbo**

DURANGOKO Udaleko Gladis Garcia zinegotzi sozialistaren auto azpian jarritako lehergailu txiki bat indargabetu zuen atzo goizaldean Ertzaintzak. Sozialisten udal taldeko bozeramailearen autoaren aurka egiten den bigarren erasoa da, iragan otsailaren 25ean molotov koktel bat jaurti baitzioten, nahiz eta ez zuen kalte handiegirik egin.

Gauerdia baino beranduxeago aurkitu zuten lehergailua kotxearen azpialdean, eta Ertzaintzak handik gutxira indargabetu zuen. Herrizaingo Sailak azaldu duenez, etxean egindako lehergailua zen, eta gasolinazko txanbil batek eta petardo batek osatzen zuten.

Horren berri jakin ondoren, Nicolas Redondo Terreros PSE-EEko idazkari nagusia Durangora joan zen Gladis Garciari bere elkartasuna adieraztera. Eguerdi aldera iritsi zen Durangora. Honela hitz egin zuen Redondo Terrerosek gertatutakoari buruz: «Tamalez, gure askatasuna murrizten saiatzen ari dira, baina ez dute lortuko». «Egunero-egunero ikusten ditugu indarkeria ekintzak, eta batez ere astebukaeretan. Hiltzeari utzi diote, baina oraindik ez dira adierazpen askatasuna bezalako eskubideak errespetatzen», gaineratu zuen.

Garciak, bestalde, ez diola bere lana egiteari utziko adierazi zuen. «Borrokan jarraitzeko eta nire ideiak defenditzen jarraitzeko gogoz sentitzen naiz oraindik», baieztatu zuen.



TXEMA FERNANDEZ / EFE

**Gladis Garcia eta Nicolas Redondo Terreros atzo.**

## Sabotajeak

erreakzioak

**Iñaki Anasagasti** • EAJko diputatua



### «Eraso hauekin kalte izugarria egiten zaio bake prozesauri»

«Nolabaiteko etsipen sentsazioa dugu, biktimari egiten zaion kalteaz aparte, bake prozesuari kalte izugarria egiten zaiolako», adierazi zion atzo Iñaki Anasagastik Efe agentziari. EAJko diputatuaren ustez, kale istiluek eta sabotajeek egiaztatzen dute badagoela «negoziaziorik nahi ez duen sektore gogor bat». Sektore hori, Anasagastirez ustez, «jendearen bizitza aztoratzen eta oraindik hasi ez den prozesuaren kontra eraso egiten ari da».

**Lepoldo Barreda** • PPko parlamentarioa

### «Eusko Jaurlaritzaren eraginkortasun politikorik ezak bultzatzen ditu horrelako ekintzak»

Lepoldo Barreda PPko parlamentarioak Eusko Jaurlaritzaren «eraginkortasun politikorik ezari» egotzi zion atzo azkeneko sabotajeen ardura. Ertzaintzari zorionak eman zizkion Durangoko zinegotziaren kotxe azpian zegoen lehergailua indargabetzeagatik, eta kritika guztiak arduradun politikoen kontra bideratu zituen. «Ertzainak, kale borrokari aurre egiteko erabaki operatiboak hartzeko ardura dutenen gainetik daude», adierazi zuen Barredak.

**Manuel Maria Zorrilla** • EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakaria

### «Bake prozesua laguntzeko borondaterik ezaren isla»

«Tolosa eta Eibarko epaitegiek jasan dituzten erasoak interpretazio bakarra dute. Erasook gizalegearen kontrako jarduerak izateaz gain, bake prozesua laguntzeko erabateko borondate gabezia erakusten dute. Mota horretako erasoak osagarri erabat hondatzailea dira bake prozesuan itxaropena dutenentzat. Ikusten dugunez, aukera hori hondatu egin daiteke horrelako esku-hartzeekin, behin eta berriz gertatzen dira, ez dira saihesten, eta ondorio bakarra dute: gizartearen egoneza eta etsipena».

**Abel Muniategi** • Justizia sailburuordea

### «Hasitako bake prozesua normaltasunez garatzea saihesten dute»

«Erasoek instituzioekiko errespetu gutxi erakusten dute, eta, era berean, Euskadin hasi berria den bake prozesua normaltasunez garatzea saihesten dute. Judikatura Judikatura da, botere publiko bat da, legegilea eta exekutiboa diren moduan. Zalantzarik gabe, herrian sustraitua dago, eta estatuaren botere bat da, eta erasoak ezin dira inolaz onetsi. Oinarri sendoko instituzioak dira, demokratikoak, eta, ondorioz, zuzenbideko estatu demokratiko baten ezin da funtzionatu instituzioekiko gutxieneko errespetu hori gabe».

**Javier Madrazo** • IU-EB

### «ETAren su-etenak zabaldutako itxaropen bidean atzerapausoak dira eraso hauek»

«Euskal Herritarrok indarkeriaren desagerpena bultzatu beharko luke, edo bestela gaitzespen garbia adierazi. Bada garaia EHk onar dezan indarkeria eta erasoak dauden bitartean ezinezkoa dela bakegintzara eramango gaituen elkarrizketa politikoa egotea. Kale borroka oinarrizko eskubideen urraketa garbia da, eta ETAren su-etenak zabaldutako itxaropen bidean atzerapausoak dira erasoak».

**BAK**

### «Indarkeria behin eta berriz erabilita ere, gizarteak ez du etsiko»

«Indarkeriaren erabilera behin eta berriz egitearren, gizarteak ez du etsiko, intolerantzia eta fanatismoaren iturrietatik edaten dutenentzat izan ezik, ekintza mota horiek justifikaziorik ez dutelako. Horregatik, indarkeria mota guztiak bertan behera uzteko deia egiten dugu, zuzenbide estatuak eskaintzen dituen bideez baliatzea arazoak konpontzeko ir-

# Alderdi katalanek «ongi» ikusten dute Nazio Batuetako begiraleak eskatzea

*Redondo Terrerosek «txorakeriatzat» jo du Lizarrako alderdiek eginiko eskaria*

Agentziak / **Bartzelona**

**CiU, ERC eta PI alderdi kataluniarrek euren adostasuna helarazi diete NBEko begiraleak eskatzeko proposamena egin dutenei. Alderdion esanetan, «bake prozesua bere etenalditik aterako duen edozer ongi etorria» izango da. PSOEko eta PPko buruzagiek, berriz, kontrako iritzia azaldu dute.**



MIREN SAEZ

**Euskal Herriko egungo prozesua ikuskatzeko NBEn begiraleak eskatzea erabaki dute IUk, EAJk, EHk eta EAk.**

CiU alderdiko Joaquim Molins buruzagiak «baikorki» baloratu du NBEko begiraleak eskatuz EAJk, EAk, EHk eta IUk elkarrekin egindako proposamena. Molinsen arabera, ez du ulertzen zertara datozen proposamenari egindako kritika guztiak. «EAJk egiten duen guztia demonizatu nahi dute PSOEk eta PPk, eta politika horrek, okerra izateaz gain, ez garamatza inora», esan zuen. Bere ustez, «Rosa Diezek proposamena egin zuenean ongi iritzi zioten berberak dira orain proposamenaren kontra altxatu direnak».

ERC eta PI alderdiek ere beren elkartasuna helarazi zien proposamenaren egileei. Joan Puigcercosen (ERC) arabera Espainiako Gobernua «ezin da izan aldi berean gatazka politiko bateko alde eta epaile». Benet Tuguesen (PI) ustez, berriz, «bake prozesua bere gelditasunetik atera dezakeen edozerk balio du, eta kanpoko talde bat lagungarri izan daiteke».

## Aldekoak eta kontrakoak IUn

Agentziak / **Cordoba**

IUko buruzagi Julio Anguitaren ustez «ideia ona» da NBEko begiraleak Euskal Herrira etortzea, horrela «begiraleek berek ikusiko dutelako zer ari den gertatzen eta bortxakeriaren salaketara gehitu daitezkelako». Iritzi bera azaldu zuen Javier Madrazo EAEko IUko koordinatzaileak ere. Gai honen inguruan sortutako kritikak baztertu zituen, eta gaineratu zuen «HB eta honen munduari indarkeria alde batera uzteko eta Espainiako Gobernuari urratsak emateko esijitu arazteko» balioko dutela NBEko begiraleek. Nafarroako koordinatzaile Felix Tabernak berriz kontrako iritzia azaldu zuen: «proposamena anekdotikoa eta sinbolikoa da, eta ez du ezertxo ere eskaintzen». Proposamenaren balio ezaz mintzatu ziren Espainiako IUko beste hainbat buruzagi ere.

### Muniategi: «Lagungarria izango da»

Bestelako iritziak ere izan ziren atzo. EAEko Gobernuko Justizia sailburuordea Abel Muniategiren esanetan, «lagungarria izango da». Honela gaineratu zuen: «Gatazka politikoa dagoen beste herri batzuetan lagundu badute, hemen zergatik ez?». Nicolas Redondok, berriz, «txorakeria eta astakeriatzat» jo zuen proposamena. Josep Pique Espainiako Gobernuko bozeramaileak esan zuenez «bake prozesua guk konpondu behar dugu, kanpoko inor gabe».

## Zaragozatik Logroñora eraman dute Fernandez Perez de Nanclares euskal presoa

*Espetxe politika aldatu gabe, kasuak banaka aztertuz jarraituko dutela esan du Espetxe Zuzendaritzak*

Agentziak / **Donostia**

SENDIARTEKO arazoak direla-eta, Zaragozako espetxetik Logroñokora eraman dute Jose Manuel Fernandez Perez de Nanclares euskal preso politikoa, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak atzo jakinarazi zuenez.

Iturri berek aditzera eman zutenez, bestalde, hirugarren gradua eman diote Urko Izagirre Bernaola presoari. Izagirre Bernaola Langraitzeko espetxean dago, 35 urteko kartzela zigorra betetzen. Espetxe erakundeen esanetan «presoaren bilakaera baikorrak» eragin du grado aldaketa.

Iruñeko espetxean dagoen Sabino Alava Garciarentzat berriz baldintzapeko askatasun aurreratua eskatu du Espetxe Zuzendaritzak Espetxe Zaintzarako Epaitegian. Presoak gaisotasun larria dauka, eta errejimen irekian bizi du bere zigorra. Urko Izagirre eta Sabino Alava presoak ez daude Euskal Presoen Kolektiboan barneratuta. Espainiako Gobernuaren espetxe politikak orain artekoan jarraituko duela ere esan zuen Espetxe Erakundeak.

# PSNren hauteskunde zerrendan agertu ez izana deitoratu du Lola Egurenek

*Egurenek ez zion erantzun bigarren postuan egoteko proposamenari*

Erredakzioa / **Iruñea**

PSNk herenegun gauean erabaki zuen bere hautagai zerrenda. Nafarroako Parlamentuko lehendakari Lola Eguren ez da zerrendan ageri, ez baitio erantzunik eman 2. postuan egoteko Lizarberen proposamenari. Hori dela-eta Egurenek PSNren erabakia deitoratu du.

Lizarbek duela astebete zerrendaren bigarren postuan egoteko aukera eskeini zion. Baina Egurenek, zerrendako postuez hitz egiten hasi baino lehen, «zenbait hausnarketa egin behar zirela» aipatu zuen. Lizarbek erran zion zerrenda eratzeko bilera baino lehen proposamenari erantzunik ez ematekotan ez zela zerrendan sartuko. Eta hala gertatu da.

Lola Egurenek deitoratu zuen atzo PSNk bere baldintzak onartu ez izana eta, horrenbestez, bere izena zerrendan ez agertu izana. Egurenen aburuz, herenegunekо gauan osaturiko zerrendak «Gobernu batzordea ordezkatzen du soilik, ez da alderdi osoaren benetazko ordezkapena». «Nire nahia integratzailea zen», adierazi zuen, «iritzi guziak bildu nahi nituen, ez bakarrik alde bat, nahiz eta gehiengoa izan». Egurenek gaineratu zuen bere jarrera ez zela «arduragabea» izan . «Beti pentsatu izan dut integrazioa bezalako ideiek lehentasuna dutela eta ni zenbagarren postuan egonen naizen bigarren mailako gauza dela». Azkenik, «ideia sozialisten alde alderdiak nahi bezala eginen duela lan» ziurtatu zuen.



EFE AGENTZIA

**Lola Egurenek gogo txarrez hartu du PSNko zerrendetan ez egotea.**

50 izenez osatutako zerrenda hilaren 27an onartu beharko du PSNren Batzorde erregionalak. Lizarberen ostean, Elena Torres dago. Egun 10 parlamentario ditu PSNk eta zerrendan parlamentario bakarra dago lehen hamar postuetan, Carlos Cristobal. Hurrengoa, Juan Andres Platero, 12. postuan dago, eta hirugarren parlamentario bat, 23. postuan. Azkeneko postuan, sinbolikoki, Asun Apestegia dago.

# Espainiak eta Frantziak eginiko erasoei irmoki erantzutera bideratuko ditu indarrak HBk

*Eraikuntza Nazionalaren bidean «motor lana» egiteko konpromisoa berretsi du*

Ainhara Zuazabeitia / **Arantzazu**

**Hego Euskal Herri osotik iritsitako 360 lagunekin Euskal Herriaren egoera politikoa aztertu ondoren, HBko ordezkariek amaitutzat eman zuten atzo joan den igandean abiatutako gogoeta-baraualdia. Eraikuntza nazionalean «motor lana» egiteko konpromisoa hartu eta «erasoei erantzun irmoa emateko asmoz» indar guztiak horretara bideratuko dituela HBk esan zuten.**




GARI GARAIALDE

Hego Euskal Herri osotik iritsitako 360 lagunek egoera politikoa aztertu zuten Batzar Nazionalean, Arantzazun.

EUSKAL HERRIAREN eraikuntza nazionala lortzeko bidean «motor lana» egiteko konpromisoa hartu zuen atzo HBk, Arantzazun egindako Batzar Nazionalean. Horrekin batera, azken egunotako «eraso askotarikoei» Lizarra-Garaziko talde guztiek elkarrekin erantzuteko «aukera erreala» dagoela azpimarratu zuen Joseba Permachek, eta gaineratu zuen HBk indar guztiak erabiliko dituela «erantzun komun eta irmo hori ahalbidetzeko».

Hego Euskal Herriko 360 ordezkari joan ziren atzo Arantzazura, Euskal Herriko egoera politikoaren azterketa egitera. Joseba Permach mahai nazionalkideak azaldu zuenez, Lizarra-Garaziko Akordioaren balioa azpimarratu zuten batzarrean, prozesu «geldiezina» dela azpimarratuz. «Nazio eraikuntzarako apustua martxan da, herriak hitza hartu baitu», gaineratu zuen.

## Gero eta batasun handiagoa

Lizarra-Garazin dauden alderdi, sindikatu eta talde sozialen arteko «batasuna» gero eta handiagoa dela esan ondoren, Frantziako eta Espainiako Gobernuen «urduritasuna» aipatu zuen, eta «egonezin» horri lotu zion azken egunotan gertatutakoa. «Irailaren 12an Lizarran hasi genuen prozesua lehertarazi nahi dute Madrilek eta Parisek», esan zuen Permachek, eta horren lekuko ipini zituen EAJ, EA eta IUri egiten ari zaizkien presio politiko eta mediatikoak, HBren kontrako errepresioa eta presoen sakabanaketa egoerak segitzea. Nolanahi ere, ezker abertzaleak eta HBk apustu politikoa «indartu» egingo dutela adierazi zuen, Lizarran hasitako bidetik jarraitzeko asmoz. «Euskal Herri independentea eraikitzen ari gara, lurraldetasuna errespetatzen duen orubea», nabarmendu zuen. Horrenbestez, egungo egoera «latza» gainditzeko lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi zuen Joseba Permachek.
«Euskal Herriko beste sektore abertzale eta aurrerakoiekin batera, eraiki egingo dugu gure herria, eta motor lana egiteko prest dago ezker abertzalea», Permachek azaldu zuenez.

## HBk bat egin du Jarraik gaurko antolatutako mendi ibilaldiarekin

Erredakzioa / **Donostia**

HBk bat egin du Jarrai gazte erakundeak gaurko antolatu duen mendi ibilaldiarekin, eta «bake bidea aurkitzeko itxaropenean dagoen euskal gizarte osoari, eta gazteei bereziki» dei egin die bertan parte har dezaten. Bi zutabek osatuko dute mendi martxa hau. Bata Areetatik (Getxo) aterako da, eta bestea Portugaletetik. Goizeko 10:30etan abiatuko dira zutabe biak, eta arratsaldeko 17:30etarako iritsiko dira Bilbora, ordu horretan hasiko den manifestazio nazionalarekin bat eginez. HBren arabera, «ezinbestekoa da gazteriari bultzada ematea, kontuan izanik errepresio gogorra bizi duela Espainiako Gobernuaren aldetik». PPren eta PSOEren helburua Jarrai «egurtu eta kriminalizatzea» dela dio HBk, eta «elkartasuna» adierazi behar zaiola erakundeari, «Euskal Herriko etorkizuneko aurpegietako bat» delako.

## laburrean

**■ Elkarrizketaren bideari ekiteko eskatu dio Espainiako Gobernuari Rifondazione Comunistak**

Milango Udaleko (Italia) Rifondazione Comunistako zinegotzi taldeko Umberto Gai eta Davide Tinellik elkarrizketaren bideari ekiteko eskatu diote Espainiako Gobernuari. Gai eta Tinelliren arabera, azken egunotan izandako polizia operazioak eta HBko egoitzen miaketak urrats «arriskutsuak» dira, eta gaineratu dute elkarrizketaren bidea dela «balio duen bakarra».

**■ Auzitegi Konstituzionala Gobernuaren erabakiak bideratzeko dela salatu du Iñaki Anasagastik**

Hartzen dituen erabakiak bideratzeko erabiltzen duela Espainiako Gobernuak Auzitegi Konstituzionala salatu zuen atzo Iñaki Anasagastik. Kurduen erbesteko Legebiltzarrari EAEko Legebiltzarreko eraikuntza uzteko Mahaiak hartu erabakia errekurrituko du gobernu zentralak. Hori, Legebiltzarraren subiranotasunaren kontrako erabakia dela esan zuen jeltzaleak, gaineratuz Aznarren go-bernuak nahiago duela Turkiako Gobernua, erakunde demokratiko batek erabakitakoa baino.

IRUÑEAN HASI ZEN ATZO GOIZEAN KORRIKA 11, ETA, ETENIK GABEKO JARDUNEAN, IPARRALDERA IRITSI ZEN GAUERDIAN

# Hamaikagarren aldiz abian

- Iruñeko Gaztelu plaza jendez gainezka izan zen atzo goizeko hamaiketan, lasterketa euskaltzalearen hasieran
- Euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz, lehen kilometroa Oinarriak taldeko kide batek egin zuen
- Gauerdian zeharkatu zuen Izpegiko mendatea, eta Ipar Euskal Herrian sartu zen. Bertan emango du eguna gaur

Arantxa Iraola / **Iruñea**

GOIZEKO hamaiketan. Puntu-puntuan hasi zen atzo Korrika 99 Iruñean. Hara joan zirenek hasiera paregabea eman zioten. Korrika abian hasi aurretik jada gainezka zegoen Gaztelu plaza. Bitartean, AEK-ko kideek urduritasun oro estali eta gogoz ekin zioten plazako kiosko gainean Korrika 11 aurkezteko hitzak esan eta aurtengo mezu sekretua lekukoaren barruan sartzeari. Bide batez, ohore eta esker oneko hitzak azaldu zizkieten aurtengo hamaika —zenbat bestela?— omenduei, bertan baitziren gehienak.

Kioskoaren pean, geldirik egon ezin zuen jende piloa zegoen. Dantzan zebiltzan batzuk, musika jotzen beste asko, danborrak astintzen bakarren batzuk... 11:00etatik aurrera guztiek zeregin bakarra izan zuten: lasterka egitea. Oinarriak taldeko Joxema Leitzaren atzetik —berak eraman zuen lekukoa aurrenengo kilometroan euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz— abiatu ziren guztiak. «Euskal Herrian euskaraz!» eta «Euskara hizkuntza ofiziala» leloak eztarria urratzeraino aireratu zituzten gehienek, eta kirol kontuetan iaiotasun txikiena dutenen artean aurki iritsi ziren arnasestuak eta musu gorri-gorriak. Arnasestuka amaitu zuen aurrenengo kilometroa Joxema Leitzak ere. «Oso luzea egin zait», zioen, urduritasunak —izugarri urduri baitzegoen— eta une horretako hunkidura bereziak hamaika hausnarketa sortu baitzizkion barruan.

### Iparraldera, lasterka

Arnasestuak ez ziren aurtengo Korrikarentzat aitzakia izan, ordea. Iruñea osoa zeharkatu zuen, eta auzo, karrika zein kale kantoi gehienetan harrera paregabea egin zioten. Arrotxapean globo mordo batekin eman zioten ongi etorria: Euskalerria Irratikoek gorbataz jantzirik, Zizurren Ikurrina erraldoi batekin... Arratsalde partean, berriz, korrikalariek Iruñea utzi —Nafarroako hiriburuko azken kilometroa sindikatuetako ordezkariek egin zuten— eta Ipar Euskal Herrirako bidea hartu zuten. Burlata, Atarrabia, Arre, Enderitz, Elizondo, Erratzu... Urrats berriak izan ziren etenik gabeko lasterketan, eta gauerdian, iragarri bezala, Izpegi zeharkatu eta Ipar Euskal Herriko lurretan sartu ziren. 2.250 kilomentroko ibilbide luzean aurrenengo kilometroak izan ziren. Abian da. Jende andanak egin du bat Korrikarekin.



JOXE LACALLE

**Arrakasta osoz egin zituen Korrikak atzo lehen kilometroak. Argazkian ikus daitekeen bezala, jende andanak egin zuen bat.**

## Korrikako orporik dotoreenak

*lekukoa*

ARANTXA IRAOLA

Polita da lasterka ari direnen oinetakoei begira egotea. Zapatila zaharrak, mendiko bota handiak, korrika ibiltzeko oinetako berri eta distiratsuak... Horrelakoak dira asfalto gaineko borrokan jaun eta jabe. Tarteka, oso bestelako oinetakoak ikusten ziren atzo Iruñean, ordea. Lurra indarrez zanpatzen zuten oinen artean, orpo arin batzuk ikusten ziren, airosoak, dantzarako sortuak. Hamaikatxo bat emakume, takoizko zapatak zituztela ibili ziren lasterka. Bitxiak ziren Korrikan haien oinak. Bitxiak, halaber, haien arropak. San Jose eguna izaki, jaiegunetan ohikoak izaten diren jantziak zituzten soinean: beroki apainak, gabardina dotoreak... Gizonezko batzuk ere, itxura berezia zuten *kirolero* guztien artean. Ez lasterka ibiltzeko zapatilarik, ez Korrikako elastiko erreibindikatiborik, ez buruko txirnak lotzeko zintarik... Txukun aski lisatutako galtzekin egin zuten lasterka, larruzko zapata puntaluxeekin.

Andre-gizon horiek, dudarik ez, gutxiengo ziren atzo Iruñean. Gutxiengo izango dira, seguru aski, datozen egunetan ere. Hala ere, zirrara berezi bat pizten du haiek lasterka ikusteak. Irriz egiten dute lasterka, oihu handirik egin gabe, lotsatuta ia. Baina lasterkaldi horrekin, estereotipo orotatik haratago, ilusioa dagoela diote. Hala, datozen egunetan ere, takoidun orpoak, Korrikako orporik dotoreenak, lasterka ikusi nahi ditugu. Tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika!

Korrika 11 1+1=hamaika

# Lasa: «Euskararen hegoak moztu nahi dituzte»

*Nafarroako AEK-ko arduradunak gertatzen diren bidegabekeriak salatu zituen*

Irene Arrizurieta / **Iruñea**

**Iñaki Lasa Nafarroako AEK-ko arduradunak euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuen herrialdean zein Iparraldean, eta euskaraz bizi nahi dutenei ezartzen zaizkien trabak gogoratu zituen. Agintariek euskararen hegoak moztu nahi dituztela zioen, bere hegaldiaren beldur direlako.**


JOXE LACALLE

**Iñaki Lasa, AEK-ko Nafarroako arduraduna, Gaztelu Plazan Korrika abiatu aurretik. Atzean, Xabier Irazusta.**

IRUÑEKO Gaztelu Plaza mukuru betea zegoen. Korrikari hasiera eman baino lehen, Iñaki Lasak, Nafarroako AEK-ko arduradunak, euskararen alde herrialdean zein Iparraldean lan egiten duten hainbat talde gogoratu zituen. 2000. urtearen atarian, oraindik ere, euskara bertako hizkuntza bada ere, «oztopoz beteriko bidean» sartu dutela salatu zuen Lasak.

Lasak aurten Foru Erkidegoan euskarak aurrera egiteko ahaleginean izandako hainbat traba gogoratu zituen: Ermitagañako Jose Maria Iribarren D ereduko haurren egoera; Euskalerria Irratia emititzeko lizentzia baimenik gabe utzi izana hamaika urtez lanean badabil ere, eta euskalduntze-alfabetatze lanean aritzen direnei ere jartzen dizkieten trabak, besteak beste. AEK-ko arduradunaren iduriko, arazook ez dira kasualitatea. Bere ustez, «euskararen hegoak moztu nahi dituzte bere hegaldiaren beldur direlako».

### Ofizialtasuna guztion ahotan

Lasaren aburuz, euskarak bizi duen egoerari aurre egiteko modu bakarra «ofizialtasuna» aldarrikatzea da. «Nafarroako herritar euskaldunok eskubidea dugu gure hizkuntza erabiltzeko, Nafarroako edozein lekutan bizi bagara ere. Nafarroan eta Iparraldean gaztelaniaz eta frantsesez bizitzeko aukera egin dutenek dituzten eskubide berberak nahi ditugu», zioen. Zazpi herrialdeetan hizkuntzaren ofizialtasuna lortuta ere, euskararen normalizazioa oraindik urrun legokeela esan zuen. Halere, aurrera egiteko «beharrezko pausoa» dela uste du Lasak.

Ofizialtasuna lortzeko bi bide aipatu zituen AEK-ko kideak. Batetik, Nafarroan eta Iparraldean erabiltzen diren bi hizkuntzak orekaz eta harmoniaz bizi daitezen oinarria jarriko duen «alternatiba» lortzea, gaur egungo Euskararen Lege murriztatzailea gainditu ahal izateko. Bestetik, Korrikako lehen egunera Gazteluko Plazara joandako bi mila euskaltzale baino gehiagori egin beharreko lana gogoratu zien.

### "Nor zarete zuek?"

Galdera hori egin zieten atzo polizia nazionalek Iruñean Korrikan esku hartzeko irrikiz zebiltzan hainbat laguni. Iruñeko peñetako kideek zein Senideak elkarteko ordezkariek, Korrika 99ko kilometro bana erosia zutenez, Korrika noiz iritsiko zain eman zuten atzo goiza. Poliziek lasterketa alaiari itxura susmagarria hartu zioten, ordea. Horregatik, "nor zarete zuek?" galdetu zieten, eta nortasun agiria eskatu zieten.

### Mikrofonotik solasean, eta arnasestuka

Arrunt bitxia zen atzo goizean Iruñerrian Euskalerria Irratia entzutea. Korrikan lasterka ibiltzea eta mikrofonotik hitz egitea, bi gauza horiek batera egitea, zilegi dela baieztatu zuten. Bitxia zen, hala ere, beraien jarduna une batzuetan, batera nahasten baitziren hitzak eta arnasestuak. Bizitasun handia eman zioten goizari.

### 41 kilometro gurpil aulkian

Indar betez hartu zuen atzo esku Xanti Begiristain euskaltzaleak Korrika 99an. Oinez ibili ezin eta aulki gurpildunean ibili beharrak ez zuen kikildu. 41 kilometroko marka jarri zion bere buruari.

## Josema Leitza • OINARRIAK PLATAFORMAKO KIDEA •

# *«Euskararen gaitz guztien oinarria da ofizialtasun eza»*



JOSEMA LEITZA bertsolari arbizuarrak badu zer kontatu biharko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean. Atzo Korrika 11ren lekukoa eraman zuen lehen kilometroan.

■ **Ofizialtasuna da euskarak behar duena?**

Nafarroan ezinbesteko kontua da euskarak aurrera egingo badu. Nafarroa osoan euskarari aitortu behar zaio bertako hizkuntza dela eta gainerako hizkuntzak bezala arlo guztietan garatzeko aukera duela. Une honetan hori ez da betetzen, eta hori izango litzateke gaurko mezurik garrantzitsuena. Ofizialtasuna lortzea da gure helburu nagusia. Eta egiteko horretan euskaldun guztiok parte hartu behar dugu, aurrera begira alternatibak eskainiz.

■ **Horregatik eskaini zion AEK-k lehen kilometroa Oinarriak-i?**

Eskerrak eman behar dizkiogu AEKri aukera hau emateagatik. Orain gaitz guztien oinarria euskararen ofizialtasun eza da, AEK-k hori inork baino hobeki daki, eta bera izan da ofizialtasunaren aldarrikapenari aukera hau eskaini diona.

## Ibilbidea




| | | |
|---|---|---|
| LAPURDI | Donibane Lohizune | 07:54 |
| | Getari | 08:18 |
| | Bidarte | 08:30 |
| | Arbona | 09:09 |
| | Miarritze | 09:42 |
| | Angelu | 10:21 |
| | Baiona | 11:39 |
| | Hiriburu | 12:24 |
| | Milafranga | 12:57 |
| | Uztaritze | 13:29 |
| | Kanbo | 14:34 |
| | Hazparne | 15:46 |
| N.B | Garruze | 19:14 |
| | Donapaleu | 19:33 |
| Z | Maule | 22:35 |
| N.B | Larzabale | 00:50 |
| | Donibane Garazi | 02:29 |
| | Arnegi | 03:17 |
| NAFARROA | Luzaide | 03:35 |
| | Ibañeta | 05:05 |
| | Auritz | 05:20 |
| | Garralda | 06:15 |
| | Aribe | 06:34 |
| | Garaioa | 06:48 |
| | Abaurregaina | 07:34 |

## Korrika 11 1+1=hamaika




JOXE LACALLE

**Korrika 11ko lehen erreleboa.** Josema Leitza Oinarriak-eko kideak izan zuen atzo Korrika 11ren hasierako lehen kilometroa korritzeko ohorea. Hark eman zion lehen erreleboa Jose Mari Larrañegiri.



JOXE LACALLE

**Eskuz esku lekukoa.** Hauxe izango da Euskal Herriko bazter guztiak igaroko dituen euskararen lekukoa, .




JOXE LACALLE

**Euskalerria Irratiko kideak lasterka.** Euskalerria Irratiko kideek kilometro bat egin zuten lasterka, eskuan Korrikaren lekukoa zutela.



JOXE LACALLE

**Alde Zaharreko langileak.** Iruñeko Alde Zaharreko langileek ere eraman zuten lekukoa kilometro batean.




JOXE LACALLE

**Aita korrika, haurra saltoka.** Meritua izan zuen ere haurra gainean eramateko. Haurra, ordea, gustura, korrika. Aitari burutik heldu, eta hantxe joan zen gustura ibilbidean zehar.



BOB EDME

**Korrika txikia.** Atzo Korrika Iruñean bazen ere, Donibane-Lohizuneko haurrek ez zuten itxaron nahi izan haien herrira heldu arte. Korrika txikian aritu ziren gustura, euskara haiena ere badela aldarrikatuz.

Korrika 11 1+1=hamaika

# Euskarazko irratiari omen

*Korrikak Euskalerria Irratia omenduko du gaur, eta 24 ordu euskaraz irratsaio historikoa emitituko da*

Jone Larrañaga / **Donostia**

**Makina bat ozotopo gainditu eta ahalegin egin behar izan du Euskalerria Irratiak hamar urtez egunero Iruñerriko etxe euskaldunetara iristeko. Hamaika ahalegin horiek eskertzeko omenaldia egingo dio gaur Korrika 11k. Baionan kilometro bat korrituko dute eguerdian irratiko langileek. Gauerako, berriz, orain 23 urte egin *24 orduak euskaraz* irratsaioaren laburpen berezi-berezia prestatu dute. Euskal Herriko 17 irrati euskaldunek aireratuko dute saio hori gaur gauean.**



BOB EDME

**Euskaraz emititzen duten Euskal Herriko irrati guztiek egingo dute bat gaur Korrikak Euskalerria irratiari egingo dion omenaldiarekin.**

HILAREN 27 honetan beteko dira 23 urte Herri Irratiak *24 orduak euskaraz* irratsaio gogoangarri hura egin zuenetik. Urteurren hori kontuan hartuta, Euskalerria Irratiko langileek saio berezi-berezia prestatu dute, hain zuzen ere, Korrika 11k euskarazko irratigintzari omenaldia egiten dion egunean bertan aireratuko dena.

Euskalerria Irratiaren seinaleak Iruñerria eta inguruak hartzen ditu. Saio berezi hori, ordea, Euskal Herri osoan entzun ahal izango da, euskaraz emititzen duten beste 16 irratik ere zabalduko baitute elkarrekin eta aldi berean: Donostia eta Loiola Herri Irratia; Euskadi Irratia; Bizkaia Irratia; Xiberuko Botza; Irulegi Irratia; Arrate Irratia; Segura Irratia; Arrasate Irratia; Bilbo Hiria; Xorroxin Irratia; Irati Irratia; Aralar Irratia; Karrape Irratia; Esan-erran Irratia eta Gure Irratia.

Ilunabarreko 20:00etatik aurrera diala irrati horietako baten frekuentziara mugitzea besterik ez da izango, beraz, 1975eko festa gogoangarri hura gogora ekartzeko. Jaialdi hura asmoa handiago baten zati izan zen. Gauerditik hasita hitzaldiak, mahai-inguruak, kronikak, bertsoak eta beste hamaika ekitaldi eskaini ziren irratiz, harik eta gauean Donostiako Belodromoan egin zen jai handiak aldarrikapen ekitaldi asmo handiko hura burutu zuen arte.

Euskaldunen artean, dudarik ez, indar pizgarri izan zen jai hunkigarri hura, gaur egunean Korrika den bezala. Euskararen aldeko gaurko jai handi honetan orduko haren testigantza bildu nahi izan dute bada.

Donostia eta Loiolako Herri Irratiko artxiboetan altxor baten parean gordeta duten zinta berreskuratu dute, eta han bildutako hitzak, hotsak eta doinuak esnarazi.

Saioa, nolanahi ere, moldatu egin dute. Irratsaioa bi ordutara laburbildu dute, eta orain 23 urteko hitz eta abestiei gaur egungo testigantzak gehitu dizkiete.

Hala bada, eta esate baterako, Joxe Ramon Beloki entzun ahal izango da orain dela 23 urte aurkezpenak egiten, eta orain orduko oroitzapenen berri ematen. Mikel Laboa eta Benito Lertxundik ere ekarriko dituzte gogora Anoetako Belodromoan bizitu zituzten une hunkigarri haiek, baita Gontzal Mendibil, Peio Ospital eta Joxean Artzek ere.

**Juan Lekuona** • HERRI IRRATIKO ZUZENDARIA •

## «Erakutsi genuen euskaraz egin zitekeela irratigintza»



■ **Zer giro zenuten garai hartan? Zergatik erabaki zenuten irratsaio hura egitea?**

Euskararekiko kezka handia zegoen gure artean. Joxe Ramon Beloki orduko zuendariordea jada urtebete lehenagotik ari zen esaten zerbait probokatiboa egin behar zela. Hala erabaki genuen 24 ordu euskaraz emititzea. Helburua zen etorkizuneko euskara hutsezko irratia aldarrikatzea. Bide batez, errepasoa eman genion euskararen alorrean garai hartan egiten zenari:mahai-inguruak izan ziren, hitzaldiak..., eta amaiera ekitaldi gisa: jaia.

■ **Zein zailtasun izan zenituzten?**

Madrildik nahi zuten bakarrik Loiola irratitik zabaltzea. Guk ezetz: Loiola eta Donostiatik emitituko genuela. Jarrera gogorra hartu zuten, eta exijitu ziguten dena zentsuratik pasatzea. Jakina, dena ez genien bidali, grabatutako gauza jakin batzuk baino ez. Jaian bertan Guardia Zibilak inguratu egin zuen belodromoa. Gogoratzen dut Mariano Ferrer haiek baretzen egon zela barrura sar ez zitezen. Barruan jendea bero-bero zegoen; ikurrina atera zen... Larritasun ederrak pasa nituen, baina dena ongi atera zen.

■ **Ekimen berria izan zen, aitzindaria, eta etorkizunari begira prestatua. Zein ikuspegi duzu gaur egunetik?**

Ordura arte euskarak oso leku urria izan zuen irratian, eta guk nahi genuen euskara ate handitik sar zedin lortu. Erakutsi genuen irratigintza euskara hutsez egin zitekeela. Urrats oso zaila zen profesionalki, baina gerora ikusi da posible dela.

# Iruñea-Tutera autobidea doakoa izan dadin eskatu dute hamazazpi udalerrik

*Tafallarainoko tartean bidesaririk ez izatea nahi dute, oso gutxi erabiltzen delako*

Erredakzioa / **Iruñea**

**Iruñea-Tutera autobidea, A-15 hain zuzen, hiriburutik Tafallarainoko bidean doakoa izateko eskatu dute Nafarroako hamazazpi udalerritako ordezkariek. Herriotako zirkulazio handi eta arriskutsua saihestea du helburu eskaera horrek. Era berean, errepide zati premiatsuenetan autobiderako sarrera-irteerak egitea proposatu dute.**


ARTXIBOKOA

**Iruñea eta Tafalla arteko bidea egiten dute eskaria egin duten udalerrietako biztanle gehienek.**

A-15 autobidea irekitzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari hamazazpi udalerritako ordezkariek. Honako herri hauek egin dute eskaera: Añorbe, Barasoian, Beriain, Biurrun-Olkotz, Garinoain, Oloritz, Orisoain, Puiu, Tafalla eta Untzueko udalek; eta Etxague, Mendibil, Oloritz eta Tiebas-Muru Artederretako kontzejuak. A-15 autobideak Iruñea-Tutera bidea egiten du. Aho batez onartu dute udalerriok erabakia, Barasoaingo Udalak proposatu eta gero. Udalerriok N-121 errepideak zeharkatzen ditu, zeinak oso trafiko handia baitu.

Udalerrion irudiko, auto eta kamioi zirkulazioa gero eta handiagoa da errepide horretan, eta, Jose Javier Armendariz Olorizko alkatearen hitzetan, Orbako ibarreko biztanle gehienek Iruñean edo Tafallan lan egiten dute, eta egunero joan-etorria egin behar izaten dute herritik hirira. A-15 autobideari ez zaiola behar bezalako errendimendurik ateratzen azpimarratu dute, eta hoberena Iruñetik Tafallako bidean bidesaririk ez ordaintzea litzatekeela diote.

### Egunero 13.000 ibilgailu

Bidesaririk ez ordaintzeko eskaera egitea ongi hausnartu dute hamazazpi udalerriok. N-121ean askotan oso handia eta arriskutsua da zirkulazioa. Olga Artozki Muru Artederretako eta Arrizabalako Kontzejuko presidentearen hitzetan, egunero 13.000 ibilgailu igarotzen dira bere udalerritik. Ez da kexatu den ordezkari bakarra. Francisco Fernandez Beriaingo alkateak ere errepide horretako kamioi trafikoa «kaotikoa» dela dio, eta herritarrek bizia arriskatzen dutela egunero. Kontuan izan behar da Beriaindik gertu hainbat harrobi ustiaketa daudela eta kamioien joan-etorri etengabea dela.

Barasoainen bildutakoek batzorde bat eratu dute, aurrerantzean egiten dituzten bileretan hartzen diren erabakiak betetzeko.

Erabaki gehiago ere hartu zituzten han bildutakoek. Hala, heldu den udal hauteskundeetan parte hartzen duten alderdiei A-15 autobideko bidesariari buruz duten iritzia eskatzea hitzartu zuten hamazazpi ordezkariek. Ildo beretik, batzordeak Erriberako herriekin ere bilerak egin nahi ditu, guztiok bateraturik Iruñea-Tutera autobideko bidesaria kentzea eskatzeko Gobernuari.

Barasoainen hitzartutako akordioa duela gutxi Tiebas herrian egindakoaren gisakoa da. A-15 autobidea autobia bihurtzeko eskatu dio Tiebasek Nafarroako Herrilan Sailari, horrela inguruan gertatzen diren hainbat istripu eragotzi egingo liratekeelako.

## EAEko autobideak garestiago gaurtik

GAURTIK aurrera garestiago dira Euskal Autonomia Erkidegoko autobideak. Europistasek kudeatzen dituen autobideetako bidesaria % 1,46 garestitu dute. Espainiako Sustapen Ministerioak eman die prezioa igotzeko baimena autobide horietako bidesariak kudeatzeko kontzesioa duten enpresei.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilbo-Behobia (A-8) eta Bilbo-Logroño-Zaragoza (A-68) autobidean izango du eragina prezio igoerak.

Prezio igoera horrren ostean, Bilbo eta Durango arteko bidesaria, adibidez, bost pezeta garestiago izango da gaurtik aurrera. Autobideak ustiatzeko emakida duten enpresek prezioa «berriz ere» Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) baino gutxiago igo dela nabarmendu dute.

Igoeraren iragarpenak bat egin du bidesarien aurka *A-8 Doan Akordio Soziala* elkarteak hasitako ekimenarekin. Talde horretako kideek «intsumisio kanpaina» jarri dute abian bidesaririk ez ordaintzeko; izan ere, bidesaririk ez ordaintzeko deia egin diete euskal herritarrei. Europistasi, A-8 autobidea kudeatzen duen enpresari, emana diote ekimen horren berri *A-8 Doan Akordio Soziala* taldeko kideek. Kanpaina aurrera ateratzeko, txekeak banatu dituzte herritarren artean ekimenaren bultzatzaileek.

# Astiuneak antolatzeko ituna izenpetu dute Baionako Udalak eta CAF kutxak

*CAF famili kutxak diru laguntza bereziak eskainiko ditu ekimen honetarako*

Lutxi Fourcade / **Baiona**

**Haurtzaro kontratua izenpetu ondoren, CAF eta Baionako Udala gazteriari buruzko proiektuaz gogoetatzeko bildu dira. Proiektua onartuz gero, famili kutxak animazio inbertsioen %70 bere gain hartuko du.**



ARTXIBOKOA

**11 eta 16 urte bitarteko haurrentzako kultur ekintzak bultzatzea du helburu hitzarmenak.**

HAURRAK eta gazteak zaintzea da Baionako Udalaren lehentasun bat. Izan ere, Herriko Etxean sartu zenetik, Jean Grenet auzapezak esan zuen gazteen politika garatzeko asmoa zuela, hiriko geroa haien eskuetan zelako.

Ildo honi jarraikiz, Udalak eta Baionako CAF kutxak haurtzaro kontratua izenpetu zuten 1997ko urtarrilaren 16an. Konbenioaren arabera, bi egiturek helburutzat finkatu zuten Baionan haurren harrera hobetzea. Proiektuak laguntzeko, kutxak bere gain hartu zuen inbertsioen %69,5a.

Kontratuaren xedeak bete dira, eta azken proiektua gaur estreinatuko da (Polo Beyris auzoko haurtzaindegi eraberritua). Alabaina, beste xede garrantzitsu bat betetzear dago oraindik: herriko haurtzaindegia. «Proiektua bide onean da, eta kokapena, arkitektoa eta lan taldea hautatu ditugu», azpimarratu zuen Grenetek.

### Teknologia berriak eta musika

Indar berezia egin ondoren haurrentzat, Udalak eta CAF kutxak xantier berri bat abiatuko dute gazteei begira. Bi egiturek bat egin dute astiuneak eta oporrak antolatzeko sei eta hamasei urte arteko haurrentzat. Ekimen berria bultzatzeko, Jean Grenet auzapezak eta Jack Kipfer CAFeko zuzendariak kontratu bat izenpetu zuten atzo Baionan. Lehen kontratuan bezala, CAFek lagundu egingo du, eta bere gain hartuko ditu Udalen inbertsioen %70.

Astiune kontratuaren gogoeta 1998ko udazkenean hasi zela oroitu zuen Jean Grenetek. Lehendabizi, bi egiturek egoeraren balantzea egin zuten. Herriko zerbitzuek eta elkarteek eskainitako animazio guztiak ikertu zituzten, puntu azkarrak eta ahulak zehazteko. «Esaterako, ohartu gara eskas handiak zeudela teknologia berriak lantzeko edo musika jotzeko», azaldu zuen Xavier Lajaunie proiektuaren koordinatzaileak. Ondotik, ardatz nagusiak finkatu zituzten: lehentasuna ezarri 11-16 urte arteko gazteen animazioetan, kirol eta kultur praktikak bultzatzea, ikerketa batzordea sortzea... «Programa batzordeari aurkeztuko diogu, eta ekintzak proposatuko dituzte», gaineratu zuen.

# Estatuaren eta eskualdearen arteko plangintza lantzeko Turismoa eta Itsasertza taldea bildu da Miarritzen

*Konpetentziari aurre egiteko, kalitatearen desafioa altxatzea funtsezkotzat jo zuten atzoko bileran*

Lutxi Fourcade / **Miarritze**

2000-2006 Estatua-Eskualdea plangintza ikertzen ari da, eta gogoeta bultzatzen sailez sail Akitania osoan. Itsasertza eta Turismoa taldea bildu da lau aldiz dagoeneko, eta bosgarren bilera atzo goizean egin zuen Miarritzen. Michel Moyrand Eskualdeko Kontseiluko lehendakariordeak kudeaturik, 50 bat profesional, hautetsi eta kargudun ekonomiko elkarretaratu ziren plangintzaren lehentasunak finkatzeko.

«Itsasertzeko tailerrak bilera bat Miarritzen egitea normala iruditu zitzaigun, zeren Udalak ongi ulertu baitu turismoaren eragin ekonomikoa», esan zuen Moyrandek. Izan ere, kostaldeko turismoa garrantzitsua da eskualdearen ekonomiarentzat. «Akitaniako turisten erdiak kostaldean biltzen dira . Oro har, 25 milioi gau kondatzen dira, eta 7 mila milioi liberaren mozkinak egiten dira urtean», gaineratu zuen. Gainera, turismoak lanpostu ugari sortu ditu: 27.000 urte osoan, eta beste 33.000 sasoian.

Alabaina, udatiarren kopurua mantentzen da, eta konpetentzia gero eta larriagoa da. Arazo horri aurre egiteko, kalitatea izanen dela kostaldeko profesionalen benetako desafioa adierazi zuten bildutako lagunek. «70eko hamarkadan, MIACA ministerioen arteko bilerak proiektu zabal bat bultzatu zuen Akitaniako kostaldea garatzeko.

## Kalitateko ekoizpenaren aldarrikapena eginen du Baionako urdaiazpiko azokak

■ *Laborantza ministroak IGP Geografi Jatorri Izena estreinatuko du*

Lutxi Fourcade / **Baiona**

BAIONAKO urdaiazpikoaren besta iraganen da Baionan apirilaren 1ean, 2an eta 3an. Izan ere, aspaldiko ohiturari jarraikiz, urdaiazpikoaren azoka iraganen da merkatu estaliaren ondoko plazan. Antolatzaileek animazio franko hitzeman dituzte, eta etxeko mozkinaren lehiaketa iraganen da.

Baionako azoka aspaldiko historia da Baionan. Izan ere, urdaiazpikoaren feria antolatzeko baimena Philippe Auguste erregeak eman zuen 1222an. Etxeko urdaiazpikoak saltzeko aukera paregabea zen laborari ugarientzat. Alabaina, azken urteotan, gero eta laborari gutxiagok parte hartu dute azokan, eta ekoizpenaren kalitatea apaldu da. Arrakasta eskasari aurre egiteko, urdaiazpikoaren lehiaketa antolatu dute azokako arduradunek azken bi urteotan

### Jatorri izena

Ohiko azoka antolatzeaz gain, beste hitzordu garrantzitsu bat ere izanen dute urdaiazpikoaren defenditzaileek. Izan ere, Baionako xingarraren IGP edo Geografi Jatorri Izena estreinatuko da hurrengo apirilaren 2an. Label berri horrekin, tokiko ekoizpena babestua izanen da. Ondorioz, Baionako urdaiazpikoa Pirinio Atlantikoetako departamendu osoan eta beste 24 herritan baizik ez da ekoizten ahalko. Glavany Laborantza ministroa izango da ekitaldian, baita Alain Rousset Akitaniako lehendakaria eta François Bayrou departamenduko lehendakaria ere.

# Medel: «Europako espazio judizialak giza eskubideak bermatu behar ditu»

*Europol-en giza eskubideen urraketari aurre egiteko neurriak aztertu ditu*



XOUSE SIMAL

**Medel elkarteko ordezkariak atzo eskaini zuten prentsaurrekoan.**

Gorane Agirre / **Bilbo**

**Etorkizuneko Europako espazio judizial komuna sortu beharra aldarrikatu zuen Medel elkarteak atzo Bilbon egin zuen bileran. Era berean, espazio berri horrek «herritar orok justiziara sarbidea izatea, giza eskubideen defentsa, eta botere judizialaren independentzia» bermatu behar dituela nabarmendu zuen.**

DEMOKRAZIA eta Askatasunaren aldeko Europako Magistratuen Elkartea (Medel) bere urteroko bilera eta *Europol eta giza eskubideak* gaiari buruzko lan jardunaldia egiten ari da egunotan Bilboko Justizia Jauregian.

Medel Europako Kontseiluaren kontsulta organoa da. Elkartea duela hamalu urte sortu zen Estrasburgon, eta Europako hamar herrialde baino gehiagoko epaile eta fiskalen elkarteak biltzen ditu, besteak beste, Fiskalen Batasun Progresista eta Demokraziarako Epaileak. Azken horren Euskal Herriko saila da Bilboko egunotako bileraren koordinatzailea.

Orlando Afonso Medel elkarteko lehendakariak Europako espazio judizial komun bat sortzeko epaile europarren helburua nabarmendu zuen. Espazio judizial horrek, Afonsok azpimarratu zuenez, «herritar orok justizian sarbidea izatea, giza eskubideen defentsa eta botere judizialaren independentzia bermatu behar ditu. Hori ezin da herrialde bakoitzeko botere exekutiboaren esku egon».

Christian Wettinch Medeleko lehendakariordeak, bestalde, Europa demokratiko eta askea lortzeko epaile eta fiskalen borroka nabarmendu zuen. Bere hitzetan, «gehiegizko presentzia ekonomiko eta finantzarioak utzitako hutsunea bete behar da».

Medel elkartearen beste kezka batzuk ere aipatu zituen Afonsok; esate baterako, justizia kriminala, justizia zibila eta lan alorreko justizia. Medeleko buruak nabarmendu zuenez, «lan alorreko justizia oso gai garrantzitsua da, batez ere orain Europan herrialde batetik bestera langile ugari aldatzen delako».

Bestalde, *Europol eta giza eskubideak* jardunaldian parte hartu zuen Nekane San Miguel epaileak. «Kezkagarri eta arriskutsutzat» jo zuen Europako poliziaren jokabidea, eta alde horretatik neurriak hartu beharra nabarmendu zuen.

Era berean, San Miguelek nabarmendu zuenez, «giza eskubideen urraketen egoera arriskutsua mahaigaineratu dugu; hizlarietako batek, esku-hartzaileen adostasunez, Orwellen liburu beldurgarriko *Anai Nagusia*-rekin parekatu du datorkigun egoera hori».

## Balmasedako Erdi Aroko merkatuan milaka lagun izan dira

*Herri horrek zortzi mende bete dituela eta antolatu ekitaldien barruan izan da azoka*

Efe / **Balmaseda**

MILAKA lagun bildu zituen atzo Balmasedan egin zen Erdi Aroko azokak.

Goizeko hamaiketan zabaldu zuten merkatua, eta Erdi Aroko jantziak soinean kalejiran jende asko joan zen.

60 artisau izan ziren haien produktuak erakusten, eta hantxe bertan ere jardun zuten produktuak egiten inguratzen ziren lagunei jarduera erakusteko.

Horrez gain, eltzeak eta zaldi ferrak erakusten zein egur tailak egiten zutenak eta ehungileak ere aritu ziren egun osoan lanean. Lokatz gailuak, larrua, zeramika, eta perfumeak ikusgai eta salgai izan ziren.

Hori guztia ikus zitekeen gunea garaiko oihalez eta gailuz apaindurik ezarri zuten, eta herriko jende asko jantzi zen okasiorako garai hartako jantziez.

Merkatua atzo hasi eta bihar amaituko da. Merkatuak irauten duen hiru egunetan merkatariez gain, hainbat ekitaldi izango dira.

Balmaseda sortu zenetik 800 urte iragan direla eta ari dira ospatzen hainbat ekitaldiren bidez.



**EHUko Ingeniaritza Goi Eskolan 315 graduatu berri** Euskal Herriko Unibertsitateko (EHUko) Ingeniaritza Goi Eskolako azken promozioan graduatutako 315 lagunek beren agiriak jaso zituzten ostegun gauean Bilbon izan zen ekitaldi batean. Graduatu berrietatik 261 Industri Ingeniaritza alorrekoak dira, eta gainontzeko 90ak Telekomunikazio adarrekoak. Ingeniaritza Goi Eskolak egin berri duen inkesta baten arabera, bertako lizentziatu berrien %80k behin betiko kontratu bat lortzen dute lau hilabete igaro baino lehen.

# Fernando Gomez-Acedo

• FAGOR ELECTRODOMESTICOS-EKO ZUZENDARI NAGUSIA •

■■■ MCCko arduradunak harrituta daude *Daewoo auziak* hartu duen neurri politikoarekin. ■■■ Ziurtatu dute eurek ez zutela inolako salaketarik jarri euskal erakundeek Koreako multinazionalari emandako diru laguntzen kontra. ■■■ Fagorrek kontu handiz prestatzen du nazioarteko hazkundea, eta beste enpresekin lankidetzan aritzeko prest dago.

## *«Ez dugu nahi Jaurlaritzaren aurka arma gisa erabil gaitzaten»*



XOUSE SIMAL

FAGOR taldearen emaitzak aurkezteko ekitaldian, kooperatibako zuzendariarekin balantzetik kanpoko kontuez hitz egiteko parada izan dugu.

■ **Zelan hartu zenuten Europako Batasunak *Daewoo auzian* hartutako erabakia?**

Daewooko kontu horretaz, lehenengo eta behin, esan beharra dago guretzat ez dela lehiakide garrantzitsua; bigarrenik, gauza bera izango litzatekeela Gasteizen, Huescan edo Frantzian kokatuta egon: lehia bera da guretzat eta besteentzat; hirugarrenik, esango nuke beti zeharo errespetutsuak izan garela gure erakundeekin. Hori da gure jokaera, eta kontu honetaz gauza bat nahiz beste bat pentsatu, guk ez dugu ezer mugitu, ez dugu salaketarik egin.

■ **Nork egin zuen?**

Europako etxetresna ekoizleen elkarteak, eta haren barruan dagoen Anfec Espainiako elkarteak aurkeztu zuen salaketa. Gu elkarte horien bazkideak gara, baina kasu honetan bazkide pasiboak izan gara. Azkenaldi honetan arazo hau ez da enpresa arazoa izan; arazo politiko bilakatu da, eta Fagorrek ez du nahi inolaz ere arma gisa erabilia izatea, are gutxiago gure gobernuaren kontra. Horregatik, ez dugu txintik ere esan auzi honetaz, eta nik ez dut ulertzen zergatik eskatu duten batzuek gu Legebiltzarrera joateko. Zer esateko? Batzuetan harriturik geratu gara komunikabideetan gutaz esandakoarekin.

**Daewoo**

*«Guretzat ez da lehiakide garrantzitsua, eta gauza bera izango litzateke Daewooren lantegia Gasteizen, Huescan edo Frantzian kokatuta egon»*

■ **Baina zuk zer uste duzu, Daewooren laguntzak legezkoak ala legez kanpokoak izan direla?**

Ez dakit zer esan. Gure gobernua gai da galdera guztiei erantzunak emateko, arazo desatsegin hau konpontzeko, eta gure itxaropena horretan dago. Baina Daewooren laguntzen legezkotasunaz ez dakit zer esan. Bruselak jarrera horretan jarraitzen badu eta Eusko Jaurlaritzak bere erabakien legezkotasuna ezin badu frogatu, guk ezin dugu ezer egin.

■ **Une hauetan Poloniara zabaltzeko asmotan zaudete. Horretaz gainera, beste posibilitaterik pentsatu duzue, Asian edo Europan bertan, nazioartekotzearen bidetik jarraitzeko?**

Nazioartekotzea beharbeharrezkoa da. Hala eta guztiz ere, kontu handiz ibili behar da. Inbertsioak izugarriak dira, eta gauzak ondo ateratzen badira, denok pozik, baina porrot egiten baduzu, arazo izugarriak sortzen dira. Gure helburua salmenten erdiak Espainian eta beste erdiak munduko beste lekuetan egitea da. Une hauetan, %37 bakarrik saltzen dugu atzerrian. Gure nazioarteko presentzia handitu egin behar dugu. Zelan? Hor dago koxka. Gauza bat da presentzia komertziala edukitzea, eta beste bat presentzia industriala. Azken hori arretaz eta kontuz egin behar da. Une hauetan, Polonian aukerak ditugu, nahiz eta ezer erabakirik ez egon. Bere garaian, datu guztiak edukita, gure taldeko Kontseiluak erabakiko du zer egingo dugun.

**Zabaltzea**

*«Une hauetan %37 bakarrik saltzen dugu atzerrian. Gure nazioarteko presentzia handitu egin behar dugu. Zelan? Hor dago koxka»*

■ **Poloniako erosketarekin Fagor atzerriko merkatuaren %50 horretara iritsiko litzateke?**

Ez. Hori baino gehiago beharko genuke, eta helburu horretara heltzeko gutxienez hiru urte beharko ditugu gure presentzia mundu zabalean handitzeko.

■ **Sektoreko beste multinazional handiekin lehiatzeko, kooperatiba izatea zer da: lagungarri ala oztopo?**

Biak. Oztopoak gainditzeko bide nagusia MCC korporazioan egotea da. Gero, bazkideak izatea oso garrantzitsua da, gure kasuan MABE edo Vaillant bezala. Kooperatiba batentzat oso zaila da beste enpresa batekin elkartzea. Baina erraza da bazkide batekin enpresa berri bat sortzea, eta hori hazteko bide bat da. Bestalde, kooperatibak izanik, abantaila izugarriak ditugu.

Gauzak ondo ez dabiltzanean, kooperatiben barruan izugarrizko indarra sortzen da egoera txarrak jasan eta aurrera egiteko. Beste enpresetan, zailtasunen aurrean, errazena murrizketak eta salmentak egitea da. Gure kasuan, horrelako gauzak egiteko borondaterik ez dugu; beti irtenbide berriak asmatzen dira arazoei aurre egiteko.

*Joseba Aiartza*
BILBO




BOB EDME

Inportazioen aurka protesta egiteko, saltoki handi batetik haragia hartu zuten ELBko kideek aurreko astean.

# ELBk behartsuenei emandako okela berreskuratu du Boncogelek

*Enpresako burua axuria sindikatuak esan bezala saltzera engaiatu da*

Hur Gorostiaga / **Baiona**

**Iragan ostiralean ELB sindikatuko artzainek Boncogel saltegian prezio apalean eta izendapen okerrez zegoen tona eta erdi ardiki Bihotz Oneko Ostatuetara eraman ondoren, enpresako burua bertara joan eta haragia berreskuratu du, ELBk galdegindako arauak beteko dituela hitz emanik.**

«LAPURRETA» gertatu eta berehala salaketa ezarri zuen joan den ostiralean Boncogel saltegiko nagusiak. Zeelanda Berritik ekarritako ardi helduen haragia prezio apalean eta axuri gisa saltzeagatik, Euskal Herriko Laborarien Batasuneko (ELB) 50 laborarik Baionako saltegiko hozkailuak hustu zituzten. Orotara, tona eta erdi ardiki hartu zuten.

Haragia behartsuendako neguan janaria urririk ematen duen Angeluko Bihotz Oneko Ostatuari eman zioten.

Aste honetan, aldiz, Boncogeleko zuzendaria ostatura joan eta auzitegietako salaketa dela medio haragi guztia berreskuratu du. Hala ere, ELBko ordezkariekin biltzeko xedea agertu eta ardi haragia axuri gisa ez saltzeko engaiamendua hartu du zuzendariak, Jean Paul Duhalde ELBko kideak azaldu duenez. «Heldu den aldian, haragia hartuz gero, ez berriz berreskuratzeko gisan eginen dugu», eman du abisu Duhaldek, eskualdeko saltegietan molde berean jokatuko luketenei abisu emanez.

Izan ere, aurten axuriaren prezioak %25 egin du behera. Axuriaren prezioa apaltzea salatzeaz gain, axuria ez den haragia kanpotik ekarria hala bailitzan saltzea salatu du ELBk. Bertako axuria promozionatzeko asmoz, kanpaina bat egiten ari da laborarien sindikatua, bazkari herrikoiak antolatuz. Heldu dena igande honetan eginen dute, Larzabalen.

# Nekazaritza enpleguak bermatzea eta handitzea da UAGAren helburua

Erredakzioa / **Gasteiz**

NEKAZARITZA alorreko enpleguei eutsi, eta, ahal dela, enplegu kopurua handitzea da UAGA Arabako baserritarren sindikatuaren jardueraren helburua. Atzo Gasteizen sindikatuko kideak bildu ziren urteroko biltzar nagusian, eta elkartearen konpromisoaren xede hori berretsi zuten.

Europako Batasuneko ordezkariek azken hilabeteotan proposatu duten nekazaritza plangintza berria ez da egokia, UAGAkoek uste dutenez, besteak beste «prezioak murrizten dituelako eta ez dituelako laguntzak mailakatzen».

Europako agintarien egitasmoez gainera, aurten Munduko Merkataritza Erakundeak hainbat erreforma proposatuko ditu, eta nazioarteko komertzioaren liberalizazioa bultzatuko dute. Horri erantzuteko, UAGA mobilizazioak bultzatzeko prest dago, gizarteari euren eskaerak helarazteko. «Lehen sektorearen balio estrategikoa onartu beharko du azkenean gizarteak», adierazi zuten UAGAkoek.

## laburrean

**■ ELF Aquitaine energia konpainiak lan taldea %20 murriztuko du bi urteko epean**

ELF erregai konpainiak bere lan taldea murriztu egingo du datozen bi urteetan. Zehazki bi mila lanpostu desagertaraziko ditu Frantziako konpainia horrek epe horretan. Hori egitearen arrazoia datozen bost urteetarako aurreikusitako plana betetzea da. Egitasmoaren helburu nagusia irabaziak bikoiztea da, Philippe Jaffre ELFko presidenteak argitu duenez. «Badira inolako erabilpenik gabeko lanpostuak, eta oso balio eskaseko lanpostuak», argitu du Jaffrek. Bi mila lanpostu kenduta, ELFren lan taldea %20 murriztuko dute. Petrolio prezioaren jaitsieraren eraginez, ELF Aquitaineko kontuak ez dira enpresako jabeek espero bezain onak izan azken urteetan. Hala ere, iaz 540 milioi euroko irabaziak jaso zituen ELFk.

**■ Apirilerako prest edukiko du Lan Sailak kooperatiben legearen erreformarako proposamena**

APIRILERAKO prest edukiko du Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak kooperatiben lege berria. Arau berriak egungoa indargabetuko du. Kooperatibak sortzeko araudian hainbat aldaketa sartuko ditu Gasteizko gobernuak. Batetik, gutxieneko kide kopurua bostetik hirura jaitsiko da, eta, bestetik, gutxieneko kapital soziala milioi bat pezetatik milio erdira jaitsiko da. Kied kooperatibista eta kooperatibista ez diren langileen arteko proportzioa ere egokitu egingo du Gasteizko gobernuak. Aldaketa horiek direla medio, Eusko Jaurlaritzak kooperatiben sorrera erraztu nahi du. EAEko Lan Elkartuko Enpresen Elkartearen aldarrikapen nagusietako bat horixe izan da, kooperatibak sortzeko araudia malgutzea, alegia.

**■ Ramodin enpresaren toki aldaketari buruzko erabakia hilaren 30ean zabalduko du Europako Batzordeak**

ARABAKO Foru Aldundiak ematen dituen zerga abantailak erakarrita, Logroñoko lantegia kendu eta Biasterin lantegi berria jarri zuen Ramodin enpresak duela bi urte. Arabako laguntzek lehia desleiala sustatzen zutela eta Errioxako gobernuak kexua jarri zuen euskal erakundeen aurka Bruselan, Europako Batzordean. Bruselak hilaren 30ean zabalduko du kasu horren gainean hartu duen erabakia, eta, Karel Van Miert Lehiarako jarduneko komisarioak azpimarratu duenez, Batzordearen krisiak ez du aldez aurretik ezarritako lan egutegia aldatuko. Ramodin enpresaren erabakiaren aurkako kexuak ez du pisu juridikorik, Errioxako agintariek ez zutelako salaketa jarri, kexua baizik.

**■ Enplegu planean gizarte talde kaltetuenean sartzeko eskatu diote autonomoek Espainiako Gobernuari**

KANPOKO arrazoiengatik behartutako negozioak itxi behar izan dituzten autonomoak «gizarte talde kaltetuenen» multzoan sartzeko eskatu dio Espainiako autonomoen elkarte OPAk Madrilgo gobernuari. Eskaera hori Bruselara ere helarazi du OPAk, Madrilgo gobernuak enplegu planak Europako Batasunaren onespena behar duelako. Denbora luzez enplegurik gabe egon diren langabeak, emakumeak eta prestakuntzarik gabeko gazteak daude orain gizarte talde kaltetuenen multzoan, eta horiek kontratatzeko abantaila bereziak izaten dituzte enpresariek. 30-45 urte bitarteko autonomoak ere multzo horretan sartzea nahi du OPAk.

**■ Nazioarteko Moneta Fondoak agindutako doiketa fiskala onartu du Brasilgo Kongresuak**

NAZIOARTEKO MONETA FONDOAK (NMF) aurrekontuetan eta zerga politikan hainbat erreforma egiteko agindu zion Brasilgo gobernuari. Herri horretako Kongresuak hori egiteko arauei argi berdea eman zien atzo. Batetik, etxeen gaineko zerga %0,2tik %3,8ra igotzea onartu dute legebitzarreko ordezkari brasildarrek, eta igoera hori ekainaren amaiera aldera sartuko da indarrean. Kapitalen mugimenduaren gaineko tasa hori zen NMFk agindu eta Brasilgo gobernuak oraindik onartzeko zeukan neurri bakarra. NMFk 41.500 milioi dolarreko laguntza berezia eman dio Brasili, udaran jasan zuen finantza krisiaren ondorioak konpondu ahal izateko. Baina, laguntza hori jasotzeko, aurrekontuak murriztu eta zerga ereduan sakoneko aldaketak sartu behar izan ditu Brasilgo gobernuak.

**Kosovo** Bake negoziazioak Parisen

NATOKO HERRIALDEEK EZ DUTE OSO ARGI BONBARDAKETEKIN MILOSEVICEN JARRERA ALDATUKO DUTEN ALA EZ

# Aire-erasoen mehatxupean dago Serbia, Parisko negoziazioen bukaeraren ostean

- Jugoslaviako Milosevic presidenteak datorren astea arte denbora du bake ituna onartzen duenentz erantzuteko
- NATOk, printzipioz, ez luke erasorik egingo Primakovek Washingtonera egin beharreko bilera amaitu arte
- Kosovoren Askapenerako Armada (UCK) kontrolpean nahi dute Estatu Batuek, eta horregatik gonbidatu ditu Washingtonera

Iker Aranburu / **Paris**
*berriemaile berezia*

PARISKO negoziazioak eta horrekin batera Rambouilleten hasitako prozesua atzo goizean eten zen, bi aldeen akordiorik gabe. Albaniarrek ez bezala akordioa sinatzeari muzin egiten dioten serbiarrei egun batzuetako epea emango zitzaiela uste bazen ere, konferentzia antolatu duten Frantziak eta Erresuma Batuak erabaki zuten bertan behera uztea, serbiarrek beren ezezkoari eusten ziotela ikusita.

«Ez dago arrazoirik eztabaidekin jarraitzeko. Eztabaidak ez dira berriro hasiko, baldin eta serbiarrek ez badute esaten akordioekin bat egiten dutela», adierazi zuten Robin Cook Atzerri ministro britainiarrak eta Hubert Vedrinek frantziarrak. Adierazpen horrekin, nolanahi ere, atea irekita utzi zioten Slobodan Milosevic Jugoslaviako (Serbia eta Montenegro) presidente federalak azken orduan jarrera aldatzeari.

Kosovori buruzko konferentziaren porrotaren «erantzukizun osoa» Milosevici leporatu zioten Jacques Chirac Frantziako presidenteak eta Gerhard Schroeder Alemaniako kantzilerrak. Izan ere, ostegun arratsaldean Kosovoko albaniarren ordezkariek (biztanleen %90) izenpetu egin zuten eskaintzen zitzaien autonomia zabala. Albaniarren helburua zen independentzia lortzea, baina, lehen epe batean eskuratzerik ez zutela ikusita, amore eman behar izan zuten amaieran. Milan Milutinovic Serbiako presidenteak garrantzia kendu nahi izan zion albaniarren sinadurari, «ezertarako balio ez» zuela esatean. Adierazpen horiek egin zituen Parisen, negoziazioen etenaren berri jakin aurretik. Ondoren, «komentariorik ez» batekin agurtu zituen kazetariak, eta Belgradera itzuli zen.



Serbiako Milan Milutinovic presidentea, Parisko bake negoziaketen egoitzatik alde egin zuen unean.

REMY DE LA MAUVINIERE / AP

### NATOren esku

Konferentziaren porrotaren berri eman zioten Vedrinek eta Cookek NATOko idazkari nagusi Javier Solanari. Rambouilleten bildu aurretik ere, NATOko herrialdeek Solanaren esku utzi zuten aire erasoak egiteko erabakia. Litekeena da, ordea, halakorik ez gertatzea oraindik. Lehenik, Mendebaldeko herrialdeek beren enbaxadetako jendea atera behar dute, eta OSCEko begiraleek alde egin behar dute Kosovotik. Gainera, datorren astean EEBBetara bisita egingo du Jevgeni Primakov Errusiako lehen ministroak, eta berau bukatu arte ez da erasorako agindurik emango.

Iturri diplomatikoek ziurtatu dute NATOk ez duela oso ziur bonbardatuko duen ala ez. Errusiarrak aurka dira, europarrek auzitan jartzen dute erasoen eraginkortasuna eta estatu batuarrak zalantzan hasi dira. Nolanahi ere, serbiarrek ofentsiba hasten badute albaniarren aurka berehala erabakia hartu beharko du Aliantzak.

NATOko Bruselako egoitzan izan ziren atzo Frantzian negoziatu duten albaniarrak. Batzuk, UCKkoak, Estatu Batuetara joango dira gaur. Izan ere, UCK «talde terrorista» zen iaz arte Washingtonen ustez, eta, orain, gehiegi fio ez denez, kontrolpean eduki nahi du.

## OSCEko bitartekariek alde egingo dute Kosovotik

IGANDEA bitartean, azken hilabeteetan Kosovon izan diren Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundeko bitartekariek (OSCE) lurraldea utziko dute. Erabakiaren berri atzo eman zuen Knut Vollebaek, Norvegiako Atzerri ministro eta OSCEko jarduneko presidenteak. Vollebaekek esan zuenez, Parisko konferentziaren porrotaren ondoren egoera ez da segurua Kosovon zeuden 1.400 begiraleentzat.

OSCEk eta mendebaldeko potentziak beldur dira Serbiako Poliziak eta Jugoslaviako Armadak eragozpenak jarriko dizkietela begiraleei alde egiterakoan. Zivadin Jovanovic Jugoslaviako Atzerri ministroak, ordea, telefonoz ziurtatu dio Vollebaeki arazorik gabe atera ahal izango direla. «Promesak sinetsi nahi ditut», erantzun zion OSCEko lehendakariak.

Begiraleek hegoaldeko bidea hartuko dute, eta Skopjera (Mazedonia) joko dute. Gehienak etxera itzuliko dira ondoren, baina batzuk Mazedonian bertan geratuko dira.

Urriaren amaieran heldu ziren OSCEko lehen begiraleak Kosovora, egun batzuk lehenago Slobodan Milosevic Jugoslaviako presidenteak eta Richard Holbrooke EEBBetako ordezkari bereziak akordio bat lortu ondoren. Begiraleek zaindu behar zuten hilabete horretan hitzartutako su-etena, bi aldeek errespetatu zutena. Lehen bi hiletan ez zen hausterik gertatu, baina Egubérri bezperan gatazka gordina lehertu zen. Begiraleen eginahalak alferrikakoak izan dira, bi aldeek hautsi dutelako su-etena.

# Blair, Ahern eta Clintonek aurrera egiteko adorea eskatu diete ipar irlandarrei

*Rosemary Nelsonen hilketaren ondorioz sortutako istiluak errepikatu ziren atzo Portadownen*

Agentziak / **Londres**

**Erresuma Batuko eta Irlandako lehen ministroek –Tony Blair eta Bertie Ahern– eta Bill Clinton presidente estatu batuarrak agiri bat kaleratu dute elkarrekin, ipar irlandarrei bake negoziazioetan aurrera egiteko adorea eskatuz. Hiru agintariek «oso urrun heldu gara atzera egiteko» esan dute. Agiriak agiri, giro liskartsua berriro errepikatu zen ostegun goizaldean Portadownen.**



PAUL FAITH / AP

Ostegun gau eta goizaldean Portadown hirian gertatutako istilu larrien irudia.

AGIRIA irlandarren jaieguna ospatu ostean —San Patrizio—eman zuten jakitera Erresuma Batuko, Irlandako eta EEBBetako agintariek. Udazkenaz geroztik aurrerapenik apenas izan duen bake prozesuaren blokeoa gainditzeko deia egiten dute, desarmeak eragindako geldiunea «adorearekin» gainditzeko eskatuz. Hiru agintariek euren ardura azaltzen dute egungo egoeragatik. Elkarrekin kaleratutako agiria «Erresuma Batuak, Irlandak eta EEBBek Ipar Irlandako gatazka konpontzeko dugun desioaren isla da», sinatzaileen arabera.

«Aurrerapen garrantzitsuegiak lortu ditugu, bat-batean atzera egiten hasteko. Ostiral Santua heldu bitartean guztiok dugun zeregina bete behar dugu» dio agiriak. Ostiral Santuan –apirilak 2– amaitzen da Erresuma Batuko Gobernuak desarmeaen aferan akordioa lortzeko emandako azken epea. Desarme hori noiz hasi behar den, ostera, ez da zehazten akordioan.

Blair, Ahern eta Clintonek sinatu agirian lorpen aipagarriak lortu direla azpimarratu zuten, zigor osoa bete ez duten presoen askapena kasu. «Oraindik, hala ere, egiteko handia dugu», dio agiriak. Esaterako, «Omagheko sarraskia edo aste honetako bi hilketak eta horiek ondoren eragindako istiluak».

Irlandako lehen ministro Bertie Ahernek agirian esandakoa baieztatu zuen Irlandako Irratian egin adierazpenetan: «Desarmerako baldintzak jakinak dira; bada garaia aurrerapausoren bat lortzeko».

Ipar Irlandako lehen ministro David Trinblerentzat, nahitaezkoa da IRAk armak uztea Sinn Fein Ipar Irlandako Gobernuan egoteko, nahiz eta talde paramilitar loialistek oraindik armak dituztela agerian geratu asteon.

### Blair, elkarrizketetan parte hartzeko prest

Tony Blair lehen ministro britainiarra prest agertu da bake prozesua berpiztuko luketen elkarrizketetan parte hartzeko. Downing Street egoitzako bozeramaile batek «ahal dena, onura ekarriko duen behar adina egiteko prest da», adierazi zuen.

Elkarrizketa giroa, hala ere, nahikoa urrun dagoela azpimarra daiteke Rosemary Nelson abokatuaren eta Frankie Curry buruzagi paramilitar ohiaren hilketen ostean. Herenegun egin zen abokatuaren hileta elizkizuna Ipar Irlandako Lurgam herrian. Hileta elizkizunak amaitzean azken egunetan Portadown hiria astindu duten istilu larriak errepikatu ziren ostegun gau eta goizaldea arte Orangeko Ordenaren jarraitzaileen eta manifestari nazionalisten artean. Hainbat auto erre ziren protestaldietan. Poliziak liskarrei amaiera ematеko egin ahaleginak oro alferrikakoak izan ziren.

# Gutxienez 53 hildako Ipar Osetian atentatu batean

*Boris Jeltsin Errusiako presidenteak barne ministroa bidali du leherketa gunera ikerketa zuzentzera*

Agentziak / **Mosku**

LEHERGAI indartsu batek eztanda egin zuen atzo Ipar Osetiako Vladikavkaz hiriburuan. Atentatua goizez egin zuten, azokan, jendez gainezka zegoenean. Hildakoen zenbaketa ofiziala amaitu ez badute ere, gutxienez 53 pertsona hil direla eta ehun baino gehiago zauritu direla esan dute agintariek. Ekintza jazo bezain agudo, Boris Ieltsinek bere barne ministroa bidali zuen Ipar Osetia errepublikara ikerketa zuzentzera.

Hilaren 31n Eurokopara sailkatzeko futbol partidua jokatzekoak ziren Errusia eta Andorrako selekzioak, baina egun dagoen egoera liskartsua dela eta, Errusiako Federazioa beste hiriren batean jokatzea aztertzen ari da.

Errepublika txiki hau Kaukason dago. Liskar gehienak Inguxetia ondoko errepublikarekin ditu, muga eta lurraldetasun arazoengatik.



AP

Ipar Osetiako sarraskiaren telebista irudia.

## Segurtasun neurri bereziak Turkian kurduen biharko Aberri Eguna dela eta

*Kurdistango Diyarbakir hiriburura sartzen diren pertsonek kontrol zorrotzak igaro behar dituzte*

Agentziak / **Ankara**

KURDUEK *Newroz* ospatuko dute bihar, eta Turkiako Gobernua eraso bortitzen beldur da. *Newroz* kurduen Aberri Eguna da, eta aurten berezia izango da Abdullah Ocalanen bahiketa eta espetxeratzearen ostean. Kurdistango Langileen Alderdiak (PKK) atzo plazaratutako agiriak dioenez, Abdullah Ocalanen askatzea aldarrikatzeko eguna izango da biharkoa: «Gure borrokak eta erristentziak jarraituko dute, Apo –Ocallanen ezizena– aske ikusi arte, herri kurduaren ordezkari legitimo gisa ezagutu arte, eta kurduen arazoa konpondu arte».

Giro hori dela eta, Ankarako Gobernua Turkiako Kurdistanen segurtasun neurri bereziak ezartzea erabaki du. Diyarbakir hiriburuan *Newroz* ospatzea debekatu du, eta Poliziak kontrol zorrotzak ezarri ditu hiriburuko sarrera guztietan. Aurreko astean atentatuak izan ziren Istanbulgo hainbat auzotan, eta Armadak segurtasun neurriak areagotu ditu.

### *Newroz,* kurduen borrokaren ikur

Kurduen Aberri Eguna aspaldiko ohitura da, eta betidanik ospatu ohi badute ere, 90eko hamarkadaren hasieran oso liskar odoltsuak jazo ziren. 1992an 60 kurdu hil ziren Turkiako Poliziarekin izandako enfrentamenduetan, eta 1995 arte Ankarak debekatu egin zuen ospakizun hori. Orduz geroztik, kurduen borrokaren ikur bihurtu da eguna. Ondoren, 1996an, berriz baimena lortu zuen Aberri Egunak, baina aurtengo egoera «kritikotzat» jo du Turkiako Gobernuak. Ondorioz, Barne ministro turkiarrak polizien librantza guztiak bertan behera utzi ditu, eta denak kontrol lanetan jarri ditu.

# 'Dumas kasua' berriz ireki dute

*Deviers-Joncourrek egindako akusazio berrien ondorioz hartu du erabakia Parisko Fiskaltzak*

Allande Sokarros / **Baiona**

***Dumas aferak*** **beste bultzada bat hartu zuen atzo, Parisko Fiskaltzak sumarioa berriro irekitzeko agindu baitzuen. Christine Deviers-Joncour andereak akusazio berriak eta zehatzak egin ditu Frantziako Atzerri ministro ohiaren aurka Joly eta Vichnievsky epaileen aurrean —zeinak *Elf auzia* ikertzen ari baitira—, eta horregatik hartu da erabaki hori. Roland Dumasen etorkizun politikoa nahiko goibel ageri da, eta gero eta presio handiagoak dira Kontseilu Konstituzionaleko presidentzia utz dezan.**


Remy de la Mauviniere / Ap
**Roland Dumas ministro ohia eta Eva Joly epailea, auto batean sartzen.**

«ESPERO dut justiziak bere lana azkar egingo duela; ez diot beldurrik, eta nahikari bat besterik ez daukat: hau da, egia agerian jar dadin». Hala adierazi zuen atzo Roland Dumas Kontseilu Konstituzionaleko presidenteak, Europe 1 irratian. Christine Deviers-Joncour andereak Eva Joly eta Laurence Vichnievsky instrukzio-epaileei asteazkenean egindako deklarazio harrigarriak nahi izan zituen, halaber, gezurtatu 1990a eta 1993a bitartean Frantziako Atzerri ministro izandakoak, eta «jukutria edo mitomaniatzat» jo zituen. Alabaina, Roland Dumasen maitalea izandakoak bere kabuz egin zituen adierazpen horiek dute Parisko Fiskaltza *Dumas auziko* sumarioa berriro irekitzera bultzatu. Ezen auzibide hori iragan otsailaren 12an amaitutzat jo zuten Joly eta Vichnievsky epaileek, eta Kontseilu Konstituzionaleko presidentea «gizarte ondasunen legez kanpo erabileran laguntzaile eta gordetzaile» izateagatik epaitzekotan egon zen.

Iragan asteazkenean, Deviers-Joncour andereak egindako testigantza gogor eta zehatzaren arabera, Atzerri ministro ohiak jakinaren gainean onartu zuen Elf petrolio sozietateak, Deviers-Joncourren bitartez, emandako dirua, eragintza lan bat egitearen truke. Hala, Deviers-Joncourrek epaileei ziurtatu dienez, Roland Dumasek zuen Loik Le Floch-Prigent izendarazi Elf sozietateko zuzendari nagusi, eta, sustengu horren ordain, petrolio sozietateak diru asko eman zion ezkutuan: 14 milioi libera, Deviers-Joncourren arabera betiere.

### «Elfen dirua zuritzen lagundu ninduen»

Akusazio are larriagorik ere egin zuen Deviers-Joncour andereak, hala nola Roland Dumasek laguntza eman ziola Elfetik jasotako dirua garbitzeko, bere adiskideetarik zuen banku zuzendari baten bitartez. Dumasen diru goseaz adibiderik ere eman bide die epaileei Deviers-Joncourrek, hala nola ministro ohiak Hotel de Beauvais luxuzko hotel historikoa erosi nahi izan zuela Elfen diruarekin.

### Frantziarrek Dumasen dimisioa nahi dute

1998ko apirilaren 29az geroztik auzipetua egon arren, Roland Dumasek ez du behin ere Kontseilu Konstituzionaleko presidentzia uzteko asmorik azaldu. Jarrera horri eutsi zion atzo ere Christine-Devier-Joncourrek egindako salaketa berrien biharamunean. Alta bada, *Le Parisien-Aujourd'hui* egunkariak atzo argitara eman zuen CSA inkestaren arabera, frantziarren % 58k nahi dute dimisioa eman dezan. Horrez gain, badirudi mundu politikoak, Chirac Errepublikako presidentetik hasi, orain arte Dumasi azaldu dion elkartasuna desegiten hasia dela.

# Schroederrek dioenez, EBko krisia azkar konponduko da

■ *Alemaniako kantzilerra Chiracekin bildu da Santerren ordezko hautagaiez mintzatzeko*

Agentziak / **Brusela**

DATORREN asteazkenean eta ostegunean Europako Batasuneko buruzagiak Berlinen bilduko dira, Europako Batzordearen dimisioak eragindako krisiari irtenbidea emateko. Azken egunotan EBko liderrekin bildu ostean, Alemaniako kantzilerrak atzo esan zuen krisiari «konponketa azkarra» eman nahi diotela buruzagi denek. «Berlingo gailurra arrakastatsua izango da», adierazi zuen Schroederrek, baina ez zuen aipatu nahi izan Europako Batzordeko buruaren inguruan akordiorik lortu duten. Ziurtatu zuenez, EBko buruzagiekin hitz egindakoaz ez da ezer filtratuko, hautagaiei «kalterik ez egiteko». «Arrakasta lortu nahi bada, isilik egoten ikasi behar da», esan zuen. Jacques Chirac ere Schroederren iritzi berekoa da.

Atzo Parisen azaldu zuenez, Frantziak eta Alemaniak hautagaien inguruan ideia bertsuak dituzte, baina gaineratu zuen EBko batzordeburua Hamabostek aukeratuko dutela, «ez Frantziak, ez Alemaniak». Chiracek ez zuen gehiago zehaztu nahi izan.

Italiako Gobernua, ordea, bestela jokatzen ari da eta, atzo bertan, Romano Prodi lehen ministro italiarra proposatu zuen ofizialki. Lehen Toni Blairrek egin bezala, atzo Jacques Santer dimititu berriak ere Prodiren alde egin zuen. Prodiren lehiakidea Javier Solana izan liteke.

Bestalde, Berlingo gailurrean, «datozen zazpi urteetarako arkitektura finantzarioa» erabakiko da, Schroederren arabera.

## laburrean

N A T O

### ■ NATOk bilera garrantzitsua egingo du Washingtonen hurrengo hilabetean

NATO-K bilera garrantzitsua egingo du hurren hilabetean, Washington hirian (EEBB), «NATO Europako defentsako erreferentzia delako», Gai Politikoetarako eledun Klaus-Peter Klaiber-ek esan duenez. Polonia, Txekiar Errepublika eta Hungariaren elkartzea goraipatu zuen Klaiberrek, «NATO herri guztientzat zabalik dagoela erakusten baitu».

T X E K I A

### ■ Txekiako Gobernuak holokaustoko artxiboak zabalik daudela baieztatu du

TXEKIAR Errepublikako Gobernuak juduen holokaustoko artxiboak zabalik daudela baieztatu zuen atzo. Txekian da Lawrence Eagleburger, II. Mundu Gerran desagertu juduen asegurua ordaintzeaz axolatzen den arduraduna. Eageburgerrek eskertu egin zuen Gobernuaren adierazpena. Artxibo horiek itxita zeudela salatu zuen berriki Israelgo lehen ministroaren aholkulari Bobby Brownek, eta polemika handia sortu.

A U S T R I A

### ■ Aire eremutik igarotzea debekatu diote barra erradioaktiboak daramatzan hegazkin bati

ALEMANIATIK Esloveniako Krsko zentral nuklearrera zihoan hegazkin bati Austriako aire eremutik igarotzea debekatu dio hango gobernuak, arriskutsuak izan daitezkeen barra erradiaktiboak garraiatzen ari delako.

ERROMESEK HIRU EGUN EGIN DITUZTE MUGAN, ETA AZKENEAN BISATURIK GABE SARTU DIRA

# Saudi Arabiak ordainduko du 18.000 irakiarren erromesaldia

- Islamaren aginduari jarraituz, milioika musulmanek Mekarako erromesaldia hasi dute
- Saudi Arabiara sartzeko erromes bakoitzak 100 dolar ordaindu behar ditu
- Irakeko erromesek, bahimenduaren ondorioz, ezin dute dirutza hori ordaindu



KARIM SAHIB / EPA

**Milaka erromes, autobusetan, Saudi Arabiara sartzen Mekara joateko.**

Erredakzioa / **Donostia**

IRAKEKO 18.000 inguru erromesek Saudi Arabiako muga zeharkatu zuten atzo, Mekako meskitara bidean, *hatx*-aren esanak betetzeko. Erromesak 400 autobus eta kamioitan sartu ziren Ararko mugatik barrena, hor mugitu gabe hiru egun egon eta gero. Irakeko Mohsen Farhud ofizialak gidatuta, erromesek Saudi Arabiako mugazainen bi postu igaro zituzten, geratu gabe.

Saudi Arabiako Fahd erregeak agindu zien mugazainei erromes irakiarrei sartzen uzteko. Gainera, irakiarren erromesaldiaren gastua Saudi Arabiak ordaintzeko agindua ere eman zuen erregeak, Naief Bin Abdel Aziz Barne ministroak adierazi zuenez.

Joan den asteazkenetik milaka erromes irakiar bildu ziren Saudi Arabiako Ararko mugan ezarritako behin-behineko kanpalekuan. Irakiarrek Mekara sartu nahi zuten dirurik ordaindu gabe, baina Saudi Arabiako agintariek 100 dolarreko dirutza ordaintzera behartzen dituzte erromes guztiak (15.500 pezeta, 620 libera). Hala ere, Saudi Arabiak, normalean, ez die musulmanei ukatzen Mekara joatea Islamaren aginduetako bat betetzera.

Kontua da Iraken egoera ekonomikoa oso kaskarra dela Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1991n ezarri zion bahimenduagatik. Irakeko Gobernuak izoztuta dituen fondoetatik 44 milioi dolarreko dirutza eskatu zien Nazio Batuei, erromesen bidaia finantziatzeko. Nazio Batuek, ordea, ukatu egin zioten eskaera, eta beste proposamen bat egin: Bagdad ez den norbaitek hornitu eta banatzeko dirua, agian, Gurutze Gorriak.

Diru arazo horrengatik urtero Irakeko 3.000 edo 4.000 inguru erromesek zeharkatzen dute Saudi Arabiako muga, nahiz eta Irakek 23.000 erromes bidaltzeko baimena duen.

Irakeko erromesak diru eta jakirik gabe egon dira hiru egunez Ararren. Horregatik, Irakeko Gobernuak kamioiak igorri zituen hara, jakiekin eta premiazko beharrekin.

### Zer da 'Hatx'?

Musulmanen erromesaldia da. Otoitzak eta pasioak uztartzen dituen jaia da. Islamaren oinarrizko aginduetako bat da musulmanek gutxienez bizitzan behin Mekara edo Medinara, Islamaren bi meskita nagusienetara, joan behar dutela. Aurten hilaren 26a da *hatx*-aren egun handia, bi gune musulmanek Mekan bat egingo duten eguna.

### Saudi Arabiaren ardura erromesekin

Milioika musulmanek urtero Mekara egiten duten ibilaldia oso garrantzitsua da Saudi Arabiarentzat. Agintariek neurri bereziak hartzen dituzte musulmanentzako sakratuak diren guneak zaintzeko. Izan ere, azken urteetan ezbehar ugari gertatu dira, hildako dezenterekin: 1987an 400 erromes inguru hil ziren segurtasun indar sauriar eta iraniarren arteko borroketan, 1997an 343 hil ziren sute batean, eta iaz 119 erromesen ihesaldi batean.

## Irakeko hegazkinek bahimendua hautsi?

SAUDI ARABIAKO agintariek aske utzi zituzten atzo Jeda aireportuan erretenituta zituzten hegazkin irakiar bateko tripulazioko langileak. Hegazkinak herenegun lur hartu zuen aireportuan, Irakeko 124 erromesekin.

Iraketik Saudi Arabiara erromesak zekartzan hirugarren hegazkina zen, eta atzo bertan zen Bagdadera itzultzekoa.

Irakeko hegazkinek Saudi Arabiara erromesak ekartzeko egindako hegaldiek bahimendua hautsi ote duten edo ez eztabaida sortu da. Agintari saudiarren arabera, hegazkinek bahimendua urratu zuten, eta Nazio Batuei galdegin zioten zer egin. Nazio Batuetako Zigor Batzordeko kideak, ordea, ez ziren bat etorri hegazkinek bahimendua bortxatu zuten edo ez zehazterakoan, eta Saudi Arabiarengain utzi zuen auzia.

## laburrean

IRAK

### Hegazkin estatu batuar eta britainiarrek jomuga irakiarrei eraso diete hegoaldean

HEGOALDEAN dagoen debekatutako aire eremuan Irakeko bi jomugari eraso zieten atzo EEBBetako eta Erresuma Batuko hegazkinek, bozeramaile militar batek atzo jakinarazi zuenez. «Debekatutako aire eremuan irakiarrek egindako probokazioei erantzun diegu eraso eginez». Irakek debekatutako bi eremu ditu: iparraldean 36. paraleloan, eta hegoaldean 33.ean, eta EEBBetako eta Erresuma Batuko hegazkinek eremu horiek zeharkatzen dituzte.

EEBB

### Ku Klux Klaneko buruzagi ohia Kongresuan esertzeko hautagaia da

DAVID DUKE Ku Klux Klan erakunde arrazistako buruzagi izandakoak atzo aurkeztu zuen bere hautagaitza Kongresuko kide izateko. Robert Livingston kongresukide ohi errepublikanoak utzitako hutsunea bete nahi du Dukek.

ETIOPIA-ERITREA

### Borroketan hildako kopuruaz berri nahasiak daude

ERITREAKO Gobernuak «milaka soldadu etsai» hil dituela esan zuen atzo, aste honetan bi herrialdeen arteko mugan izandako borroketan. Etiopiako iturri ofizialek gezurtatu egin zuten hori, eta guztia «asmazio hutsa» zela gaineratu zuten. Etiopiak baieztatu egin zuen atzo oraindik borrokan ari zirela bi aldeak.

TXILE

### Maputxeek protesta ibilaldia egin dute buruzagien atxilotzea salatzeko

200DIK gora maputxe indigenak Santiago hiriburuko kaleak zeharkatu zituzten atzo, hiru buruzagi maputxeren atxiloketa salatzeko. Joan den igandean hazienda batera sartu ziren maputxeak, eta horregatik atxilotu zituzten. Gobernua maputxeen prozesuan azaldu da, eta Auzitegi Gorenari auzia ikertzeko eskatu dio.

# Lockerbieko susmagarriak entregatuko ditu Gaddafik

*Libiak ontzat jo ditu Mandela eta Fahd erregearen garantiak*

Agentziak / **Kairo**

**Muammar el Gaddafi Libiako agintariak hitza eman du Lockerbieko atentatuko bi susmagarriak entregatuko dituela apirilaren 6rako. Atentatua 1988ko abenduaren 21ean gertatu zen, Eskoziako Lockerbie herria zeharkatzen ari zen hegazkin batek eztanda egin zuenean. 259 bidaiari eta 11 herritar hil ziren leherketan.**

MUAMMAR EL GADDAFI Libiako agintariak Nelson Mandela Hego Afrikako lehendakariarekin zuzenean hitz egin zuen atzo, eta telefonoz mintzatu zen Saudi Arabiako printze oinordeko Abdala Bin Abdel Aziz. Ondoren, Gaddafik hitza eman zuen nazioarteko justiziaren esku utziko dituela Lockerbieko atentatua egiteagatik susmagarri diren bi libiarrak: Abdel Basset Ali al-Megrahi eta Lamen Khalifa Fhima.

Gaddafik komunikatu bat kaleratu zuen atzo Tripolin (Libia), eta hor adierazi zuen Mandelak beharrezko bermeak eman dizkiola «bi susmagarriak Holandan epaituko dituztela ziurtatzeko». Libiako Herriaren Kongresu Nagusian ere, Legebiltzarrean, hitz egin zuen Gaddafik, eta esan zuen nahikoa zitzaiola «Mandela, Fahd erregea eta Abdala printze oinordekoaren garantiekin».



AP

**Lamen Khalifa Fhima eta Abdel Basset Ali al-Megrahi, bi susmagarriak.**

### Holandan epaituko dituzte susmagarriak

Geroago, Mandelak Libiako politikoen aurrean esan zuen Gaddafik Kofi Annan Nazio Batuetako idazkari nagusiari azalduko ziola susmagarriak Holandaren esku utziko dituela Holandako epaitegi batek, Eskoziako legeak aintzat hartuta epai ditzan.

Mandelak geroago argitu zuenez, hori zioen gutuna eskuartean zuen berak. «Saudi Arabiako Fahd erregeak eta nik neuk dugu erabaki horren erantzukizuna, eta Annani jakinaraziko diogu apirilaren 6rako», azpimarratu zuen Hego Afrikako presidenteak.

Mandelak bere eta Saudi Arabiaren «ohorea» aipatu zituen EEBBen, Erresuma Batuaren eta Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren «fede onaren» adierazgarri.

Atentatua 1988ko abenduaren 21ean gertatu zen. Londresko (Erresuma Batua) aireportutik abiatu eta New Yorkera (EEBB) zihoan Pan Am konpainiako hegazkin batek eztanda egin zuen Eskoziako Lockerbie herria zeharkatzen ari zenean.

Leherketaren ondoren behera erori zen, eta hegazkinean zihoazen 259 bidaiariez gain herriko 11 bizilagun hil ziren.

Atentatuak krisia sortu zuen Erresuma Batua, EEBBak eta Libia artean, lehen bi herrialdeek bigarrenari leporatu baitzioten atentatuarekin zerikusia izatea.

## Zazpi urteko zigorren ondoren

HEGO AFRIKA eta Saudi Arabiak bitarteko lanak egin dituzte Libiarekin, atentatuaren bi susmagarriak entrega zitzan konbentzitzeko.

Libiari zigor ekonomiko, diplomatiko eta militarrak ezarri zizkioten Nazio Batuek 1992an, susmagarriak EEBBak edo Erresuma Batuko justiziaren esku utzi nahi ez zituelako.

Susmagarriak hirugarren herri batean epaitzea eskatu zuen Libiak. Iazko abuztuan EEBBak eta Erresuma Batua ados azaldu ziren Lockerbieko atentatuaren bi susmagarriak Holandako epaitegi batek epai zitzan, baina Eskoziako legeak kontuan izanda.

Nazio Batuak prest azaldu ziren zigorrak kentzeko baldin eta susmagarriak entregatzen bazituen. Libiak orduan garantia batzuk eskatu zituen.

EEBBak eta Erresuma Batuak hilaren amaierako epea eman zien Libiari susmagarriak entregatzeko, bestela zigorrak zorroztuko zitzaizkiola mehatxu eginez.

# Gutxienez 150 zibil hil dituzte Aljerian hila hasi zenetik, ustez talde islamikoek

*Islamiko armatuek atentatuak ugaritu dituzte apirileko hauteskundeei begira*

Agentziak / **Aljer**

USTEZ talde armatu islamikoek gutxienez 150 pertsona hil dituzte hila hasi zenetik, iturri batzuen arabera. Segurtasun zerbitzuek egindako komunikatu eta atentatuetatik bizirik irtendako lekukoen datuetatik atera dira ondorio horiek.

Ustezko islamista armatuen azken atentatua herenegun gauean gertatu zen Ain Defla probintzian, Aljerdik hegoaldera. Komando batek kontrol postu faltsu bat jarri zuen errepidean, eta hamar bidaiari geldiarazi. Guztiak hil zituzten, eta ondoren babeslekuetara egin zuten ihes.

Segurtasun indarrek ustezko hiltzaileak harrapatzeko operazioa abiarazi zuten berehala. Hala ere, ez zen zehaztu komandoko kideak harrapatu ote zituzten.

Aurreko hilketa hilaren 13an gertatu zen. Ustez islamistek sei zibil hil zituzten Tipaza eskualdean, Aljerdik ekialdera. Bi egun geroago sei zibil hil zituzten Blidan.

Atentatuak ugaritu egin dira azken aldian Aljerian. Lehendakari berria aukeratzeko hauteskundeak egingo dira apirilaren 15ean, eta horretaz baliatuta ekintzak ugaritu dituzte propaganda gisa.

Atentatuak gehitzearekin batera, talde armatu islamikoen aldeko orriak banatzen dituzte herrietan. Talde islamiko armatuek bizilagunak mehatxatzen dituzte, esanez hil egingo dituztela botoa emateko hautestontzietara inguratuz gero.

**• Futbola**

**Athletic:** Europako postuei begira, oso puntu garrantzitsuak izango ditu gaur jokoan Montjuicen Espanyolen aurka ➜ 27




**• Eskubaloia**

**Bidasoa:** Irungo taldeak gaur dauka, Valladoliden, Asobal Ligako jaitsiera fasetik libratzeko azkeneko posibilitatea ➜ 31

**Athletic** ◆ Taldea 2000. urteko ekainean utziko duela aurreratu du entrenatzaileak

# Fernandezek ez du jarraituko

*«Lau urtekoa ziklo ona da entrenatzaile batentzat», esan du*

Asier Iturriagaetxebarria / **Bilbo**

LUIS FERNANDEZ-EK kontratua bukatzen zaionean utziko du Athletic; hau da, 2000. urteko ekainaren 30ean. «Lau urtekoa ziklo ona da entrenatzaile batentzat. Bost urte egitea zailagoa da», esan zuen atzo Espanyolen aurkako partiduaren bezperan. Modu horretan, baieztatu egin zuen atzo kirol egunkari baten azaldutakoa.

Behin baino gehiagotan hitz egin da ea Luis Fernandezek bost urte egingo ote zituen Athleticen. Jose Mari Arrate presidenteak ere argi utzi du bere aldetik ez dela arazorik izango. Bestalde, entrenatzaileak bi aldiz luzatu du kontratua zuri-gorriekin, eta bietan bukatu baino hil batzuk lehenago jakinarazi du bere erabakia. Orain ez da horrela izan. Zaleen eta zuzendaritza taldearen presioa saihesteko-edo, argi utzi nahi izan du ez duela jarraituko.




JOSU ETXEBERRIOSTE

**Luis Fernandez, 1996ko ekainaren 19an San Mamesen, Arrate aurrean duela, Athleticekin fitxatzera etorri zenean.**

Luis Fernandezek behin baino gehiagotan esana zuen egunen batean utzi egin beharko zuela Athletic. Izan ere, bere semeetako batek ez du aukerarik Bilbon bere ikasketekin jarraitzeko. «Bakarrik banengo, hamar edo hamabost urte egongo nintzateke, edo hemen bukatuko nuke nire karrera. Baina kontuan izan behar da emaztea eta semeak ditudala», azpimarratu zuen.

Joateko asmoa adierazi bazuen ere, Euskal Herrian oso gustura dagoela azaldu zuen Fernandezek. «Hemen baino hobeto ez naiz beste inon egongo, eta, horregatik, badakit joateko unea oso gogorra izango dela».

Entrenatzaile bakoitzak bere zikloa duela esan zuen, eta hortik aurrera egoerak okerrera egiten duela. Hori gertatzerik ez du nahi Fernandezek. «Jendea nitaz oroitzen denean, profesional on bat izan nintzela esatea nahi dut, eta joaten naizenean egoera onean utzi nahi dut Athletic».

**LUIS FERNANDEZ**

■■■ *«Bakarrik banengo, 10 edo 15 urte egongo nintzateke hemen, baina emaztea eta semeak dauzkat»*

Ildo horretan, Ligan talde bera lau urte entrenatzen aritu den entrenatzailerik ez dagoela gogoratu zuen Luis Fernandezek. Izan ere, momentu honetan Ligan ez dago inor bera baino denbora gehiago eman duenik talde bera entrenatzen. Eta Fernandezek hirugarren denboraldia bete du aurten Athleticen. Tarte honetan, 106 aldiz zuzendu du talde zuri-gorria.

### Nora joango den erabaki gabe du

Erabaki gabe du nora joango den Bilbotik alde egiten duenean. «Hemen lan egin dezaket, Frantzian, Ingalaterran, Japonian... Kirol arloan ez dut ezer programatua. Oporrik gabe hogei urte ere badaramatzat, baina ez naiz kexatzen, egiten dudana pribilejio bat baita».

Ligako beste talderen batera joateko aukerarik badagoan galdetutakoan, Fernandezek adierazi zuen ez duela baztertzen aukera hori.

## Arratek ez du baztertzen hirugarren agintaldirako aurkeztea

Erredakzioa / **Bilbo**

LUIS FERNANDEZ-EK Athleticen ez duela jarraituko aurreratu zuen, eta Jose Mari Arrate presidenteak, aldiz, Efe-Irratiari egindako adierazpenetan, esan zuen ez duela baztertzen hirugarren agintaldirako hauteskundeetara aurkeztea. Arrateren bigarren agintaldia 2001. urteko ekainean bukatuko da, eta, dirudienez, hurrengo hauteskundeetara aurkezteko asmoa du.

«Bi urte barru erabakiko dut berriro aurkeztuko naizen hauteskundeetara edo ez», esan zuen Arrate presidenteak. Halaber, bera presidente gisa egon den urteetan Athleticek izandako emaitzekin «gustura eta poz-pozik» dagoela azpimarratu zuen. «Gauzak ondo joan dira, baina badakigu gaizki ere joan zitezkeela».

Hauteskundeetara aurkeztuko den erabakitzeko orduan hainbat gauza izango ditu kontuan: «Ni nola nagoen, bazkidea nola dagoen, ditudan laguntzak eta beste zirkunstantzia batzuk».

Athleticeko presidente gisa egindako lanarekin gustura dagoela adierazi bazuen ere, «postu estresagarria, nekagarria eta erantzukizun handikoa» dela onartu zuen Jose Mari Arratek Efe-Irratiari eskainitako elkarrizketan.

**Athletic** ◆ Espanyolen aurka irabaztea garrantzitsua da sailkapenean goian segitzeko

# Goiko postuei begira

*Fernandezek makina bat aukera du hamaikakoa osatzeko*

Asier Iturriagaetxebarria / **Bilbo**

JOAN den igandean Salamancaren aurka irabazi ostean, Athletic sailkapeneko lehenengo postuetan sartu da berriro ere. Txapeldunen Ligan sartzeko aukera duten taldeen artean dago Athletic, eta, hor segitu nahi izanez gero, beharrezkoa du gaur puntuak lortzea Miguel Angel Brindisiren taldearen aurka.

Luis Fernandezek makina bat proba egin du aste honetan Lezaman. Eta horien ostean, argi gelditu da berriro ere oso zaila izango dela asmatzea zer hamaikako ariko den gaur Montjuicen. Zalantzak, batez ere, zelai erdian daude. Herenegun, Jorge Perez zegoen erdialdearekin probatu zuen Fernandezek, Julen Guerrero tartean ez zela. Nagorek ere bere aukera izan dezake, Salamancaren aurka hasierako hamaikakoan izan ondoren. Itxura baten, Felipe eta Alkizak ziurtatuta daukate lekua zelai erdian. Aurrean, berriz, badirudi Joseba Etxeberriak jokatu egingo duela. Erabakitzeke dago, baina, Ezquerro edo Urzaiz izango den haren ondoan. Hemezortzi jokalari eramango ditu Fernandezek, tartean Yeste gaztea dela. Kanpoan Javi Gonzalez eta Lasa geldituko dira, min hartuta daudenez gain.

Argi dago Athletic ez dela erasora joango Espanyolen aurka. «Aukerak ez dira hasieratik galdu behar. Zelaian ondo jarri, eta Espanyol urduri jartzen ahalegindu behar dugu, gero gure aukera aprobetxatzeko», esan zuen atzo Fernandezek. Beraz, badirudi etxetik kanpo jokatu dituen azken partiduetako taktikari eutsiko diola.

### Bi partidu irabazi gabe

Athleticek hiru puntuak eskuratu zituen azken jardunaldian, eta Espanyolek galdu egin ditu azken bi norgehiagokak, Valladolid eta Barcelonaren aurka. «Horrek ez du ezer esan nahi, Espanyolek bide ona baitarama Ligan. Gainera, azken porrotak ahazteko gogoarekin irtengo dira zelaira», esan zuen.





MIKEL MARTINEZ

Nagore, gol bat ospatzen.

## Rios, Benitez, Posse eta presioa

Asier Iturriagaetxebarria

HAU EZ DA Lehen Mailan Riosek egin duen denboraldirik onena. Lesioak direla eta, edo entrenatzaileak horrela erabaki duela eta, Betisetik 2.000 milioi pezetaren truke etorritako atzelariak ez du bere maila erakusterik izan Athleticen.

Hala ere, Patxi Ferreira eta Rafa Alkorta min hartuta daudenez, Luis Fernandezek Salamancaren aurkako hamaikakoan jarri behar izan zuen Rios. Eta hark garaipenaren gola sartuz erantzun zuen.

Zalantzarik gabe, gaurkoa partidu garrantzitsua izango da Riosentzat, bolada onari eusteko aukera duelako. Ez du lan erraza izango gaur Portugaletekoak Benitez eta Martin Posse jokalariak izango dituelako aurrean. Jokalari txiki eta abilak dira, Riosi gutxien komeni zaizkionak. Ikusi egin beharko da nola erantzuten duen.

Bestalde, Bittor Alkizak aste honetan esan duenez «presioa nabaritzen hasia da». Ez du arrazoirik falta erdilari donostiarrak. Espainiako Liga bukatzeko gero eta gutxiago falta da, eta hemendik aurrera partidu guztiak finalak izango dira. Horrela hartu beharko dira, behintzat, iazko Liga amaiera bezalakoa egin nahi bada. Espanyolen aurka izango da lehen finala.


XOUSE SIMAL

## Joseba Etxeberria

• ATHLETICEKO JOKALARIA •

*«Goian egon nahi izanez gero, Espanyolen aurka irabazi egin behar dugu»*

JOSEBA ETXEBERRIA gaur Espanyolen aurkako partiduan hasierako hamaikakoan izango dela dirudi. Aurrelariak argi dauka oso partidu garrantzitsua dela gaurkoa.

■ **Espanyolen aurkako norgehiagoka oso garrantzitsua al da Athleticentzat?**

Badakigu ez dela partidu erraza izango eta aurkariari begirunea zor diogula. Hala ere, jakin badakigu goian egon nahi izanez gero irabazi egin behar diogula Espanyoli.

■ **Espanyolen aurka berdindu egin zenuten San Mamesen, eta izango dituzuen hurrengo bi aurkarien aurka ere —Reala eta Oviedo— ezin izan zenuten irabazi.**

Ez dut hurrengo aurkarietan pentsatu nahi. Nik Espanyolen aurkako partiduan dut jarria burua. Goian izateko puntuak behar ditugu. Gainera, Espanyolen aurkakoa izango da lehen norgehiagoka, eta gero atsedena izango dugu.

■ **Brindisiren taldea sailkapenaren erdialdean dagoenez, presiorik gabe jokatuko dute gaur.**

Irabazten badugu, aurrerapauso handia emango dugu. Beharbada, haiek baino gehiago daukagu jokoan. Baina ezin daiteke jakin presiorik gabe jokatzeak mesede egingo dion Espanyoli edo kalte egingo dion. Puntuen premiarik ez dutenez, konfiantza handiagoarekin ere joka dezakete. Ez dakit horrek eragina izango duen.

**Alaves ◆**

## Belsue: «Ezin dugu igandean huts egin»

*Atletico de Madrid talde handien artean dagoela uste du atzelariak*

Ivan Santamaria / **Gasteiz**

ALBERTO BELSUEK ez zituen Alavesek dituen beharrak ezkutatu nahi izan. Zaragozako atzelari ohiak argi dauka etxez kanpoko porrotak Mendizorrotzan gainditu behar direla. «Azken postuetan gauden taldeak egoera txarra etxean konpontzen saiatzen gara, etxetik at puntuak lortzea izugarri kostatzen zaigulako. Gure egoera gaindizteko puntuak lortzea beharrezkoa bada ere, behar hori areagotzen du etxetik kanpo punturik ez biltzeak. Horregatik ezin dugu huts egin», esan zuen.

Atletico de Madriden krisiaren inguruan ere mintzatu zen Belsue. Haren esanetan, une honetan hiru txapelketatan izatea talde handia dela baieztatzen du. «Baliteke Atletico de Madridek une zehatzetan arreta beste txapelketetara bideratzea, baina horretarako potentziala dauka, eta ez dut uste liga ahaztuta dutenik», adierazi zuen atzelariak.

Dena den, Atletico de Madrid gainditzeko gai direla uste du Belsuek, baina horretarako gogorrak izan behar dutela: «Jarrera ezin hobea erakutsi behar dugunok gu gara, eta horretarako lan ona egin dugu aste osoan. Eurek ere arazoak izan dituzte etxetik kanpo, baina euren jokalariei nahi dutena egiten lagatzen badiegu arazoak izango ditugu».

**hor zain**

### Aitor Zabaletari omenaldia bihar

Valle de Aran Barcelonako peñak bultzatuta, bihar 12:30etan Ibaetan Aitor Zabaletari omenaldia egingo diote, goizean Zegaman sendi artekoa egin ondoren. Gero Zabaletatarren Aratz jatetxean bazkaldu, eta peña bilkura eta kontzentrazioa egingo dute. Odon Elorza bertan egongo da. Gainera, mehatxuekin jasotako bost eskutitzen inguruan adierazpen bat ere egingo dute.

### Martin: «Bolada txarra haustera»

Enrique Martin Osasunako entrenatzaileak atzo adierazi zuenez, taldea Huelvara etxez kanpoko bolada txarra haustera joanen da: «Aurrealdean zortea badugu, zelai guztietan irabaz dezakegu. Zortzi partidu geratzen dira kanpoan, eta garrantzitsua da bi edo hiru irabaztea».

### Manchester-Juventus Europan

Atzo zozketatu ziren Europako txapelketen finalerdiak. Kopan Manchester-ek-Juventusek eta Kieveko Dinamo-Municheko Bayernek jokatuko dute. Errekopan Chelsea eta Mallorca, eta Moskuko Lokomotiv eta Lazio arituko dira. UEFAn, ordea, Atletico de Madrid-Parma, eta Olympique-Bolonia.

### Barrabiletako bategatik zigortua

Franceschini atezain italiarra 2002. urtea arte jokatzeko debekuarekin zigortu du Italiako Federazioak partidu batean arbitroari barrabiletan ostiko bat jotzeagatik.

**Reala ◆** Kraussek betiko eskemarekin jokatuko du Barcelonaren aurka

# Cvitanovic titular

*Bikote erasotzailea osa dezake Kovacevicekin*



ARTXIBOKOA

**Cvitanovicek adierazi zuenez bihar jokatzeak konfiantza itzuliko lioke.**

Jon Ordoñez / **Donostia**

IGOR CVITANOVIC titularren artean ari daiteke bihar Barcelonaren aurka, eta Kovacevicekin bikote erasotzailea osa dezake Anoetan. Horrela, De Pedro, Sa Pinto eta Kovacevicekin batera Cvitanovic ere hamaikakora itzuliko litzateke bihar. Jokalariak adierazi zuenez horrek konfiantza itzuliko lioke hurrengo partiduetarako.

Bernd Kraussek atzo azaldu zuenez, ez du esperimenturik egingo Barcelonaren aurka, eta betiko eskemarekin jokatuko du. Atzo Zubietan ikusitakoaren arabera hamaikakoa hau izan daiteke: Alberto; Fuentes, Loren, Pikabea, Aranzabal; Gomez, Aranburu, De Pedro, Sa Pinto; Kovacevic eta Cvitanovic. Deialdia gaur argituko du Kraussek Zubietan 18:00etan egingo duten entrenamenduaren ondoren. Hamaikakora itzultzen diren jokalariekin taldeak kalitate gehiago izango duela adierazi zuen Kraussek, baina horiek ea zer egun duten ikusi egin beharko dela gaineratu zuen. Taldeak beldurrik gabe eta ikuskizuna eskaintzeko jokatuko duela azaldu zuen.

**BERND KRAUSS**

**Kalitatea**

*»Itzuli diren jokalariek kalitate gehiago dute, baina zer egun duten ikusi beharko da»*

**Ez dago sarrerarik**

Realeko zuzendaritzak azaldu zuenez atzo bukatu ziren igandean Realak eta Barcelonak 17:00etan jokatuko duten partidurako sarrerak.

## Javi Gracia pozik itzuli da ebaketaren ondoren

JAVI GRACIA oso pozik itzuli da Donostiara Munichetik asteazkenean ebaketa izan ondoren, eta Athleticen aurka apirilaren 4an jokatzeko moduan egotea espero duela adierazi zuen. «Oso pozik nator, gauzak ondo joan dira, eta ondo tratatu naute. Ebaketa espero bezala joan da. Goizean ebaketa egin, eta arratsaldean altxatu nintekeen. Berehala korrikaldi motzak egiten eta bizikletan ibiltzen hasiko naiz, eta pixkanaka forma hartzen joango naiz», adierazi zuen jokalari nafarrak bere itzuleran.

## Ronald de Boerrek ez du jokatuko lesio bat dela eta

OSTEGUNEAN lesionatu eta gero, Ronald de Boer ez da Anoetan jokatzeko moduan izango. Van Gaalek haren ordez Xabi Hernandez gaztea sartu du deialdian. Holandarraz gain Luis Figo zigortuta eta Luis Enrique lesionatuta ere ez dira izango Donostian. Gainera, Reiziger ere duda da. Guardiola, ordea, bai izango dela Realaren aurka. Horrela, holandarraren hamaikakoa honako hau izan daiteke: Hesp; Oscar, Sergi, Abelardo, Frank de Boer; Guardiola, Xabi, Cocu; Cenden, Kluibert eta Rivaldo.

**Futbola** ◆ Frantziako Ligako klubik nagusietakoa gertu dago jaitsiera postuetatik

# PSG, kinka larrian

*Jorge bidali egin dute entrenatzaile kargutik, eta gaurtik aurrera Bergeroo ziburutarrak hartuko du ardura hori*

Naxari Altuna / **Donostia**

EZ DA giro Parisen. Frantziako hiriburuko futbol klub nagusia krisian dago. Liga hasi baino lehen Paris Saint Germain zen txapelketa irabazteko faborito nagusia, Marseille eta Monacorekin batera, baina kale egin dute Pariskoek. Liga amaitzeko zortzi jardunaldi besterik ez dira geratzen eta jaitsiera postuetatik bost puntura dago Luis Fernandezen talde ohia. Hori gutxi ez balitz bezala, Errekopatik at geratu ziren lehen kanporaketan Maccabi Haifaren aurka galdu eta gero; Frantziako Kopan amore eman behar izan zuten Nantesen aurrean, eta Montpellier ere gailendu zitzaion Ligako Kopa deritzon txapelketan. Ekaitza etengabe izan da Parisen: presidente aldaketa, hiru entrenatzaile, jokalari berriak...

PSG, Canal+ telebista katearen eskuetan dago 1991. urteaz geroztik. Orduko hartan, telebista kate hartako Kirol Zuzendari Michel Denisotek hartu zuen klubaren presidente kargua. Haren inguruan sortu zen PSG boteretsua. Denisotek berak egiten zituen fitxaketak. Begi ona erakutsi zuen. Hark fitxatu zituen, besteak beste: Valdo, Ricardo Gomes, Bravo, Ginola, Weah, Rai, Guerin, Founier, Leonardo, Djorkaeff, Simone eta abar.



L'EQUIPE

**PSGko Goma eta Worns burumakur, lehengo astean.**

### 1996ko Errekopa

Artur Jorge entrenatzaile zela, 1993-94 denboraldian bere azken Liga irabazi zuen PSGk. Luis Fernandezek hartu zuen Jorgeren lekukoa, eta Tarifakoarekin Parisko klubak zerua ukitu zuen: 1996ko Errekopa eskuratu zuen Rapid Vienaren aurka. Baina Fernandezek kargua uztea erabaki zuen, agintarien gehiegikeriak salatu ondoren. Entrenatzaileak lan egiteko askatasun osoa nahi zuen, eta Denisotek eragozpenak jartzen zizkion. Gainera, Tarifakoak jokalari batzuk eskatzen zituen eta presidenteak beste batzuk ekartzen zizkion. Luis Fernandez Athleticera joan zen, eta bere lekua Ricardo Gomesek hartu zuen (taldeko jokalari ohia). Berdeguneko aulkira igaro zen Gomes egun batetik bestera. Orduantxe hasi en kluba gainbehera. Denisotek ez zuen inolako berrikuntzarik egin; soilik Leonardo brasildarra iritsi zen. Barcelonaren kontra Errekopako finala galdu arren, presidenteak ez zuen aparteko fitxaketarik egin. Iaz Kopa eta Ligako Kopa eskuratu ostean, Denisotek presidente kargua utzi zuen, eta bere ordez Charles Bietryk hartu zuen ardura. Hura ere Canal + telebista kateko Kirol Zuzendaria zen. Alain Giresse aukeratu zuen entrenatzaile eta hamabi jokalari fitxatu zituen, Okocha tartean. Frantziako futbolaren historiako dirutzarik handiena ordaindu zuen PSGk harengatik: 96 milioi libera (2.400 milioi pezeta).

Azpiegitura guztia bat-batean aldatzea oso arriskutsua izaten da, eta arrisku horrek hondamendia eragin du Parisko klubean. Fitxaketak ustelak gertatu dira. Zortzigarren jardunaldian Giressek taldea utzi behar izan zuen. Bietryk, antzinako lorpenak errepikatu nahian, Artur Jorgeri zabaldu zizkion Printzeen Parkeko ateak, baina taldeak okerrera egin du. Bietryk dimisioa aurkeztu zuen Gabonetako bueltan. Perpere da orain PSGko presidente, eta bere erabakirik garrantzitsuena entrenatzailea aldatzea izan da. Taldearen etorkizuna Philippe Bergeroo ziburutarraren eskuetan dago. Gaur egingo du debuta, Auxerren. Jarraitzaileek, bitartean, Luis Fernandez itzultzea nahi dute.

soslaia

PHILIPPE BERGEROO • *Paris Saint Germaineko entrenatzailea*



## *Dohainak erakusteko garaia*

PHILIPE BERGEROO sortzez lapurtarra da. Ziburun jaio zen orain dela 45 urte, eta urte haietatik hamabost jokalari profesional gisa bete ditu: Girondinsen (1973-78), Lillen (1978-83) eta Toulousen (1983-88). Belaunaldi bikain baten partaide izan zen, Frantziak oso atezain *nazional* onak eman baitzituen 80ko hamarkadan: Bats, Dropsy, Ettori, Castaneda... Talde mailan ez zuen titulurik irabazi Bergerook, baina Frantziako selekzioarekin bai (1984ko Frantziako Eurokopa). Betiere, ordea, Batsen itzalean egon izan da selekzioan. Mexikoko Mundialean ere izan zen atezain lapurtarra.

1988an futbolean jokatzeari utzi zion eta Frantziako selekzioan hasi zen lanean. Hasiera batean atezainak entrenatzeko ardura hartu zuen, baina gerora erantzukizuna handituz joan zitzaion. Hala, Platini, Houllier eta Jacquet hautatzaile frantziarrekin trebatu zen. Haien laguntzaile fina izan da Bergeroo. Iaz, Frantziako Munduko Txapelketan, esate baterako, Jacqueten konfiantzakoa bilakatu zen komunikabideak selekzionatzailearen kontra gogor hasi zirenean. Leiala da, beraz.

Frantziako Mundiala hasi aurretik, Giressen deia jaso zuen PSGn elkarrekin lanean aritzeko. Bergerook gustura onartu zuen, eta 2001a arte sinatu zuen. Orain hango lehen entrenatzaile izateko garaia heldu zaio, eta bere dohainak azaldu beharko ditu.

*Naxari Altuna*

**Futbola** ◆

## Eibarrek bi puntuak bilatuko ditu gaur, gora begira dagoen Lleidaren aurka

*Barasoainek Bastida sartu du deialdian Daviden ordez*

**18:00 (ETB1)**

**LLEIDA-EIBAR**

| Muñoz | Barasoain |
|---|---|
| 25 Mora | 1 Iru |
| 2 Fran | 2 Goio |
| 21 Quique | 4 Arce |
| 4 Radulovi | 20 Ocio |
| 17 Torrecill | 3 Bastida |
| 8 Roa | 25 Iturrino |
| 7 Escoda | 8 Artetxe |
| 20 Setvalls | 10 Bixente |
| 10 Calderor | 17 Kortina |
| 26 Ilie | 19 Agirre |
| 23 Josemi | 9 Kiko |

**Epailea** • Undiano Mallenco

**Zelaia** • Camp D'Esports

Erredakzioa / **Donostia**

EIBARREK punturen bat lortu nahi du gaur Lleidan, Bigarren Mailan jarraitzeko aukerei eusteko. Barasoainek garbi dauka gero eta jardunaldi gutxiago gelditzen direla, eta Eibarrek puntuak behar dituela lehenbailehen: «Betiko kontua bihurtzen ari da, baina irabazi beharra dugu. Puntuak lortu behar ditugu nola edo hala» . Barasoainek Mallorcaren kontra egindako partidua jarri du eredutzat. «Etxetik kanpo egin dugun partidu onena izan da, ongi presionatuz, eta baloia genuenean buruarekin jokatuz», adierazi zuen atzo.

Deialdiari dagokionez, Barasoainek aldaketa bakarra egin du. Bastida sartu du David Velazquezen ordez.

**Muñoz: «Partidu zaila izango da»**

Victor Muñoz Lleidako entrenatzailearen ustez, partidu zaila izango da gaurkoa Lleidarentzat. Eibar atzean itxiko dela dio, eta horren aurrean pazientzia handia beharko dutela garaipena lortu ahal izateko: «Lehen minutuetan golik egiten ez badugu, pazientzia eskatu nahi diet jokalariei zein zaleei. Baloia abiadura handiz jokatzen saiatu behar dugu, Eibar ezustean harrapatzeko».

**Bidasoa** ◆ Valladoliden berdinketa eskuratu behar du gutxienez, eta Chapelak gal dezan errezatu

# Azken aukera

*Valladolidek bere pabilioian ez du galdu denboraldi osoan*

**18:30**

**VALLADOLID-BIDASOA**

| Pastor | Hernandez |
|---|---|
| 12 Malumbres | 12 Barreto |
| 4 Alemany | 11 Girault |
| 14 Raul | 18 Aitor |
| 8 Campos | 17 Vico |
| 9 Pisonero | 10 Josemi |
| 10 Gallego | 7 Valenzuela |
| 11 Alex | 15 Raphanel |
| 1 Jorge | 1 Gurutz |
| 6 Miguel | 7 Zuzo |
| 15 Avila | 8 Gudelj |
| 18 Iker | 14 Cortes |

**Epaileak** • Fernandez / Permuy

**Pabilioia** • Pisuerga



EDURNE KOCH

**Nacho Vicoren golak oso garrantzitsuak izango dira gaur Valladolid mendean hartzeko.**

Gorka Zabaleta / **Donostia**

JOAN dira kalkuluak ateratzeko egunak. Lehen faseko azken jardunaldia iritsi da, eta Bidasoari, tamalez, aukera bakarra gelditzen zaio: Valladoliden irabaztea. Hori izan behar du Bidasoak helburu bakarra. Gero, Chapelak Galdarren aurka galtzen badu, nahikoa izango da puntu bat, baina irundarrek ezin dute hori aintzat hartu. Gaurko partidua Europako Kopako finala bezain garrantzitsua da, eta grina horrekin heldu behar diote. Valladolidek denboraldi osoan ez du partidurik galdu etxean, eta inoizko denboraldirik onena osatzen ari da, baina bihar ez du ezer jokoan, eta Bidasoak etekina atera behar dio egoera horri.

### Javier Sesma, itxaropentsu

Mario Hernandezek jokalari guztiak eraman ditu Valladolidera, eta, haien ondoan, zalez beteriko hiru autobus joan dira. Javier Sesma presidenteak jarraitzaileek emandako erantzuna eskertu nahi izan du, eta itxaropentsu agertu da gaurko partiduari begira: «Zaleek bikain erantzun dute azken jardunaldi hauetan, taldea egoera larrian dagoela konturatu baitira. Jokalariak oso ongi ikusi ditut, kontzentraturik. Azken jardunaldietan oso ongi ari dira. Uste dut jabetu direla egoeraz, eta aurreko hilabeteotan baino lan handiagoa egiten ari dira». Sesmak uste du Galdarrek irabazi egingo diola Chapelari: «Galdarreko jokalariak profesional handiak dira, eta gaur irabaztera aterako dira. Hori kontuan hartzen badugu, guretzat nahikoa izango da berdinketa, eta ez zait ezinezkoa iruditzen», amaitu zuen presidenteak.

**Portland** ◆ Nahikoa du gaur puntu bat lortzea Ciudad Realen hirugarren postuari eusteko

# Berdinketa, Barcelonarekin ez topatzeko

**18:30**

**CIUDAD REAL-PORTLAND**

| Lopez Leon | Ekisoain |
|---|---|
| 16 Nuñez | 1 Norklit |
| 2 Trives | 17 Ambros |
| 7 Bebexko | 3 Mainer |
| 9 Hermida | 18 Errekondo |
| 14 Grebnev | 10 Martin |
| 5 Jimenez | 11 Kisselev |
| 18 Vidal | 9 Villaldea |
| 17 Manrique | 2 Fetxanka |
| 15 Lubian | 7 Jauregi |
| 1 Paco | 13 Raul |
| 4 Perez | 6 Barbeito |

**Epaileak** • Iniesta eta Huget

**Pabilioia** • Puerta de Santa Maria

G. Z. / **Donostia**

FINALERDIETARAKO txartela eskuratu ondoren, Portlandek hirugarren postua ziurtatu nahi du Ciudad Realen. Gaztelarrak dira, hain zuzen ere, hirugarren postu hori ken diezaieketen bakarrak. Bi taldeek 33 puntu dituzte, baina Portlandek Arrosadiako partidua irabazi zuen, eta gaur nahikoa zaio berdinketa. Ez da, ordea, batere erraza izango, Ciudad Real bikain ari baita aurten, eta nafarren nekea agerian gelditzen ari baita azken jardunaldietan. Hala ere, Ekisoainek jokatzeko prest ditu lesionatuta zeuden ia jokalari guztiak, eta San Antoniokoak azken ahalegina egiteko moduan dira. Villaldea, Barbeito eta Mainer osatu dira, eta Olalla da oraindik kilikolo dagoen bakarra.

Hirugarren postua lortzen duenak Ademar Leon izango du aurkari finalerdietan, eta ez du Barcelonarekin lehiatu beharko. Abantaila da, baina agian beste urteetan baino txikiagoa.

### Ciudad Realek garaipena behar du

Portland finalerdietan da jadanik, baina Ciudad Realek puntu bat behar du gutxienez, Caja Cantabriak Granollersi irabazten badio laugarren postua galduko bailuke. Horregatik, Rafael Lopez Leon entrenatzaileak bere taldearentzat denboraldiko partidu garrantzitsuena dela adierazi du: «Pena litzateke azkenean finalerdietatik kanpo gelditzea, baina Portland aurkari handia da».

**Barakaldo** ◆

## Jaitsierako faserako urrezko bi puntu jokoan Galizian

*Bizkaitarrek Moldestad norvegiarrarekin jokatuko dute*

**18:30**

**CANGAS-BARAKALDO**

| Dzokic | Rivero |
|---|---|
| 1 Soliño | 1 Victor |
| 3 Camacho | 2 Bueno |
| 4 Fajfric | 3 Arraras |
| 5 Kovacevic | 4 Koldo |
| 7 Escudero | 5Abramenko |
| 8 Soliño | 7 Txabarri |
| 10 Celes | 8 Artiach |
| 11 Marcos | 18 Jon |
| 12 Angel | 12 Juan |
| 13 Daniel | 14 Kovalev |
| 15 Pablo | 15 Alzaga |
| 17 Montes | 17 Lanz |

**Epaileak** • Breto / Huelin

**Pabilioia** • O Gatañal

Erredakzioa / **Bilbo**

BARAKALDO-UPVk bi puntu garrantzitsu ditu gaur jokoan, aspaldiko partez. Azkenengo jardunaldietan jaitsiera fasea prestatzen jardun ondoren, gaurko garaipena bilatuko dute Txanpiren jokalariek Galizian, bi taldeak jaitsiera fasean ikusiko baitute elkar. Ez da, ordea, batere erraza izango, galiziarrak talde gogorra baitira etxean. Hala ere, Txanpik Moldestad norvegiarra kantxaratuko du, eta horrek sendotasuna emango dio taldeari. Ezker lateralean jokatzen du, eta Txanpik jokalari garrantzitsua izango dela uste du. Gaur irabazita, Barakaldok zazpi puntu lituzke jaitsiera fase hasieran.

**Sailkapena**

| Taldea | Puntuak |
|---|---|
| 1. Barcelona | 47 |
| 2. Ademar | 37 |
| **3. Portland** | **33** |
| 4. Ciudad Real | 33 |
| 5. C. Cantabria | 31 |
| 6. Valladolid | 28 |
| 7. Teucro | 24 |
| 8. Galdar | 23 |
| 9. Granollers | 21 |
| 10. Chapela | 19 |
| **11. Bidasoa** | **18** |
| 12. Cangas | 14 |
| 13. Altea | 12 |
| **14. Barakaldo** | **10** |

**Aizkora** ◆ Urrezko Aizkoraren laugarren saioa jokatuko dute bihar Beitiak eta Nazabalek

# Helburu desberdinekin

*Zazpi hilabete eman ditu Nazabalek plazetatik kanpo*

Koldo Alduntzin / **Donostia**

BILBOKO Arriagan jokatuko da II. Urrezko Aizkoraren laugarren kanporaketa eguerdiko 12:30etan. Behe adarreko bigarren saioa izango da, eta elkarren kontra Iñaki Beitia eta Floren Nazabal ariko dira 10 enborrera. Nazabalek lehen agerraldia izango du eta Beitiak bigarrena. Nazabalek iaz Etxebeste utzi zuen bazterrean lehen kanporaketan, baina bigarrenean Senosiainek irabazi zion segundo batzuengatik. Beitiak ere, Etxebeste kanporatu zuen joan den igandeko saioan, 22 minutu eta 27 segundotan amaitu zuelarik lana.

Joan den urteko abuztuaren 12an jokatu zuen Nazabalek azken txapelketa, hain zuzen ere I. Bertiz Kopa. Nafarra-Gipuzkoa izan zen lehia, eta nafarrek 3-0 irabazi zuten. Orduan ere oso ahul jardun zuen etxarriarrak, eta gerriko arazoak jota egon zen hurrengo hilabeteetan. Donostiako Urrezko Kopan egin zuen lehen kalea.

Atzo Donezteben izan zen apustua ikusten. Berak zioenez: «Nire helburu nagusia ahalik eta azkarren forman jartzea da, eta Urrezko Aizkora izango da proba neurtzailea. Fisikoki ondo nago, baina ez dut ziurtasunik nire osasun arazoa gainditu dudan jakiteko. Horregatik, kezka pittin batekin plazaratuko naiz».




Maila Nagusiko 9 final jokatua da nafarra, eta badu arrazoirik Beitia baino maila hobexean aritzeko. Osasun arazoak sortarazten dion kezka alboratzea lortzen badu ohiko Nazabal ikusiko dugu. Beitia ere Donezteben izan zen atzo. Joan den igandean eginiko lanarekin kontent zen, «eta Zeanurin egin nuena errepikatzen badut pozik amaituko dut», zioen. Gainera, «nik ez daukat deus galtzekorik, Florenek dauka ardura guztia, ni baino aizkolari eginagoa baita, eta gehiago dauka jokoan», gaineratu zuen.

Aizkora aurretik (12:00), trontza izango da: Lapazaran-Irazola eta Etxaniz-Mendibe –Bizkaiko txapeldunak eta txapeldunordeak–.



KOLDO ALDUNTZIN

**Nazabal I.a, Bertiz Kopan, Donezteben. Gaur berriro agertuko da plazan.**



## Iñaki Beitia

**Nongoa:** Zeanurikoa (Bizkaia)
**Adina:** 32urte
**Pisua:** 94 kilo
**Altura:** 1,84 metro
**Maila:** Maila Nagusian Euskal Herrikoan eta Bizkaikoan.
**Azken txapelketan:** Txapeldunordea Euskal Herriko II. Mailakoan eta txapelduna Bizkaikoan.
**Aurtengo helburua:** Maila erakustea txapelketetan.
**Gainerakoak:** Ez du deus galtzekorik gaur.



## Floren Nazabal

**Nongoa:** Etxarri-Aranatz (Nafarroa)
**Adina:** 29 urte
**Pisua:** 83 kilo
**Altura:** 1,84 metro
**Maila:** Maila Nagusian Euskal Herrikoan eta Nafarroakoan.
**Azken txapelketan:** Ez zuen jokatzerik izan.
**Aurtengo helburua:** Lehen zuen forma berreskuratzea.

# Arriak berriz irabazi zion Vicenteri

K. Alduntzin / **Doneztebe**

ELKARREN arteko bigarren apustua ere Xabier Orbegozo *Arria V.*ak irabazi zion Daniel Vicenteri, atzo Donezteben. Orain dela bi urtekoan (1997-02-23), 3 minutu eta 35 segundoko aldea atera zion Errezilgoak 12 kanaerdikora, eta atzo 5 minutu eta 44 segundokoa 16 kanaerdikora. Beraz, argi utzi zuen gipuzkoarrak gaur egun Otsagikoa baino gehiago dela.

Kasik hitzez hitz bete zuen Arriak herenegun esan ziguna; hots, seigarren egurrean joko zuela, eta atzean utziko zuela Vicente. Bederatzigarren kanaerdikoan hartu baitzion aurrea nafarrari. Ordura arte, Vicentek lan aipagarria egin zuen, eta epaiak ongi eginda gainera. Bazirudien ongi errekuperatuko zuela, arnasaldiak hartuta, baina erditik aurrera guztiz bete zen, eta arazoak izan zituen amaitzeko. Otsagiarrak 11. enborra botata denbora luze pasa zuen gorputzaldia errekuperatzeko.

Arriak baliteke zailxeagoak izatea bere lehen ilarako egurrak, eta ez zuen behar bezala lan egin barrualdeko lanean. Nolanahi ere, erdilanetatik aurrera erritmoa pittin bat bizitu zuen, eta azkenean azkartzeko ere ahalmena izan zuen.

**hitz bitan**

**Azken denborak:** Arriak: 36:39. Vicentek:42:23.
**Aldea:** 5 minutu eta 44 segundokoa.
**Sarrera:** 2.500 pezeta.
**Ikusleak:** 450.
**Lanerdietan:** Vicentek: 16:11 eta Arriak:16:24.
**Arriak aurrea hartu:** 9. kanaerdikoan.



KOLDO ALDUNTZIN

**Arria V.*ak* gehiago dela erakutsi zuen.**

**Txirrindularitza** ◆ Gaur Milan-San Remo

# Udaberriko lehen lorea

*Bartoli da faborito Munduko Kopako lehen proba irabazteko*



AP

**Michele Bartoli (Mapei) italiarra da faborito nagusia gaur Milan-San Remo irabazteko —Munduko Kopako lehen proba—.**

Xabier Usabiaga / **Donostia**

AZKEN urteotan ez bezala, gaurko Milan-San Remok faborito nagusi bakarra du: Michele Bartoli. Azken bi urteetan Munduko Kopa irabazi duen ziklistak, ordea, ez du lehenaz gain aingura sortuko dion presiorik nahi. «San Remo ez da inongo ametsa niretzat», esan berri du, baina onartu du «irabaztea gustatuko» litzaiokeela. Antzeko kontuak erabili zituen orain urtebete ere Lieja-Bastogne-Lieja proba bezperan, «gripe puntua» zuela esan baitzuen orduan, eta lasterketan erraz gailendu zen gero. Kontuak kontu, Bartolik asteon irabazi duen Tirreno Adriatikoan hitz egin du, eta ziklismoan aintzat hartu beharreko esanak errepidekoak dira. Bartolik gainera badaki, Paris-Nizak, eta, batez ere, Tirreno Adriatikoak, oso lotura estua dutela Milan-San Remorekin; alegia, bi itzuli horietan nabarmentzen dena ez dela garaipenetik oso aparte ibiltzen San Remon. Esaterako, 1993an Fondriestek erdietsi zuen Tirrenon garaipena, eta Poggion ez zen hari jarraitzeko gauza izan inor. Antzekoa ikusi zen 1994an Giorgio Furlanekin, eta 1995ean Laurent Jalabertekin (hau Frantzian gailendu zen).

Esprinterrak ez dira, hortaz, oso gustura izango Mapeikoaren sasoiarekin, eta bakar batzuk ez dira euren buruekin ere oso harro. «Lur jota nago», esan du Cipollinik, Tirrenon izandako eroriak eragindako sorbaldako mi-nez. «Nire lehen helburua San Remo zen, baina sorbalda minbera dut». Zabel, azken bi urteetako garailea, nekez ari da gailentzen aurten, eta ez dirudi iazko pedal kolperik duenik. Steels izan daiteke salbuespen bakarra.

Bartoliren gurpilari, ordea, ez zaio zaindaririk faltako, eta badaki nortzuk ariko diren lan horretan. «Nire faboritoak Jalabert, Rebellin, eta Vainsteins dira», esan du, eta «aditzera ona dut Vandenbroucke, Boogert eta Txemili buruz ere». Badira nahikoa aurkari, beraz. Horien artean, badaezpada, Igor Gonzalez de Galdeano ere aipatu behar da, Tirrenon oso taxuz ibili delako gasteiztarra. Bera izango da euskaldunen artean aukerarik gehiena duena.

Ibilbiderik ez da aldatu aurtengo: 294 kilometro izango dira Milango Piazza S.Ambrogiotik (9:20) San Remora (16:00ak aldera), eta usadioz Poggion (helmugatik sei kilometrora) erabaki behar litzateke proba.

## Garatek historia egin du Gorlan

X. U. / **Donostia**

IBERDROLA taldeko 22 urteko Juan Manuel Garate irundarra da Gorlako 25 igoeretan bi aldiz jarraian gailentzea lortu duen ziklista bakarra. Eskarmentuak zeresan handia izan zuen atzoko probaren bilakaeran, indarrez Koldo Gil (Banesto) eta Julian Sanchez (Tegui) izan baitziren indartsuenak, baina azken metroetako erasoaren ondorioz Garate, Gil eta Mikel Astarloza (Kaiku) izan ziren garaipenean nor baino nor aritu ziren bakarrak. Esprintean Garatek hartu zien aurrea Gili eta Astarlozari, baina igoerako denbora ez zen ona izan: 21' 11".

**1 Formula** Entrenamendu ez-ofizialak Montmelon

# Zirkuak 'glamour'-a galtzen duenean

*Eskuderietako pilotuek eta teknikoek barkardaderik handienean egin dituzte aste honetan lasterketa arteko probak, Montmeloko zirkuituan*

Laurentzi Garmendia / **Montmelo**

SARI NAGUSIKO asteburuak ezagunak dira gehienontzat, bere ikusgarritasun eta handitasunarekin. Autoen kolore biziak, ikusle kopuruak, kazetari eta argazkilari piloak, jende ezagunak eta 1 Formulak duen *glamour*-ak giro berezia sortzen dute. Gidariak festa horren protagonista sentitzen dira. Baina horren guztiaren atzean, lan jardunaldi luze eta neketsuak daude. Telebistarik gabe. Bakardadean.

Urtero gertatzen den bezala, Katalunia 1 Formula auto dentsitaterik handieneko lurraldea bilakatzen da. Bertan egiten dira denboraldia hasi aurretik hainbeste garrantzi duten probak. Denboraldia hasi eta gero ere jarraitzen dute proba hauek, lasterketan eginiko hutsak zuzentzeko. Sari nagusi baten itxura gutxi dute saio hauek. Zirkuitua, autoa eta gidari berak dira, baina hauez gain ezer gutxi topa daiteke.

Proba horietan 1 Formularen alderdi ezkutua azaleratzen da. Normalean gonbidatuentzat, eta etxe babesleek ezartzen dituzten kamioi ikusgarriak ez dira zirkuitura etorri, egun hauek ez baitira probetarako ez beste. Lan egiteko behar diren tresnak bakarrik ekarri dituzte, ahalik eta gauza gutxien garraituz. Horrela, 1 Formulak itxura oso tristea ematen du, lasterketetan ikus daitekeenetik urrun.

### Eskuderietako nagusiak ere falta dira

Ia esan daiteke ahaztuta daudela zirkuituan, inork ez dakiela han daudenik, eta inori ez zaiola axola ere. Eskuderietako nagusiak ere ez daude taldearekin, ez Alain Prost, ez Eddie Jordan, ez Jackie Stewart, ez Jean Todt. Taldeak bakarrik daude, eta lan egiteko bakarrik eraman dituzte hara. Ingeniariek izan ezik, zeinek lasterketa asteburu bat bailitzan lan egiten duten, inork ez du sari nagusi batean bezala lan egiten.

Gidariek ere bestelako lanean dihardute. Lasterketetako lana baino askoz ere gogorragoa eta neketsuagoa. Orain ez dira protagonistak, ingeniariek emandako aginduak isil-isilik eta eztabaidatu gabe betetzen dituzten morroiak dira. Goizeko bederatzietan hasi dira lanean, zirkuituari itzuli bat eman eta berriro boxera itzuliz, guztia ondo dagoela egiaztatzeko. Ondoren saio luzeagoa egin, eta berriro boxera. Ingeniarekin hitz egin eta autoari konfigurazioa aldatzen zaio, eta pistara ateratzen da beste behin. Horrela egun guztia.

Zirkuitua bera ia hila dago. FIAk probetarako ezartzen dituen segurtasun neurri minimoak betetzen ditu, baina minimo horiek oso gutxi dira. Zirkuituaren luzeran pista komisario batzuk daude, gertatzen denari jaramonik egin gabe. Gutxi dira, eta pista osoa ez dute ikusten. Istripurik gertatuko balitz, gidariak ez luke sari nagusi batean bezalako segurtasuna izango. Anbulantzia bera ere ez dago pistara azkar ateratzeko moduan, eta zauritutako gidari batek urrezko minutuak gal ditzake, zirkuituko zerbitzuek zaintza egokia eman arte. Horrelako proba batzuetan hil dira gidari batzuk, Elio di Angelis italiarra 1985ean bezala. Garai hartan bere taldekide zen Ayrton Sennak hitz gogorrak jaurti zituen zirkuituaren aurka, toki arriskutsu batean komisariorik ez zegoelako. Bere esanetan, komisarioen kokapen egokiarekin Elioren bizia salbatuko zuten.

### Minutu guztiak aprobetxatu beharra

Baina gidariek lanean segitzen dute. Argazkilari batzuk badaude, baina kazetaririk ez. Izan ere, gidariak ez dira hitz egitera etorri, eta ia ezinezkoa da hitzik ateratzea. Beraien erantzunetan nekea sumatzen da, proba guztiak amaitzeko gogoa. Ez zaie gustatzen hau, benetan gogorra delako. Bazkaldu ere gutxi egiten dute, taldeek zirkuituaren alokairua garesti ordaindu baitute, eta minutu guztiak aprobetxatu nahi dituztelako. Bederatzi ordu dituzte erabilgarri, eta tarte horretan gidariak lan tresna dira.

Proba hauetan irabazten dute soldata gidariek, irabazten duten guztia justifikatzerik ez badago ere. Lasterketa asteburuak presio gehiagorekin korritzen dituzte, gidariak etxe baten ordezkari direlako, eta haientzat korritu behar dutelako. Baina egun horiek gustuko dituzte, elkarren aurka lehiatzeak eta indarrak neurtzeak asko erakartzen baititu. Probetan, aldiz, beren aurka ari dira, taldeek saihestu egiten baitute beste taldea. Inoiz ez dira bi auto pistan elkarren parean, ahalik eta aldenduen doaz.

1 Formularen egoera limitea da. *Paddock*-ean gertatzen diren harreman komertzial eta elkarrizketa zeken bezain faltsuak desagertu dira guztiz. Ez dago manager harroputz eta dirudunik, ez musika izarrik. Soberan zuen guztia galdu du 1 Formulak, goitik beherako garbiketa jaso du. Proba hauek erakusten dute 1 Formula oraindik kirola ere badela, eta probarik gabeko sari nagusiko asteburuak *show* bat besterik ez liratekeela.




ANDREU DALMAU / EFE

**Australiako lasterketako irabazle Eddie Irvine Ferrariko gidari ipar irlandarra, aste honetan Ferrarik Montmelon egindako entrenamenduen atseden une batean.**

**1 Formula** Entrenamendu ez ofizialak Montmelon

# Gene: «Minardin ere puntako teknologia dago»

*Australiako eta Brasilgo sari nagusien arteko bost asteotan kilometroak pilatu nahi ditu gidari katalanak*

Laurentzi Garmendia / **Montmelo**




ANDREU DALMAU / EFE

**Marc Gene, Minardi eskuderiako pilotu katalana, asteazkenean Montmelon.**

MARC GENE pozik da 1 Formulan sartzeko aukera izan duelako: «Ez ahaztu, hemen alboan ditudan hogeita bat gidariak oso onak dira; munduko onenak», argitu digu piloto katalanak hizketan hasi bezain pronto.

Aste honetako lehen egunetan Montmeloko zirkuituan (Kataluina) aritu da Gene bere eskuderia Minardirekin probetan. Denboraldi honetan korritu den sari bakarra ez du bukatu, Australiakoa duela bi aste, baina eskuderiaren eta esponsorraren konfiantza dauka. Aurten ikastea beste helbururik ez diote jarri.

Beste taldeek probak hasi badituzte ere, Minardi taldearen autoak eskuderiaren kamioietan daude. Arratsaldean hasi dira boxak montatzen, biharamunerako guztia prest egon dadin. Bostak aldera Marc Gene kataluniarra agertu da, galtza urdin eta alkondara txuri batekin. Guztia berria da berarentzat: «Lasterketak, irteerak eta hori guztia kategoria txikiagoetan bezala da, berdin, baina boxetako geldialdiak, lasterketa luzeak eta autoaren konplexutasuna berriak dira niretzat».

### Munduko onenekin

Giroa ere berria da katalanarentzat, alde horretatik 1 Formulak txiki uzten baititu 3000 Formula eta Open Fortuna by Nissan kategoriak. «Guztia 'ponpoxoagoa' da, baina, besteak bezala, lasterketetako autoak dira, eta gidariak gizakiak dira, nahiz eta munduko gidaririk onenak diren». «Zergatik *dira* eta ez *gara*» galdetuta, erantzuna aldatu beste erremediorik ez zuen izan: «Beno, munduan dauden hogeita bi onenak *gara*... Hasieran Schumacher, Hakkinen eta beste guztiak jainkoen pare ikusten dituzu, baina gidariak dira», erantzun du irribarretsu jaiotzez katalana eta izatez katalanista den pilotuak.

Mutil apala da, hitz egitea gustuko duena. Luze erantzuten du, baina ideiak argi ditu eta oso modu garbi eta egituratuan hitz egiten du: «Kirol hau automobilismoaren maila gorena da, ez dago hau baino gehiago denik. Perfekzioa azken muturreraino eramatea da, eta ez bakarrik teknologia mailan: antolakuntza mailan ere munduan aitzindaria da».

Inork baino gehiago, Marcek berak onartzen du ikasten ari dela, eta oraindik ez dagoela besteen mailan. Horregatik autoarekin kilometroak osatzea da berak gehien nahi duena. «Ematen dudan itzuli bakoitzeko hobeto noala nabari dut, eta horixe da orain egin beharrekoa: itzuliak ematen eta esperientzia pilatzen jarraitu, ikasketa kurba deitzen dena oso luzea delako 1 Formulan». Autoa ahalik eta hobekien ezagutu nahi du, mederatzera iristeko. «Niretzat garrantzia handiagoa du kilometroak osatzeak zirkuituak ezagutzeak baino», zehaztu du.

### Minardin pozik

Minardirekin hasi aurretik, Genek gertu samarretik ezagutzen zuen 1 Formula. Jordi anaia Benettonekin sinatzear izan zen, baina orduan ez zuen Telefonica bezalako babesle baten laguntzarik jaso. Pozik da Minardik eskaintzen dionarekin: «Puntako teknologia ez dago McLaren eta Ferrarin bakarrik. Minardik ez darama horrenbeste denbora kasualitate hutsez, baizik eta lan handia eginda».

Denboraldi hau oso zaila izango da katalanarentzat. Izan ere, nahiz eta oso gidari ona izan, Minardi autoak ez du aurreko postuetara eramango. Oso gidari gutxik iraun du denboraldi bat baino gehiago Minardin: azken sei urteetan, hamabi gidarik korritu dute Italiako eskuderian. Halere, badu esperantza: Fisichellak eta Trullik Minardirekin hasi zuten beren 1 Formula karrera. Genek badaki garrantzitsuena *egotea* dela, eta bera *badago*.

### Montmelo, zirkuiturik erabiliena

Mediterraneo inguruetako eguraldiarengatik eta duen alokairu prezio lehiakorrarengatik aurredenboraldian eskuderia guztiek (ez pilotu guztiek) erabili duten zirkuitu bakarra da Montmelo. Jerez, Silverstone, Magny-Cours, Fiorano, Mugello eta Kyalami zirkuituetan ere ibili dira. Irvine, Zonta eta Martinez de la Rosa dira Montmelotik aurredenboraldian pasatu ez ziren gidari bakarrak. Harrigarria bada ere, Trulli izan zen azkarrena.

### Denboraldian 50 proba-egun gehienez

Eskuderia aberatsek pobreen aurrean demasako abantailarik izan ez dezaten, urtean 50 proba-egun egin ditzake eskuderia bakoitzak gehienez. Muga hori dela-eta eskuderiak goiz hasten dira lanean, eta berandu bukatzen. Horregatik da garrantzitsua pilotuak proba egunetan ez entretenitzea eta eguna ondo *zukutzea*.

### Asteon Montmelon eta Silverstonen

Bost asteko geldialdia dago programatuta Australia eta Brasilgo sarien artean. Tarte luze horretan autoen hobekuntzan aurrera egiteko, aste honetan Montmelon (Ferrari, Sauber, Jordan, Minardi, Prost eta Stewart) eta Silverstonen (McLaren, Benetton, BAR eta Arrows) jardun dute lanean eskuderiek.

### Dena probatzen dute gidariek eta taldeak

Lasterketa arteko proba hauetan denetarik egin behar izaten dute pilotuek eta teknikoek. Batean gurpil aldaketak egiten dituzte eten gabe, sartu eta irten taldea trebatzeko. Bestean irteera probak egiten dituzte, pilotuak berak bakarrik etengabe errepikatzen ditu irteera saioak, benetako lasterketaren irteerarako erreflexuak lantzeko. Eta, bide batez, Schumacherrek iaz Japonian eta aurten Australian egin bezala, motorra ez kalatzeko.

**Errugbia** ◆ V Nazioetako laugarren jardunaldia: Ingalaterra-Frantzia eta Eskozia-Irlanda

# Lau urteotako sutsuena

*Azkeneko hiru neurketetan Frantzia gailendu zaio Ingalaterrari*

Koldo Alduntzin / **Donostia**

INGALATERRA azken hiru urteotako arantza kentzeko irrika bizian zelairatuko da gaur Londresko Twickenham zelaian (F2, 15:30), Frantziak mendean hartu baitu. Horrez gain, Munduko Kopara bietako zein helduko den indartsuena ere jokoan izango dute. Ingelesek bi partida jokatu dituzte orain arte. Eskoziaren kontra ez zuen neurria eman, 24-21 irabazi arren. Irlandaren aurka sendoago jokatu zuen, eta 15-27 gailendu zen.

Frantziak, aldiz, merezi ez zuen garaipena lortu zuen Irlandaren kontra: 9-10. Bigarren partidan hondamendia egin zuen, Galesen kontra 33-34 galdu baitzuen, eta jarraian hirugarren Grand Slama irabazteko aukera galdu zuen. Hortaz, Frantziak ere badu arantza kentzeko gogoa, eta zauria sendatzeko asmoz zelairatuko da.

Iaz 24-17 irabazi zuen Frantziak, atsedenera 15-3 heldu ondoren. Frantziarrek bi entsegu egin zituzten, eta horietako bat Bernat-Sallesek, Skrelak ez du Miarritzeko jokalaria deialdian sartu. Ingalaterrak entsegu bat egin zuen, Graysonek 12 puntu egin zituen jaurtiketetan; gaur ez da ariko. Bigarren zatian 18-14 hurbildu ziren ingelesak. Nolanahi ere, iazko 7 jokalari ariko dira Frantzian gaur, eta 9 Ingalaterran. Ingelesek, hala ere, aurrelari multzo osoa errepikatuko dute, bi izan ezik.

Hain zuzen ere, multzo horrekin jardungo du gaur tinko, batez ere hirugarren lerroarekin. Baloiak lortzeko ahalmena, defentsa hautsiezina eta hankako joko zehatza da ingelesen joko-ardatza. Eskasetarako lau saltokari, uztartze sendoa eta antolakuntza ona dute Arrosakoek. Frantziak ahul jardun du defentsan.

**Ingalaterra:** Leonard-Cockerill-Garforth, Johnson-Rodber, Hill-Dallaglio (kap.)-Back, Bracken-Catt, Luger, Guscott, Wilkinson, Rees eta Perry. **Frantzia:** Marconnet-Ibañez (kap.)-Tournaire, Pelous-Brozet, Th. Lievremont-Juillet-Castel, Carbonneau-Castaignede, Lombard, Comba, Giordani, Garbajosa eta NTamack.



P. GUTIERREZ / EFE

**Miarritzen jokatzen duen Bernat-Salles, iaz, Ingalaterraren kontra entsegua egiten. Gaur ez da ariko.**

**Azken 12 urteak**

| | |
|---|---|
| 1987 | Ingalaterra-**Frantzia**: 15-19 |
| 1988 | **Frantzia**-Ingalaterra: 10-9 |
| 1989 | **Ingalaterra**-Frantzia: 11-0 |
| 1990 | Frantzia-**Ingalaterra**: 7-26 |
| 1991 | **Ingalaterra**-Frantzia: 21-19 |
| 1992 | Frantzia-**Ingalaterra**: 13-31 |
| 1993 | **Ingalaterra**-Frantzia: 16-15 |
| 1994 | Frantzia-**Ingalaterra**: 14-18 |
| 1995 | **Ingalaterra**-Frantzia: 31-10 |
| 1996 | **Frantzia**-Ingalaterra: 15-12 |
| 1997 | Ingalaterra-**Frantzia**: 20-23 |
| 1998 | **Frantzia**-Ingalaterra: 24-17 |

## Zakurra eta erbia bezala

K. Alduntzin / **Donostia**

IRLANDA azken postuan sailkatu da azken hiru torneoetan, eta horixe gerta ez dadin biziki saiatuko da gaur Eskoziaren kontra Murrayfielden (F2, 17:30). Irlandarrek aurtengo ekitaldiaren azken norgehiagoka izango dute. Frantziaren kontra 9-10 galdu zuen, Galesi 23-29 irabazi zion eta Ingalaterraren kontra 15-27 galdu zuen. Beraz, zurezko koilara Galesen lortu zuen saihestea.

Taulari begiratuta, izugarrizkoa da Eskoziak 10 urteotan lortu duen aldea, bederatzi partida irabazi baitizkio Irlandari, eta behin 6-6 berdindu zuten. Irlandak ez du azken 10 urteotan torneorik irabazi, eta Eskoziak behin (1990). Iaz Dublingo Lansdowne Roaden jokatu zuten, eta beste behin, 16-17 gailendu zen Eskozia, atsedenera 11-10 heldu ondoren. Entsegu bana egin zuten; Eskoziarena Taitek egin zuen, eta gaur ere ariko da. Eskoziarrek jaurtiketetan erabaki zuten garaipena.

Hala ere, Irlandak hobeto dihardu aurten, eta pentsatzekoa da aurrean ez duela izango Ingalaterraren kontra hainbat arazo. Eskoziak 33-20 irabazi zion Galesi eta soilik hiru puntugatik galdu zuen Ingalaterran: 24-21. Bistan da partida osoan zakurra eta erbia bezala ibiliko direla, eta baloia alde batetik bestera erabiliko dutela. Huts gutxien egiten duena gailenduko da. Erabakigarria gerta daiteke jaurtitzaileen lana, zigor kolpe asko eragingo dutelako partidan zehar. Arlo horretan Humphreys irlandarra gailen daiteke.

**Eskozia:** Smith-Bulloch-Burnell, S. Murray-Grimes, Walton-Peters-M. Leslie, Armstrong-Townsend, Logan, J. Leslie, Tait, C. Murray eta Metcalfe. **Irlanda:** Clohessy-Wood-Wallace, Johns-Davidson, O'Cuinneagain-Miller-Ward, McGuinness-Humphreys, Dempsey, Bell, Maggs, Bishop eta O'Shea.

**Azken 10 urteak**

| | |
|---|---|
| 1989 | **Eskozia**-Irlanda: 37-21 |
| 1990 | Irlanda-**Eskozia**: 10-13 |
| 1991 | **Eskozia**-Irlanda: 28-25 |
| 1992 | Irlanda-**Eskozia**: 10-18 |
| 1993 | **Eskozia**-Irlanda: 15-3 |
| 1994 | Irlanda-Eskozia: 6-6 |
| 1995 | **Eskozia**-Irlanda: 26-13 |
| 1996 | Irlanda-**Eskozia**: 10-16 |
| 1997 | **Eskozia**-Irlanda: 38-10 |
| 1998 | Irlanda-**Eskozia**: 16-17 |

## Getxo Artea garaipenaren bolada ez eteteko asmoarekin

K. Alduntzin / **Donostia**

ERRESKADAN bi garaipen lortuta, Getxo Arteak Ohorezko Mailako 15. jardunaldiari ekingo dio gaur Sevillan, Universidad de Sevillaren kontra (La Cartuja, 15:30). Behera ez jaisteko lehian oraindik, pittin bat lasaixeago bada ere, getxotarrek bi puntu eskuratzeko beste aukeratxo bat dute. Gogoratu behar da orain dela bi jardunaldi lortu zutela etxetik kanpoko lehen garaipena Valladoliden.

Nolanahi ere, sevillarrak uste baino kontrario bihurriagoak gerta dakizkioke Getxori, haiek ere azken bi partidak irabazi egin dituztelako Canoeren kontra eta El Monteren kontra: 19-27, sevillarren arteko derbian. Gainera, El Monte sailkapeneko bigarren postuan da. Getxo 8. postuan da (10 puntu) eta Universidad 10. da (8 puntu).

Bien arteko alde nagusia defentsan datza, Getxori 149 tanto gehiago egin baitizkiote. Sevillarrek Generaliferi, Canoeri eta Valenciari irabazi diete etxean. Joaneko partidan, Getxo 26-25 gailendu zitzaion Universidad taldeari. Liceoren kontra bigarren zatian erabaki zuten bizkaitarrek, aurrelariek eginiko lanari esker. Multzo horretan Iñigo Castro harroina da duda bakarra. Sevillarren hasierako txanpari gogor eutsi beharko dio Getxok.

### Gaur, Ordizia-Bera, indarrak neurtzeko

Lehen Maila Bereziko bigarren derbia jokatuko dute Ordiziak eta Bera-Berak (Trevijano, 17:00). Joanekoan donostiarrak gailendu ziren: 21-3. Partida gogorra izan zen, eta aurrelarien lanari esker nagusitu zen Bera-Bera. Hura izan zen donostiarrek lortutako garaipen bakarra.

Ordizia ere garaipen batekin dago sailkapeneko azken postuan, donostiarrekin batera. Coruñako Crat Xestur hartu zuten mendean Goierrikoek. Ordiziak eraso zein defentsa hobea erakutsi du (60 tanto). Aurrelarien arteko lehian egongo da gakoa.

**Pilota** ◆ 22-18 irabazi zuten atzo Ariznabarreta-Arretxeren kontrako finalerdia

# Txapeldunordeak sasoiko

*Berasaluze VIII.a-Beloki dira Balmasedako Torneoko lehen finalistak*

Enekoitz Telleria / **Donostia**

JENDETZA bildu zen atzo Balmasedako frontoian herriaren VIII. mendeurrena ospatzeko antolatu duten torneoko lehenengo finalerdiaz gozatzeko. Maila handiko partidua zen. Berasaluze VIII.a-Beloki Euskal Herriko eskuz binakako txapeldunordeak Ariznabarreta-Arretxeren kontra.

Ordubete aritu ziren pilotan, eta Berasaluze-Belokirentzat izan zen garaipena 22-18. Kosta zitzaion Belokiri jokoan sartzea, eta 3na berdindu ostean 4-10 ere joan ziren aurretik Ariznabarreta eta Arrexe. Luzaideko atzelariak partidu hasiera oso ona egin zuen, eta ederki lagundu zion Karmelok ere. Beloki jokoan sartzearekin bat, ordea, 10-11 hurbildu ziren gorriak. Gorabehera handiak izan zituen markagailuak hortik aurrera: 13-12, 13-14, 16-14 eta 16-17 aurreratu ziren Ariznabarreta eta Arretxe, baina Rubenen pilotakadek erabaki zuten, beste behin. 20-17 aurreratu ziren gorriak, eta 22-18 irabazi. Berasaluzek ere partidu serioa egin zuen, nahiz eta izan zuen aukerarik gehiago egiteko ere.




EDURNE KOCH

**Pablo Berasaluze pilota astintzen, Ruben Beloki atzean begira duela.**

### Gaur beste finalerdia

Inaxio Errandonearen eta Mikel Unanueren azken orduko bajek hankaz gora utzi dute gaur jokatuko den finalerdia. Alustizarekin zen Errandonea jokatzekoa, baina eskuetako arazoengatik ez jokatzea erabaki du Berakoak. Unanuek, berriz, Errastirekin jokatu behar zuen, baina ukalondoan dituen arazoengatik ez du jokatuko. Gauzak horrela, Alustiza eta Errasti elkarrekin jartzea erabaki du enpresak, eta beste bikote bat sortzea horiei aurka egiteko: Juantxo Kokak eta Karlos Armendarizek osatutakoa. Azken bikote horrek joan den larunbatean Atano III.ean Euskal Herriko txapelketako finalaren aurreko partidua jokatu zuten elkarrekin. 22-17 irabazi zuten orduan Agirre-Errastiren kontra. Jaialdi hartako partidu berbera da kasik, baina Alustiza segurarra ariko da gaur aurreko koadroetan Azkoitiko atzelariarekin. Zesta partidu batekin amaituko da jaialdia: Uriarte-Castro eta Konpa-Barrondo. Ederra.

**gaurko partiduak**

**BALMASEDA. 17:30 (Tele 5)**
• **Torneoko finalerdia:** Alustiza-Errasti / Koka-Armendariz • Zesta: Uriarte-Castro / Konpa-Aranburu.

**EZCARAY. 18:00**
• Goñi I.a-Alberdi III.a / Gabarri I.a-Matute III.a • Titin III.a-Santi / Capellan-Zezeaga.

**ARAMAIO. 22:30**
• Telletxea-Oregi / Esnal-Astarloa

**GALARRETA. 16:00**
• Agirresarobe-Aizpuru II.a / Bereziartua-Badiola • Ezkurra-Lizaso / M.Lekunberri-Altuna I.a-Aizpuru • Matxin-Etxabe / Zeberio II.-Auzmendi • Zeberio I.-Mendizabal / Sarasua-Imaz

**EUSKAL. 16:00**
• Iribarren-Reklusa / Zeberio III.a-Iturralde • Altuna II.a-Iriarte / Elizalde-Eizagirre • Urretabizkaia I.a-Urretabizkaia II.a / Lezea-Zubeldia • Kalonge-Urko / Iñigo-Amenabar.

**DEPORTIVO. 17:00**
• Zesta: Bereikua-Goitia / Egiguren II.a-Enbil • Insausti-Ibarra / Sanchez-Torre • Unda I.a-Beldarrain / Ziskar II.a-Arzelus.

## txokoan

### Desenpatea behartu dute Daniel-Garridok

45-26 irabazi zuten atzo Daniel-Garrido errioxarrek Iriondo-Rekalderen kontra, eta, horrenbestez, desenpateko partidua jokatuko dute datorren ostegunean. Euskal Herriko pala txapelketako finalean aritzeko bigarren txartela dago jokoan .

### Irabaziz esan du agur Irazolak

18 urteren ostean, atzo jokatu zuen Juan Luis Irazolak profesionaletako bere azken partidua, Eibarren. 22-17 nagusitu zen Milikuarekin Berasaluze VII.a-Cerroren kontra, eta garaipen batekin esan du agur Apatamonasteriokoak. Jaialdiko bigarrena Etxaniz-Sukiak irabazi zuten 22-14 Atxa-Galarza III.aren kontra, 800 pilotakada baino gehiago eman ostean. Bigarren mailako manomanista profesionalean, Apeztegia nagusitu zitzaion Arroyo II.ari 12-22.

### Behar Zana nagusi Kluben Ligako joko garbi modalitatean

Kadete, jubenil eta senior mailako partiduak irabazi zituen atzo Billabonako Behar Zana klubak, herrian bertan jokatu joko garbi modalitateko finaletan. Gaur jokatuko dira Euskal Herriko Kluben Ligako zestapuntako eta erremonteko finalak Markinan, eta ETB1ek emango ditu zuzenean senior mailakoak. 17:15etan hasiko da jaialdia. Gasteiz eta Zumaiakok jokatuko dute zestapuntako finala jubeniletan, Behar Zanak (Billabona) eta Gaztelekuk (Andoain) erremonteko senior mailakoa, eta Zidorra (Gasteiz) eta Kostakoak (Bidart) zestapuntako senior mailakoa.

### Hirukoa Euskalen eta Zeberio-Etxabe Galarretan

Imanol Altunak partidu ederra jokatu zuen arren, ezin izan zuen atzo irabazi Euskalen Eizagirrerekin M. Lekunberri-Elizalde-Aizpururen kontra . Ez dago bere mailarik onenean Eizagirre, eta nabaritu zen hori atzo. Elizalde izan zen hirukoan jokalari onena, eta zazpi tanto egin zituen sakearekin Aizpuruk. 35-40 bukatu zen partidua. Galarretan, Zeberio II.a-Etxabe nagusitu ziren Altuna II.a-Iriarteren kontra (40-32)

## laburrean

ERRUGBIA

### ■ Otagok lehen postuari eusteko aukera du gaur Super 12an

LAUGARREN jardunaldiko hiru partida jokatuko dira Hego Hemisferioko Super 12 Txapelketan. Otago (Z.B.) lider da hiru partidak irabazita (14 puntu). 18 entsegu egin ditu, eta tanto gehien egin duena da (130). Golden Cats (H.A.) izango du kontrario. Beste bi partidak: New South Wales (Aus.)-Blue Bulls (H.A.) eta Auckland (Z.B.)-Queensland (Aus.) izango dira

### ■ Emakumezkoen Euskadik lagunarteko partida jokatuko du

ESPAINIAKO Autonomien Arteko Txapelketa prestatzeko partida jokatuko du gaur Euskadik. Armagnac-Bigorreren kontra ariko da Lakuan (Gasteiz). 5:30etan hasiko da lehia, eta Olatz Fernandez, Eider eta Oiana Barrena, Idoia Salazar, Delia Moreno, Ainhoa Fernandez eta Nerea Lasa faltako dira, Espainiarekin baitira. Orain dela gutxi elkarren kontra aritu ziren eta Euskadi erraz gailendu zen.

SASKIBALOIA

### ■ Clevelanden talde lanak apurtu zuen Lakers

SHAQUILLE O`NEAL-EK lortutako 37 puntuak eta 19 erreboteak ez ziren nahikoak izan Cleveland Cavaliers garaitzeko, eta 100-93 galdu zuen Lakersek. Talde lana izan zen Clevelandekoen gakoa. 20 puntu lortu zituen Brevin Knightek, beste 20 Shawn Kempek, eta hiru hiruko eta sei asistentzia egin zituen Wesley Personek. Utah Jazzek ere bere boladа onari eusten dio eta 87-95 irabazi zuen Washingtonen kontra Karl Malonen beste partidu ikusgarri bati esker. Chicago Bullsek ere irabazi egin zuen, aspaldiko partez, New Jersey Netsen kontra 104-95, baina azkena jarraitzen du Ekialdeko Konferentzian.

# Andolin Eguzkitza

• EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA •

■■■ Euskal idazleen ordezkari nagusia izaki, idazle kezkak gainditzen dituzten buruhausteak ditu kontuan Eguzkitzak. ■■■ Bere ustez, betiko erronkak berri batzuekin nabarmendu behar dira. ■■■ Gaur zortzi egin zen EIEren urteroko biltzar nagusia, Uztaritzen. ■■■ Biltzar horretan zenbait balorazio baikorretarako bideak ireki diren arren, Eguzkitzaren ustez bada autokritikaren beharrik ere idazleen artean.

## *«Euskaldun jendeak ez du oraindik sinesten idazleongan»*

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAK (EIE) egindako biltzar nagusiaren ajea erabat gainditua izango duelakoan, presazkoa ez den balorazio bat eskatu diogu bertako lehendakariari.

■ **Nola laburbilduko zenuke duela astebete egin zenuten biltzar nagusiaren mamia?**

Gauzak espero bezala joan zitzaizkigun. Aipagarria da lehenengo biderrez Iparraldean egin dugula biltzarra, eta hori ongi dago. Ezaugarri ezkor moduan, nire ustez, gure kolektiboan batzuetan gauzak egiteko dagoen joera makala aipa daiteke. Duela astebete 38 bazkide besterik ez ginen izan Uztaritzen, eta 215 bazkide gara. Idazle jendeak oraindik ez du behar lukeen postua euskal gizartean, eta inhibizio ia erabatekoaz jokatuz nik uste dut ez direla gauzak hobetuko.

■ **Biltzarrean hobetu beharreko beste gauza batzuk ere aipatu ziren...**

Bai. Duela gutxi Ikas eta EKE erakundeekin hitzarmen bana sinatu genuen, esate baterako, baina Emilio Lopez Adan *Beltza*-k biltzarrean esan zuenez, Hegoaldean diputazio eta bestelako erakundeekin harremanak ditugun neurri berean, Ipar Euskal Herriko erakunde politikoekin ere harremanetan sartu behar genuke. Guztiz egokitzat jotzen dudan puntu bat da.

■ **Hegoaldean ere baduzue hobetu beharreko harreman ofizialik, ezta?**

Hala da. Beldurrik gabe esan behar da pertsonalki ez dugula inongo arazorik zenbait erakunderekin harremanetan egoteko, baina harreman horiek ofizialtzeko orduan...

Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikako jendearekin, esate baterako, bilerrak egin izan ditugu, ederki asko gainera, baina hortik gora ez dugu ezer lortu, ezta hezkuntza arloan ere.



XOUSE SIMAL

**Literatura telebistan**

*«Saiatu gara ETBn saio bat lortzen, eta oraindik ez dugu lortu, baina ez dugu esperantzarik galdu. Munduko herri zibilizatu guztietan lortzen den gauza bat da...»*

EAEko foru aldundien kasuan, Gipuzkoakoarekin harreman ona dugu; Arabakoarekin, gutxiago; eta, Bizkaikoarekin, ez daukagu.

■ **Zeu bizkaitarra zaitugu. Nola ulertzen duzu harreman ez hori?**

Saio batzuk egin ziren, baina ez dugu laguntzarik lortu, arrazoi burokratikoengatik, nire ustez. Datozen hilabeteotan, hauteskundeekin-eta, egoera aldatuko dela uste dut. Hala ere, ulergaitza dela uste dut. Bizkaiko Diputazioak harreman sendoagoa eduki behar luke gurekin.

■ **Bazkide kopurua bikoiztea helburu bilakatu duzue, gainera...**

Kontua da idazleen elkarte batek bere barruan ez dauzkala sorkuntzazko literatura egiten duten idazleak bakarrik, nahiz eta eurak izan autonomasiaz idazletzat jotzen ditugunak. Kazetariak ere EIEn sar daitezke.

■ **Euskal idazle gutxi dago literatura hutsetik bizi dena. Agian, horregatik jarri dituzue abian literatura lantegiak?**

Hain zuzen ere, hori da kontua. Elkartearen muina euskal gizartean guztiz normalizatua balego, sindikatu moduko zerbait litzateke, baina guk idazleen interesak modu horretan ere defenditzen ditugu, eskola egitarauaren bidez, literatur lantegien bidez, mintzaldiak sortaraziz... Ildo horretan, elkarteak badu beste funtzio bat: kultur eragile izatea.

■ **EIEko bazkide Marijo Olaziregiren ustez, horrelako egitarauak ez dira nahikoa irakurzaletasuna bultzatzeko...**

Zalantzarik gabe. Biltzar nagusian atera genituen gaietako bat hori da. Orain arte 3 literatur irratsaio ematea lortu dugu: Ipar Euskal Herriko hiru irratien artean ematen dutena bat; Euskadi Irratian Jon Alonsok eta Fermin Erbitik egiten dutena; eta Gipuzkoan eta Araban bakarrik entzun daitekeen Herri Irratiko saioa. Azken hori elkarteak berak antolatzen du, Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz.

Saiatu gara ETBn saio bat lortzen, eta oraindik ez dugu lortu, baina ez dugu esperantzarik galdu. Munduko herri zibilizatu guztietan lortzen den gauza bat da.

Gure egoera soziolinguistikoarengatik, euskaldun jendeak oraindik ez du sinesten idazleongan, eta hori da aldatu behar duguna. Duela egun batzuk ETBren inguruan hainbat kazetarik eta kultur munduko hainbat partaidek plazaratu zuten artikuluan esaten zen bezala, kultur politika ezin da arrazoi ekonomikoen bidez zuzendu.

■ **Gure arteko literatur taldeek gero eta solasaldi gehiago antolatzen dute idazleekin. Taldeokin harremanak estutzeko asmorik ba al duzue?**

Hori da, hain zuzen ere, egin behar ditugun gauzetako bat: *Idazleekin solasean* egitaraua literatur taldeetara zabaltzea, eurekin harremanak estutuz eta aukerak zabalduz.

*Amagoia Iban*
DONOSTIA

**Artea** P.S.1 museoa, aldaketaren aldeko guneen adibide

# Abangoardia Manhattandik ihesi

Manhattango alokairuen igoera neurrigabeak Brooklyn eta Queens aldera bideratu ditu azken boladan bertako artista eta erakusketarik berritzaileenak.

Lehenbizi Soho eta Chelseako biltegiak izan ziren galerien babesleku. Aspaldi bihurtu zen ohiko artisten tailerrak East River ibaiaren ertzeko haragibiltegiekin elkarbizitzen ikustea: eskulturak, arkume txuletekin nahasian. Azken urteotan, ordea, arte abangoardistak Manhattango irla samaldan utzi du, ibaiaren bestalderantz, Brooklyn eta Queens auzoetarantz ihesi.

Williamsburg edo Long Island City auzuneetan —metroz Manhattandik oso minutu gutxira—, arte modernoak ultramodernoa besarkatzen du, Sohoko galerietako proposamen komertzialegietatik ihesi. *P.S.1 Arte Garaikidearen Gunea* da abangoardiak East River ibaiaren bestaldean hautatu duen exilioaren adibiderik garbiena. 1971. urtean sortua, hasiera batean Arte Eskola Publikoa izan zen, gizarteko maila ekonomiko apalenetako ikasleak izaki, batez ere, bertako ikasle. Geroago, porrot egindako enpresen pabilioiak eta eraikuntza abandonatuak erakusketa, performance eta lanerako gune bihurtzeko prozesuen sustatzaile izatera bideratu zen PS1 zentroaren ahalegina. Gaur egun ere, hamazazpi artistak dituzte bertan beren tailerrak (sei amerikarrak eta gainerakoak munduko hamaika herrialde ezberdinetako ordezkariak —kataluniar, bat, tartean—). Estudio bana uzten diete urtebetez, beren proiektuak garatzeko xedez.

### *Txoriak ere artista*

PS1 guneak martxoko egitarauaren barruan eskaintzen duen lanik interesgarrienetakoa Boursier Mougenot frantziarraren soinu instalazio bat da (*From Here to Ear* izenekoa): gela handi batean, sapaitik bata besteari kateaturik zintzilikaturiko metalezko ehunka pertxak osatzen dute artelana. Metalezko oihana sortzen duten pertxen artean bi dozena txori inguruk dituzte beren kabiak: txoriak pertxa batetik bestera dabiltzan heinean, pausalekutzat hartzen dituzten metalezko pertxek elkar ukitzen dute. Mugimendu horretatik sortzen diren doinuek harpa metaliko batenak gogorarazten dizkigute, pertxa oihanaren erdian kokaturiko mikrofonoek anplifikaturik. Txorien arteko liskar, ika-mika eta hegan egiteko gogoen araberakoa izango da pertxa oihanaren dantza etengabeak sorturiko musika. Pertxa oihanaren erdian sabaitik zintzilik jarritako plateretan haziak jartzen dituzte goizero, txorien elikagai. Haziak eta hazien azalak lurrera erori ahala —eta pertxa oihanaren pean ezarritako lur eremuari esker— belarra haziz joango da lurrean, instalazioa biribilduz eta egunetik egunera aldatuaraziz, Txoriek nahigabe ereindako haziei esker.

### *Hip-hop doinuak*

Erakusketako bigarren solairuan, Amsterdam Hotel izeneko gelan, DJ bat jo eta su ari da hotel bateko gelaren modura itxuraldatua dagoen espazioan hip-hop musika jartzen. Andy Warholen koadroren batetik atereak diruditen bi emakume dantzan eta erretzen ari dira ohearen inguruan. Ikuslea bera ere, artelanaren parte bihurtzen da ohartu denerako, dantzarik egiten ez duen zozoaren papera jokatuz.

Julian Schnabel bezalako izen ezagunen lanak ikusgai egon arren, PS1 zentroak erakusten dituen lan gehienak, arte munduan ezagunak izan arren, publiko orokorrarentzat ezezagunak diren artistenak dira. Minimalismoak eta arte kontzeptualak ere badute beren lekua. Txorien instalazioak baino zalantza gehiago sortzen du ikusleengan Olaf Nikolairen *Greenbag* instalazioak, kasu baterako: garo belarrez betetako plastikozko zabor poltsa bat dago gela hutsean. Hemen ederrena, akaso, zabor poltsa urrunetik begiratu ondoren barruan zer ote dagoen begiratzera inguratzen direnek jartzen duten aurpegi existentzialista ezberdinen segida aztertzean datza. Hurrengo areto batean, Steven Pippinen *Laundromat Locomotion* obra dugu ikusgai: labanderia amerikar bateko garbigailuaren barrutik zentrifugatua bukatu zain dagoen gizasemearen ikuspegia azaltzen zaigu erretrato ezberdinetan, garbigailua mintzo. Gure tresneriaren arima ezagutu eta ulertzeko ahalegin bat dateke.

**Harkaitz Cano**
NEW YORK



P.S.1 gunean *Inside Out: New Chinese Art* erakusketa zabaldu zen urtarrilaren 3an. Alboan, erakusketa horretan ikusgai den Wu Tien-chang artistaren *A Dream of Spring Night* lana.

**Aukeran**

*P.S.1 guneak martxoan eskaintzen duen lanik interesgarrienetako bat Boursier Mougenoten 'From Here to Ear' soinu instalazioa da*

## Ezohiko museo baten komeriak

PS1 ez da ohiko museoa. Solairu batetik bestera propio galtzeko prestatua, ez da erraza bisitariarentzat non zer dagoen asmatzea. Areto batetik besterako bidea ez dago ondo adierazia. Ez da museo garbi eta ordenatua. Duela aste gutxi, MOMA, New Yorkeko Arte Garaikidearen museoarekin sinatu duen akordioak diru iturri gehigarriak ekar diezazkioke proiektu berrietarako. Dena den, ez daude denak ados akordio honekin, itunak PS1en independentzia baldintza dezakeela uste baitu zenbaitek (PS1en sarreran ordaindu beharrekoa norbere borondatearen arabera dago, MOMAra sartzeko zortzi dolar ordaindu behar diren bitartean). Akordio honekin zirkuitu komertzialetan sartu eta PS1ak bere xarma gal dezakeelakoan daude zenbait ahots kritiko.

Sistemak irensten duen unean uzten baitio abangoardiak abangoardia izateari. Dagoeneko PS1 museoari izena aldatuko ote dioteneko zurrumurrua ere zabaldu da: PS1-MOMA izan daiteke izen berria.

## Josetxo Goia-Aribe saxofoi jole nafarrak Bilboko Kafe Antzokian joko du gaur

■ *'Auñamendi' diskoko konposizioak eskainiko ditu Parisko musikariekin*

Erredakzioa / **Donostia**

JOSETXO GOIA-ARIBE saxofoi jole nafarrak lehen aldiz joko du gaur Bilboko Kafe Antzokian. Parisen ikasten ari zela ezagututako hiru musikarirekin ariko da Goia-Aribe: Jerome Rateau (pianoa), Marc Buronfosse (kontrabaxua) eta François Verly (perkusioa). Laurok osatzen dute Josetxo Goia-Aribe Ensemble taldea.

*Auñamendi* (Tx) diskoko konposizioek osatuko dute gaurko kontzertuaren bizkarrezurra, baina baliteke zenbait pieza berri ere entzuteko aukera izatea. Euskal musika tradizionala —kantuak eta dantzarako piezak— da Goia-Ariberen obraren oinarria, eta haren gainean garatzen du musikari nafarrak bat-batekotasuna eta irudimena lantzeko gaitasuna.

Datorren aste osoan Madrilgo Cafe Central aretoan (jazz musikaren garrantzitsuenetakoa) joko du Josetxo Goia-Aribe Ensemble taldeak.

# Euskal kantuen bertsioen diskoa prestatzen ari da Betagarri

*'80/00' lanak azken hogei urteetako abestien moldaketak eskainiko ditu*

Luis Karlos Garcia / **Gasteiz**

**Euskal Herriko musikak azken hogei urteotan eskainitako hogei kanturen bertsioen diskoa prestatzen ari da Betagarri taldea. Adibidez, Ruper Ordorikaren *Furgoi beltza* eta Itoizen *Lo egin* abestiak moldatuko dituzte urtearen hondarrean plazaratuko den *80/00* lanean.**



JOSEBA OLALDE

**Betagarri taldeak Durangoko Azokarako atera nahi du diskoa.**

**'80/00'**

■■■ Hogei talderen bertsioak egingo ditu Betagarrik. Besteak beste, Ruper Ordorikaren 'Furgoi beltza', Itoizen 'Lo egin' eta Potatoren 'Kuiki' izango dira diskoan. Beste asko zehazteke dira oraindik.

BERTSIOEN disko gehiago, baina oraingo honetan ezohiko planteamendu ausartak dakar, eta ez proiektu mota hauek ohi duten negozio ikuspegi hutsak. Izan ere, Betagarriko kideek iragan Gabonetatik lanean dihardute Durangoko Azokaren aurtengo ekitaldian, euskal talde nahiz kantarien abestien hogei bertsioko diskoa aurkezteko asmoz. Hasieran 40 kanturekin lan egin zuten, gaur egun 25 abestirekin dabiltza, baina helburua da diskoak 20 bertsio biltzea.

Gaur egun ziur dutena da hogei taldeen zerrenda, oraindik ez baitute argi bakoitzaren zein kantu moldatu. Esaterako, Ruper Ordorikaren *Furgoi beltza* pieza historikoaren bertsioa eskainiko dute, eta, halaber, Potatoren *Kuiki*, Virus de Rebelionen *Díme tu* eta Itoizen *Lo egin*.

Bestalde, Negu Gorriak taldearen abestia ez dute oraindik hautatu, ezta Barricada eta Su ta Gar taldeenak ere. Era berean, hasiera batean Hertzainak taldearen *Arraultz bat pinu batean* moldatzea pentsatu zuten, baina orain beste batekin ari dira lanean.

### Kantuak gehiegi aldatu gabe

Halere, Unai Lobo Betagarriko tronpeta jole eta liderrak adierazi digu ez dituztela asko aldatuko jatorrizko kantuak: «Jendeak pentsa dezake Barricadaren bat hartu eta ska modura jo behar dugula, baina ez da horrela izango. Abestiak geratuko dira gutxi gorabehera jatorriz ziren bezalaxe. Hori bai, haizeekin eta Betagarriren era, baina aldaketa handirik egin gabe».

Gainera, hautatu dituzten kantuetatik dezente bat datoz oro har Gasteizko taldearen estiloarekin, eta, beraz, egokitzapen handirik egin beharrik ez da izango. Gehiago, agian, heavy estilokoekin. «Pixka bat beldur gara kantu gogorrekin, bai», onartu du Lobok. Horiek, ordea, xarma gehiago izango dute.

Betagarrik aztertutako denbora tartea ekarri nahi du gogora izenburuak (*80/00*), hots, soinu-bidaia bitxia 1980tik 2000ra bitartean Euskal Herrian egindako musikan. Horrela, 70eko hamarkadan nabarmendutako Errobi, Mikel Laboa eta abarren ezer ez dute aukeratu, proiektu batzuk kaleratu dituztela kontuan hartuta.

## Jaialdi bakarra eta berezia egiteko asmoa

DISKOA aurkezteko ohiko kontzertu sorta egiteko asmorik ez dute Betagarrikoek, kontzertu-emanaldi bakar eta berezi bat baizik. «Zerbait berezia egin nahi dugu ikuspuntu mota guztietatik begiratuta», dio Unai Lobok. Soinua ez ezik, irudia ere arretaz zaintzeko asmoa dute, eta, horrela, pantaila erraldoiez baliatuko dira, besteak beste. Festaren moduko zer edo zer izango litzateke, eta bertsio bakoitza jotzean jatorrizko piezaren kantari edo musikari nagusia bilduko luke agertokira.

Nolanahi ere, Betagarrik egin nahi duenaren nolabaiteko aurrerapena izango da bi aste barru Anoetako belodromoan, Jarraik antolatutako Mendi Martxaren amaierako jaialdian. Bertan ariko dira Etsaiak, Su ta Gar eta Betagarri taldeak, eta, gazteen erakundeak enkargatu dienari jarraiki, euskal rock erradikalaren garaiko kantuen bertsio batzuk joko dituzte; tarteka, moldatutako kantuak jo zituzten zenbait musikari igoko dira oholtzara. Gasteizko taldeak duen ideiaren antzeko zerbait izango da, beraz.

Dena den, Betagarrik froga gisara hartu ahal izango du apirilaren 3ko kontzertua bertsioen diskoa aurkezteko emanaldiari begira. Eta, ildo beretik, amaigabe jarraitzen duten kontzertu arruntak ere proba egiteko erabil litezke. Zubi hau isla zuzena da Betagarri ez dela gelditzen ohartzeko: herenegun Garesen, atzo Oreretan eta gaur Lizarran. Neguan udan bezalaxe, bada.

**Liluratura** ◆ Liburu lapurreta: lege haustearen eta ekintza kulturalaren mugan.
◆ Irakurlearen orriak: Jon Arretxeren *Oroituz* eleberria. ◆ Joxe Belmonteren *zazpi liburu eta aipu bat.*

# Poesia testamentu bihurtzen denean

*Ingeborg Bachmann austriarraren azken poemak bere literatura ulertzeko giltzarri bihurtu dira*

Garikoitz Berasaluze / **Donostia**

**Mende honetan alemanez idatzitako literaturan, ahaztu ezineko egilea da Ingeborg Bachmann poeta eta narratzailea. Poesia argitaratzen hasi eta arrakasta ezagutu ondoren narratibari heldu zion, eta poesia baztertzeko erabaki sendoa hartu zuen. Idazlea hil ondoren agerturiko poemetan, ordea, Bachmannen azken olerkiek berak idatzitako literatura guztia ulertzeko bidea erakusten dute. Poemok, orain hogei urte argitaratu ziren lehen aldiz, eta, urteurrena aitzakia, iaz berrargitaratu ziren alemanieraz. Orain, beste hizkuntzen ordua heldu da.**

ALEMANIERAZKO berrargitalpenaren oihartzunpean, Bachmannen poemak beste hizkuntzetara itzuli dituzte zenbait argitaletxek. Poesia itzupenak ez dira oso ohikoak, baina badira zenbait argitaletxe ildo honetan nabarmentzen direnak. Espainiako *Ediciones Hiperión* da hauetako bat. Mundu zabaleko ehunka poeta gaztelaniaz eman dituen *Poesía Hiperión* bilduman, Ingeborg Bachmannen azken poemak argitaratu ditu oraingoan, bi hizkuntzatan: alemanieraz eta gaztelaniaz.

Bachmann Esloveniaren eta Italiaren arteko mugan jaio zen 1926an, Austriako Klagenfurt hirian, eta Erroman hil zen 1973an. Filosofia, Psikologia eta Hizkuntza eta Literatura Alemaniarra ikasi zituen Vienan.



ARTXIBOKOA

**Ingeborg Bachmann 1965ean, Erroman.**

### Wittgensteinen eragina

Heidegger eta Wittgensteinen pentsamendua landu zuen batez ere, eta bi filosoek eragin nabarmena izan zuten bere pentsamoldean eta literaturan. Wittgensteinen hizkuntzaren filosofiak utzi zuen arrastorik nabarmenena Bachmannen poesian. «Ludwig Wittgensteinen lana izan da nire topaketa intelektualik garrantzitsuena» utzi zuen idatzita Bachmannek. Wittgensteinentzat, jakina den bezala, filosofiak hizkuntzaren azterketa logikora mugatu behar du. Intersubjektiboki froga daitekeena bakarrik esan dezake hizkuntzak. Honela, esan daitekeenaren eta esan ez daitekeenaren arteko muga sortzen da. Esan ez daitekeena izpiritualarekin eta mistikoarekin lotzen da. Ingeborg Bachmannek pentsatzearen eta sentitzearen arteko alde hau onartu zuen. Bachmannentzat dikotomia honetatik sortzen den tentsioa da kontzeptu estetikoaren oinarria eta poesiaren bidez saiatzen da esan daitekeenaren mugak zeharkatzen.

*Die gestundete Zeit* (*Atzeratutako denbora*, 1953) izan zen Bachmannen lehen liburua. Bigarren Mundu Gerraren itzal luzea islatzen zen liburu hartako bertsoetan. Nazismoaren oroimenaren eta Gerra Hotza zela eta 50eko hamarkadan Austria eta Alemanian bizi zen giro militarraren ispilu izan ziren poemak. Errealitatearekiko konpromiso kritikoaz gain, formalki, lirikotasun handia zuen liburu hark. Errealitatearen gordintasuna eta lirismoaren arteko kontrajarpena nabarmentzen da orain liburu haren ezaugarrien artean.

**ELI TOLARETXIPI**

*«Gizakiak suspertu, begiak ireki, oinaze gordea zer den jakin. Ezaguera: koloka saihesteko; eta nostalgia: emozioak askatzeko. Hura zen pentsakera filosofikoa eta ikuspegi poetikoa bat egiteko bidea»*

### Kritikaren ezusteko harrera

Liburuaren lirismoari ezusteko harrera egin zion kritikak, eta Bachmann ezaguna eta omendua bihurtu zen. Hedabideek itxuraldaturiko ospea, ordea, ez zuen eramaten jakin eta jaioterria utzi eta Italia hartu zuen bizilekutzat.

Bertan idatzi zituen hurrengo liburuaren testuak. 1956an argitaraturiko *Anrufung des Grossen Bären* hark, ordea, Bachmannen literaturan aro berri bat zabaldu zuen. Poesia gehiago ez idaztea erabaki zuen. «Poesia idazteari utzi diot, poesia idazten ikasi dudala uste dudalako». Narratibari heldu zion gero. Ipuinak, eleberri laburrak eta irrati-gidoiak idatzi zituen, eta haiek egin zuten beste hizkuntzetan ere ezagun. *Hogeita hamar urteetan, Manhattango jainko ona, Malina, Aldiberekoa* eta *Heriotz motak* liburuak dira Bachmannen lanen artean ezagunenak.

Bachmann hil ondoren, berriz, bere lan guztiak plazaratu ziren eta inork gutxik ezagutzen zituen hemezortzi poema ezagutarazi ziren haien artean. 1957 eta 1961 urteen artean idatzitako olerki haiek kritikarentzat zein egilearentzat bere lanik garrantzitsuenetakoa osatzen dute. Bere testamentu poetikotzat hartzen dira, bete-betean islatzen baitituzte Bachmannen kezka nagusiak: hizkuntzaren bilaketa, amodioarekiko konfiantza eza eta suntsipenera eta materialismora bideratutako gizarte baten bizitzearen kontzientzia.

# Hitzak eta isilgunea

*iritzia*

ELI TOLARETXIPI • Idazlea

BIZITZAREN barrutik eta heriotik gertu bizi eta idatzi, inguruan gertatzen denaren arrastoak antzemanez. Gizakiak suspertu, begiak ireki, oinaze gordea zer den jakin. Ezaguera: koloka saihesteko; eta nostalgia: emozioak askatzeko. Hura zen pentsakera filosofikoa eta ikuspegi poetikoa bat egiteko bidea. Baliteke hitzak, bere baitan, esanezinaren susmoa izatea, egiaren bila hegan jaurtiak, baina amaigabean galduak. Munduak, den eran, esana izan nahi baitu.

Hitzetik isilera joan zen, hizkuntzaren edertasunaren indarrez adierazpen latza esanez, mundu errautsiaren zaurizko xehetasun sasizkoa eta lorazkoa eginez. Boterearen arrazoigabekeriaren aurrean mutu geratu ezin, baina, isildu, azkenean, hitzak, gordinkeriarik handiena gertatu ondoren ez baitira ez lekuko ez tresna, gauzetan kulunkatzen gaituzten horiek baizik. Itsas ertzean Bohemiarik ez delako nora joango munduan diren bohemio eta federik gabeko leinuak.

Bere buruaz beste egin omen. Inmolazioa. Auskalo. Justizia poetikorik ez heriotzan; mututasunean, agian bai, bere oinorde poetikoa ezagutu nahi duenaren keinuan, bertsoren bat irakurri, itzuli, kontatu.

Bakoitzaren angustia pribatuaren eta erauzketaren zentzu kolektiboaren artean, amodioa. Amodioak, ordea, belaunikaturik nahi zaitu. Bestela, historiaren menpeko izaki, konpromisoa. Baina, ahuleziaren besoetan gatibu, babesik ez.

Liluratura

# Liburu lapurreta: lege haustearen eta ekintza kulturalaren mugan

*Liburu saltzaileen, idazleen eta lapurren iritzia ezberdina da kontu honetan*

Garikoitz Berasaluze / **Donostia**

**Liburuak lapurtzea zigortu ala saritu beharrekoa da? Saltzaileek eta liburutegiek argi dute erantzuna: zigorra. Lapur askok kultura gosez lapurtzen dutela diote eta, beraz, bultzatu eta saritu beharrekoa dela liburu lapurreta. Idazleek zalantzak dituzte, eta askotariko iritziak.**



Ander Gillenea

**Liburu denda gehienetan, lapurren hamaika trikimailu ezagutzen dituzte dagoeneko.**

BOTA dezala lehen orria inoiz liburuRik lapurtu ez duenak. Egia esan behar bada, zaila baita literaturazaleen artean etxean lapurtutako libururen bat ez duen norbait topatzea. Gaztetan egindako *bekatuak* izaten dira gehienak. Adinak aurrera egin ahala, beherantz egiten du lapurraren ausardiak, eta handitu egiten da kontzientziaren harra.

Liburu denda eta liburutegietan lapurretan harrapatzen dituzten gehienak, esaterako, gazteak dira. Liburu denden kasuan, normalean gurasoei deitzen zaiela esan digu Donostiako liburu denda bateko arduradunak: «Gurasoak jakinaren gainean uzten ditugu horrelakoetan. Adin nagusikoa bada, berriz, ordainarazi egiten diogu liburua eta datuak hartzen dizkiogu. Salaketei dagokienez, guk ez dugu inoiz salaketarik jarri, baina badakit saltoki handiek salaketa jarri ohi dutela».

### Liburuak sotanapean gordeta

Hala ere, arduradun horren hitzetan, ez dira gazteak bakarrik aritzen lapurretan. «Behin, Bilbon lan egiten nuenean, apaiz bat harrapatu genuen, sotana eta guzti, informatikako liburuak lapurtzen. Kleptomano hutsa».

Liburutegiak ere horrelakoz beteak daude. Eta horrek sutu egiten ditu liburutegietako arduradunak. Institutu batean baino gehiagotan esan digutenez, «dagoeneko ez dakigu zer egin. Lapurreta baino gehiago arpilatzea ari da bihurtzen hau azken urteotan». Eta horrek haserre jartzen ditu liburutegietako arduradunak: «Ez dago eskubiderik. Erraztasun guztiak dituzte liburuak etxera eramateko, fotokopiak ateratzeko, nahi dituzten kontsultak egiteko eta, hala ere, lapurtu egin behar».

Idazleen artean, berriz, askotariko iritziak bildu ditugu eta, batzuen arabera, gazteen artean ezin da zigortu liburu lapurreta. «Lapurretan harrapatuz gero, hilabete bateko epea eman behar zaio gazteari liburuaren laburpena bi orrialdetan egin eta liburu denda edota liburutegian aurkezteko. Lapurtutako liburua, berriz, Hezkuntza edo Kultura Sailak ordaindu behar luke».

Izan ere, lapurreta delaeta liburu denda itxi behar izan duenik bada. Ezaguna da Masperoren kasua. Orain dela hainbat urte, Parisen, liburu denda-argitaletxea zuen Maspero, ezkertiarra. Bere dendan, ohikoa zen liburu lapurreta baina berak ezikusiarena egiten zuen, bere ideiekin ez baitzetorren bat liburu lapurreta zigortzea. Kartelak jarri zituen dendan, hala jarraituz gero itxi egin beharko zuela esanez. Lapurretak jarraitu egin zuen, Maspero dendа itxi behar izan zuen arte.

## «Liburu lapurrek fusilatzea merezi dute»

LIBURU lapurreta dela eta, eztabaida sonatua eragin zuen 1997ko urtarrilean Jon Odriozola kazetariak *Egin* egunkarian argitaraturiko zutabe batek. Bertan, liburuak lapurtzea proposatzen zuen Odriozolak; lehenik, bere etxeko liburutegiko ia bi herenak lapurtutako liburuak zirela aitortu zuen.

Odriozolak berehala jaso zuen Luis Maria Jimenez de Aberasturi argitaratzailearen erantzuna, *Inozo bati eskutitza* izenburupean. Argitaratzaileak liburu lapurretaren aurkako zenbait aipu gogoratzen zituen. Tartean, Krutwigena: «Zure etxera joan eta liburu bat lapurtzen dizuten haiek, fusilatzea merezi dute, besterik gabe». Besteak beste, lapurra eta inozoa deitu zion erantzun hartan Aberasturik Odriozolari.

Hurrengo egunean erantzun zion hark argitaratzaileari, lapurrak etxetik liburuak eramaten dituzten poliziak, liburuak ez baina milioika pezeta lapurtzen dituztenak, liburuen prezioa jartzen dutenak eta abarrak direla esanez. Marxen aipu bat ere testuratzen zuen Odriozolak: «Patroiaren ondoren dendaria duzu zain, azken sosa miazkatzeko».

Zenbaitek, liburu lapurrak zirela aitortuz, gutunak ere bidali zituzten egunkari hartara, Odriozolaren alde agertuz.

---

ertzetik

Manu Lopez Gaseni



## Interpretazioa

Testuak aldez aurretik ezarritako teoria baten arabera interpretatzea erosoa da, teorien eta praktiken artean beti dagoelako intersekzio punturen bat, nahiz eta puntu horri eustea anekdota hutsean geratzea litzatekeen. Benetako azterketak harantzago joan ohi dira eta, batzuetan, gurea bezalako literatur mundu homologagaitzen berri emateko gauza ez zirelakoan, paradigma berriak proposatzera ere iritsi dira.

Literatur ikertzaileak irakurleak dira, gauza jakina da hori; zenbaiten iritziz irakurle berezituak dira, baina irakurleak azken batean. Baina, deskripzio lan metodikoetatik interpretaziora iragan nahi dutenean tentu handiz ibili behar dute. Bestela, beste ikertzaile hari gertatu zitzaiona gerta baitakieke (argumentua sinplea da): idazle bat terrorista ote den susmatzen hasi da polizia (nahiz eta gero eta arraroagoa den gaur egun), eta etxeko garbitzailearen bitartez konputagailuko informazio guztia kopiatu eta aztertzen hasi dira, horretarako propio sortu duten exegeta-brigada baten laguntzaz. Brigadakoek oso garbi daukate zer bilatu behar duten, eta aurkitu ere bai: era guztietako mezu kodifikatuak, manifestu politiko iraultzaileak, zuloen kokapenak, eta beste. Brigadako kide bakar bat dago zalantzatan («baina, aizue, oso poema onak dira»), baina idazle errugabearen aurkako epaia emanda dago.

Testuinguru egokian kokatuz gero, edozer izan daiteke sinesgarri borondate oneko irakurlearentzat; esaterako, ideia hori lantzen ari nintzela Egin afera etorri eta bertan behera utzi behar izan nuelakoa. Sarritan, literatur aztertzailearen jarrera exegeta-brigadarenaren antzekoa da: ikusi nahi den hura ikusten dute soilik, aurreiritzietatik urrunago edo hurbilago dagoen neurrian, diziplinaren eta literaturaren beraren aurrerakuntza oztopatuz.

## Liluratura

irakurlearen hitza

# Zaharrak zahar, berriak berri

Gure literaturan Jon Arretxe kasu berezia bihurtu da. Gurean ez baita ohikoa hain denbora gutxian honelako obra oparoa eskaintzea. Guztira, azken urte hauetan, Jon Arretxek sei lan argitaratu ditu: *Tubabu* eta *Tuparen seme-alabak* bidaia kronikak, *Hakuna Matata* eta *Ostegunak* ipuin bildumak, *Harresi Handirantz* haur kontakizuna eta *Urrezko triangelua* nobela laburra.

Ezohikoa den produkzio oparo honek, gainera, beste berezitasunik ere badu: orain artean argitaratutako lanek ez dute orrialde kopuru handirik izan. Bestalde, murriztasuna orrialde kopuruan ez ezik estiloan ere islatu izan du Arretxek, eta, ondorioz, bere liburuetan erabiltzen duen idazkera ere sinplea da, zuzena eta argia. Laburpenerako joera hau sentimenduetan ere nabaritzen da, ez bere istorioek sortu dezaketen zirraran —hori bakoitzaren sentipenetara eta sentitzeko moduetara mugatzen da—, Arretxek bere istorioak kontatzeko duen eran baizik. Orain arteko grina, bere alderdi ezkutu hori ez erakustea izan da.

Beste bi ezaugarriak nabarmenagoak dira. Lehenengoa, maiz, edota hobeki esanda aldizka, argitaratzeko joera da, azkenaldi honetan Durangoko Azokari hutsik egin gabe. Bigarrena, Arretxe bidaiari amorratua den neurrian, bere liburuek bidaia hauetan ezagutu eta bizi izan dituen esperientzietan oinarrituta daudela —dena dela, baieztapen hau nahiago dut zalantzan jarri, kontatutakoak irakurri ondoren—. Azken ezaugarri hau *Ostegunak* ipuin bilduman baztertu egin bazuen ere, lan hura ere bere errealitatean eta inguru giroan oinarriturik zegoela nabari zen.

Bere liburu berria eleberri bat da, eta azken bi ezaugarri hauek betetzen baditu ere —Indian barrena egindako bidaia da istorioaren ardatza—, hasieran aipatutako ezaugarrietan aurki ditzakegu aldaketak. Liburu honek orrialde kopuru handiagoa du baina, batez ere, estiloan eta gaiaren tratamenduan eta garapenean daude aldaketak. Hemen aurki dezakegu Arretxe berria edo, behinik behin, desberdina.




**Izenburua:** Oroituz.
**Egilea:** Jon Arretxe.
**Argitaletxea:** Elkarlanean, 1998. 320 orr.

### Arretxe desberdina eta... helduagoa?

*Oroituz* eleberriak mutil gazte baten istorioa kontatzen digu. Bidaiari amorratua, Indiara joaten da. Bertan, Indiako erlijio eta gizarte desberdinak aztertu nahi ditu —budismoa eta hinduismoa batez ere—, beraietan zerbait ikasi aldera. Azken batean, bidaia honetan pertsonaia konturatu egiten baita bidaiekiko bere zaletasuna, zer den ez dakien baina bilatzen duen zerbaiten lasterketa dela. Baina mutila ez dago bakarrik, neska du itxoiten, bidaiak noiz amaituko.

Ondorioz, liburuak biltzen duen bidaia bitarikoa da. Alde batetik, bidaia fisikoa da, pertsonaiak Indian barrena egiten duena. Bestetik, bidaia izpirituala da, eta honek gero eta indar gehiago hartzen du eleberriak aurrera egin ahala. Bidaia hauen deskribapenean, narrazioan Arretxek aurreko bere ildotik jarraitzen badu ere, aldaketak nabarmenak dira.

Honela, sentimenduek murriztak eta nahikoa laburrak izaten jarraitzen badute ere, Arretxeren luma aberastu egin da oraingoan, eta lehenagoko isiltasunak orain adierazpenarekin lotzen ditu. Burutik eta adimenetik baino gehiago, bihotzetik eta adimenetik datoz orain sentimenduak. Eta aldaketa hau bai estiloan eta baita sortzen dituen zirraretan ere nabaritzen da.

Oro har, liburu interesgarri bat da hau, eta Arretxeren lana bikaina izatera heldu ez bada ere, azken aldaketa hauek bide horretan lagunduko diotela igartzen da. Hala ere, oraindik baditu hobetu beharrekoak. Estiloan eta idazkeran inplikazio handiagoa faltan botatzen da oraindik, istorioak azken herenean beherantz egiten du zertxobait, eta, batez ere, bukaera erazegia suertatzen da amaierako sorpresa igaro ondoren. Baina horretarako, amaieraz hitz egiteko, hobe da liburua irakurtzea. Zuen iritzia izango baituzue hartara. Ahaleginak merezi du.

Jose Jabier Fernandez

irakurtzekoak




**Izenburua:** Jakin. 110.
**Argitaratzailea:** Jakin, 1999. Urtarrila-Otsaila. 126 orr.

• **Yon Etxaide gogoan:** aurtengo lehen zenbakia plazaratu du Jakin aldizkariak. Gai nagusia Yon Etxaideri eskaini diote eta Joseba Etxarrik, Javier Rojok, Juan San Martinek eta Joan Mari Torrealdaik hartu dute hizpide iaz hildako idazlea. Zapiain, Barandiaran, Mendiguren Elizegi, Agirre, Baxok eta Fernandezen lanak ere aurki ditzakegu.




**Izenburua:** Zanpa ezak sugea.
**Egilea:** Yasar Kemal.
**Itzultzailea:** Xabier Aranburu.
**Argitaletxea:** Txalaparta, 1999. 116 orr.

• **Eleberri labur eta ederra:** Kurduak eta turkiarrak elkarren ondoan bizi diren Anatoliako herrixka batean, gizon bat hil du bere emaztearen maitaleak. Gertaera horretatik abiatuz, Yasar Kemalek astiro prestaturiko hilketa baten istorioa, interesak eta mendekuaren tradizioak lotzen ditu, lurralde bateko ohituren harian. Ederra.




**Izenburua:** Amodio zoroak.
**Egilea:** Joxe Belmonte.
**Argitaletxea:** Elkarlanean, 1999. 144 orr.

• **Bikoteen azpildurak agerian:** Behatzailearen begi zorrotza eta umoristaren ironia argia erabilita, amodioaren inguruko ipuin harrigarriak bildu dizkigu Belmontek liburu berri honetan. Saririk garrantzitsuenak irabazi dituzten kontakizunei berri batzuk erantsita osatu du liburu hau, erotismoa osagai duten hamaika ipuinekoa.



**Joxe Belmonteren**

**zazpi liburu...**

***Rojo y negro***
Stendhal
• XIX. mendeko eleberri nagusietako bat, eta hori ez da gutxi esatea.

***Crimen y castigo***
Fiodor M. Dostoievski
• Eleberri psikologiko nagusi bat, lehenetakoa dela kontuan harturik gezurra dirudiena.

***Ensayo sobre la ceguera***
Jose Saramago
• Gizartearen gaiztakeria, bidegabekeria eta keria guztiak Saramagoren mikromundu ikaragarrietako batean.

***Haur besoetakoa***
Jon Mirande
• Euskal klasikoen artean gogoz eta gustuz irakurtzen den eleberria, klasikoa izanda ere modernoa delako.

***El nombre de la rosa***
Umberto Eco
• Suspentsea eta pentsamendu sakonak maisuki maneiatzen dituen lana.

***El amor en los tiempos del cólera***
Gabriel Garcia Marquez
• Ehun urteko bakardadearen ostean Aureliano Buendiak ere ahaztuko ez lukeen liburua.

***Cinco horas con Mario***
Miguel Delibes
• Joko zoragarria ateratzen die hitzei idazle gaztelauak.

**eta aipu bat...**

«Beste soldaduak, lantzaren burdinaz lurrean marra bat eginda, zatitzen eta banatzen duen patuak bezala, esan zuen, a ze zorigaiztokoak gure ofiziokook, naturak eman zigun gaizkia egitearekin nahikoa eduki ez, eta besteen gaizkiaren eta boterearen besoa izan behar dugu».

**Jose Saramago**
(*El evangelio según Jesucristo*)

**musika** ◆ ANGEL CELADA

# Danborra jotzen duen eskua

**Artistak:** Angel Celada (bateria), Daniel Perez (gitarra) eta Nando de la Casa (baxua, perkusioa). **Lekua:** Bilboko Kafe Antzokia. **Eguna:** Martxoaren 18a. **Jende kopurua:** 250 lagun. **Iraupena:** 85 minutu. **Sarrera:** 800 pezeta.



ARTXIBOKOA

**Angel Celada, bateria atzean eserita, emanaldian.**

BATERIA joleak ditugu rock taldeetako kide berezienak: beste mundu batean bizi direla ematen du maiz. Beste batzuen iritziz, musikari horiek dira bandaren ardatza: erritmoa gaizki eramatekotan, akabo. Angel Celada gasteiztarra zuzenean ikusi ondoren, esan daiteke danborra jotzen duen eskua dela musika munduaren jabea. Sendoa, zehatza, ziurra, xumea, dotorea: horrelakoa da Celadaren kolpea. Pop eta rock arloan egunero mugitu arren, jazz ekitaldia suertatu zen Bilbokoa. Erruduna —zentzu onean, noski—: Daniel Perez gitarra jolea. Berak egin zituen ia solo guztiak. Hirugarren kidea, Nando de la Casa teklatu jolea —Mugalaris— azken orduko deian sartu zen, Jose Gereñu baxu jolearen ordez; bere teklatua baxu baten antzera moldatu ondoren, arazorik ez.

Ekitaldian Angel Celedaren *Angelitos negros* diskoko zenbait kantu entzun genuen; horien artean, tartekaturik, gustuko bertsioak ere jo zituzten. Horra hor Rolling Stonesen *Honky tonk women*, Bill Frissell edo Ben Monderren estiloaz, *wah-wah* pedala nagusi. Bide beretik ibili ziren Machinen *Angelitos negros* —hasieran eta amaieran Gerswhinen *Summertime*-ren riff pare batez— eta *Ansiedad* boleroa. Perezek iturri gehiago erakutsi zuen: McLaughlin, ZZ Top eta rock-blues moduko musikarien moduak ongi ikasi dituela esan daiteke. Soul melodikora ere jo zuten, Celadaren solo luze bat burutu eta gero. Roberta Flacken *Killing me softly with his song* entzutea plazer hutsa izan zen; era berean, *Ana* balada, *Louisiana* rock-blues-a eta azken ataleko *Azucar y picante* rock modukoa ederki dastatu genituen.

## Metronomoa buruan

Celada gizon lasaia dugu: ez zaio gustatzen artazika ibiltzea. Hala eta guztiz ere, erdialdean solo ederra egin zuen, Nandoren laguntzaz, hark perkusio elektronikoan bandako liderrari erantzuna eman zionean. Kantuak hainbeste lekutatik etorri arren, bandaren giro berezira erraz moldatu zituzten. Pieza guztiak plano ezberdinetako jokoan ibili ziren: horretan maisua dugu Gasteizko bateria jolea. Berak aurkeztu zituen taldekideak eta kantu batzuen izenak. Agertoki erdian, Mapex beltz baten atzean, gauaren kadentzia ezarri zuen. Eta barruko metronomo horren arabera sortzen dira pieza guztiak. Datu bat: kantu bakoitza hasi baino lehen, Celadak minutu bat behar du erritmo zehatz hori barnean entzun arte. Hortik aurrera, Dani eta Nando jo eta ke abiatzen dira, ziurtasun osoz.

Celadaren ekitaldia entzutekoa izan zen batik bat eta oraingoan, zorionez, oso elkarrizketa gutxi egin zituzten atzeko partean. Horrelako jazzaldiek zaletasuna hedatzen eta finkatzen dute. Dena danborra jotzen duen eskuari esker.

*Roberto Kribi*

## laburrean

ANTZERKIA

### ■ Gorakadak 'Cita con la luna' antzeztuko du gaur eta bihar Durangon

GORAKADA txotxongilo taldeak *Cita con la luna* ikuskizun berria aurkeztuko du gaur eta bihar Durangon, San Agustin kulturgunean. Gaurko emanaldia 22:00etan hasiko da, eta biharkoa 20:00etan. Umorea eta magia nahasten ditu Gorakadak lan horretan, eta, hitzaren gainetik, irudiari eta musikari eman die lehentasuna. Markeliñek zuzendu du ikuskizuna.

MUSIKA

### ■ Hileta elizkizun juduak Yehudi Menuhinentzat

ATZO egin ziren, Erresuma Batuko Surrey konderrian, Yehudi Menuhinen aldeko hileta elizkizun juduak; biolin jolearen izena duen musika eskolan, hain zuzen ere. Duela astebete hil zen musikari ospetsua, eta atzoko elizkizunak hartu zituen eskolan bertan dago lurperatua.

ARTEA

### ■ XX. mendeko artista handi ugari Linzeko museoan

AUSTRIA GARAIKO hiriburuko Galeria Berria museoan *Adierazpena eta Gogoeta* erakusketa inauguratu berri dute. Bertan, alemaniar espresionismoa eta 1945 ondorengo austriar artea zabal adierazten duten hainbat landaude. Alfred Kubin, Marc Chagall, James Ensor, Oskar Kokoschka, Kirchner, Georges Rouault eta beste hainbatenak dira bertan topa daitezkeen lanak. Gunter Rombold austriarraren bildumakoak dira guztiak.

## Jose Agustin Goytisolo poetak bere buruaz beste egin du

■ *Idazle kataluniarrak depresioak jasaten zituen*

Agentziak / **Bartzelona**

JOSE AGUSTIN GOYTISOLO poeta eta itzultzaileak bere buruaz beste egin zuen atzo arratsaldean, Bartzelonan. Etxeko leihotik bota zuen bere burua Goytisolok, eta bertan hil zen. Jakina zen idazleak depresio psikologikoak pairatzen ohi zituela.

70 urte zituen, eta Goytisolo idazle familiako anaia nagusia zen —Juan eta Luis dira beste biak—. Jaime Gil de Biedma eta Carlos Barralekin batera, Bartzelonako Eskola delako taldea osatu zuen Goytisolok 50eko hamarkadan, eta poesia soziala garatu. Poema liburu ugari idatzi zituen, *Retorno*, *Salmos al viento*, *Algo sucede*, *Bajo tolerancia*, *Del tiempo y del olvido* eta beste hainbat. Halaber, Rosa Leon, Nacha Guevara eta Paco Ibañez kantariek haren poemak musikatu zituzten. Izan ere, Ibañezen kantu arrakastatsuenetako bi, *El lobito bueno* eta *Palabras para Julia*, Goytisoloren poemetan zeuden oinarrituta. Halaber, Pasolini, Salvatore, Espriu, Quasimodo, Montale eta Ungarettiren lanak itzuli zituen Goytisolok.

Haren heriotzak erreakzio ugari sortu zituen. Carmen Riera idazlearen iritziz, Goytisolok «mugak zabaldu zituen Bartzelonako Eskolarekin, eta haren obra literaturaren historian geratuko da». Kataluniako Kultura sailburu Joan Maria Pujalsek ere dolua agertu zuen.

## MUSIKA

AMURRIO

- **Su ta Gar, Los desmontables.** Herriko plazan, 23:00etan.

BASABURU

- **Maixa eta Ixiar, Egan.** Gartzaroko pilotalekuan, gaueko 12etan.

BERMEO

- **Sara Gonzalez.** Izaro Disco Pubean, gaueko 22:00etan.

BILBO

- **Morgana, Trauma, Fumas Iskariote.** Bilborocken, 21:00etan.
- **Deustuko jaiak:** Gazte lokalean 20:00etan **Elfo Negro, Propaganda por los hechos.**
- **Eskorzo.** Palladium aretoan, 22:30etan.
- **Julen Gossip.** Mina espazioan, 20:00etan.
- **Josetxo Goia-Aribe Ensemble.** Kafe Antzokian, 22:00etan.

DONOSTIA

- **Madredeus.** Victoria Eugenia Antzokian, 21:00etan.
- **Mikel Pirisen flauta errezitala.** Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan, 11:00etan.
- **DJ Txarli, DJ Patxi.** Etxekalten.

DURANGO

- **Skalariak, Habeas Corpus, Hyssopus, La vaca güano.** Merkatu plazan.

ELGETA

- **Los Rancios, Tribu.** Gaztetxean, 23:00etan.

ELGOIBAR

- **The basque country.** Gaztetxean, 22:00etan.

ELORRIO

- **Head, Clad, La banda de moski.** Gaztetxean, 22:30etan.

ERMUA

- **Zea Mays.** Infreiñu tabernan, 20:30etan.

IDIAZABAL

- **Skunk, Geroh, Izurri Berriak.**

HUARTE-ARAKIL

- **La venganza de la abuela, Leihotikan, Urtz.** Frontoian, 22:30etan.

IRUN

- **Manolo Kabezabolo, Ke Putada.** Tunk! aretoan.

LASARTE

- **AnderBeat, Bionic Flowers.** Zulo aretoan, 23:00etan.

LEGUTIANO

- **Bergarako abesbatza.** Meza eta kontzertua 20:00etan.

LIZARRA

- **Betagarri, Marrubi Sound.** Gaztetxean 22:00etan.

SANTURTZI

- ***Las últimas lunas.*** Serantes kultur aretoan, 22:30etan.

TAFALLA

- **Idi Bihotz.** Azoka tabernan, 01:00etatik aurrera.

USURBIL

- **Triki ta ke.** 18:30etan plazan.

ZESTOA

- **Txistu eta organo kontzertua.** Parroki elizan, 20:15etan.

## ANTZERKIA

EIBAR

- ***Haurra xutik.*** Théâtre des chimères, euskaraz. Portalean, 18:30etatik.

ORDIZIA

- ***Ander Lippus.*** Barrena kultur etxean, 23:00etan.

## ZINEMA-BIDEOA

BASAURI

- ***Muertos de risa.*** 17:00 - 20:00 - 22:30etan kultur etxean.

BILBO

- ***La mujer del puerto.*** 17:00 - 19:30etan Bilboko Arte Eder museoan.

DONOSTIA

- ***La mascara del zorro.*** 17:00etan Lugaritzen.

ELGOIBAR

- ***Conoces a Joe Black?*** 19:00etan eta 22:15etan.

ETXARRI-ARANATZ

- ***Sarabe* laburmetraiaren estreinaldia, + *Txotx.*** 20:00etan, kultur etxean.

## MUSIKA

**Mixel Ducau eta Caroline Philips • Ordizian, Barrena jauregian • Gaur, 22:00etan • Ikasi-Makusi taldeek antolatuta, Errota zirkuituaren barne.**



ARTXIBOKOA

**Mixel Ducau eta Caroline Philips Ordizian izanen dira gaur gauean.**

# Mixel Ducau

• MUSIKARIA •

## *«Seinale ona da jende gaztea gure kontzertuetara etortzea»*

**■ Nola definituko zenuke zure musika, Mixel?**

Beno, nolabait definitze arren folk modernoa deituko nioke. Ez da betiko folk tradizionala, baditu ezaugarri berezi batzuk Carolinе Philipsek eta biok egiten dugun musikak. Abestien gaiak arinak dira gehienetan, baina kanta seriosak ere egiten ditugu.

**■ Zein instrumentu jotzen duzue?**

Nik gitarra akustikoa eta flauta txiki irlandarrak jotzen dut. Carolinek, berriz, pianoa eta zaharrabetea jotzen du. Alboka ere jotzen dut.

**■ Nolako jendea joaten da zuen kontzertuetara?**

Ba, egia erran, alde handi samarra topatu dut orain arte Iparraldeko eta Hegoaldeko publikoaren artean. Hemen Lapurdi aldean normalean familian etortzen dira kontzertuetara. Hegoaldean, aldiz, nahiko jende gaztea etortzen da, ez adoleszentea, baina bai gaztea. Nire iritziz hori seinale ona da.

**■ Nola ikusten duzu musika Lapurdi aldean? Kontzertu asko emateko aukera duzue?**

Batez ere udan, kontzertu anitz emateko aukera izaten dugu, herriko jaiak direla eta. Gainerakoan, gauza gehiegirik ez da izaten, baina kantaldi batzuk ere egiten dira.

Bestalde, duela gutxi martxan jarri den Errota kultur zirkuitua bezalakoak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit. Gaur Ordizian emango dugun kontzertua zirkuitu horren barne dago.

***Urtzi Urkizu***
DONOSTIA

ONDARRU

- ***Laburmetraien emanaldia.*** *Txotx, Bernar, Laugarren galeriatik* eta *Anabasa Eremua* laburmetraiak eskainiko dira. Kofradiako Aretoan, arratsaldeko 19:30etan.

ZORNOTZA

- ***Bichos.*** Zornotza aretoan, 16:30etan. ***Entre las piernas.*** Zornotza aretoan, 19:00etan.

## BERTSOLARITZA

IGORRE

- **Lizaso, Egaña, Iturriaga, Mendiluze, Elortza eta Ibarra.** Korrikaren aldeko bertso saioa 20:00etan kiroldegian.

HUITZI

- **Afari-bertso-gaupasa.** Huitziko elkartean, 22:00etan.

## DANTZA

BILBO

- **Zuricheko balleta.** Arriaga Antzokian, 20:00etan.

URNIETA

- **Dantza Garaikidea Saioa.** Ekarle Iparraldeko dantza taldea, Orroe, Adeshoras, Kateko dantzariak, Aukeran dantza taldea. Saroben, 20:00etan.

## BESTELAKOAK

EIBAR

- ***Apoaren edertasuna.*** Joseba Tapia eta Koldo Izagirreren ikuskizuna, kultur etxean, 19:30etan.

BALMASEDA

- ***Erdi Aroko azoka.*** Estamida Medieval enpresa kataluniarrak antolaturiko azoka. Gaur eta bihar, merkatua San Severino enparantzan izango da. Mota guztietako ikuskizunak, artisautza, lanbide zaharren erakusketa Martin Mendia kalean. Garaiko ehun jantzi eta 200 metro ohial dituzte Gironako antolatzaileek.

# zinema

## ARABA

### GASTEIZ

AZUL. **La máscara del zorro:** 17:30. **La niña de tus ojos:** 20:00 - 22:30. **Tienes un i-mail:** 17:30 - 22:30. **Hilary & Jackie:** 20:00.

GURIDI. **Shakespeare enamorado:** 17:30 - 20:00 - 22:45 - 01:00. **Dioses y monstruos:** 17:30 - 20:00 - 22:45 - 01:00. **Bichos:** 16:30 - 18:30. **Leyenda urbana:** 20:30 - 22:45 - 01:00. **El pianista:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **American histori X:** 17:00 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **La vida es bella:** 17:00 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Muertos de risa:** 17:00 - 19:45 - 22:30 - 01:00.

MIKELDI. **Patch Adams:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

MIKELDI ZINEMAK. **Bichos:** 16:30 - 18:30. **Payback:** 20:30 - 22:45 - 01:00. **La vida es bella:** 17:30 - 20:00 - 22:45 - 01:00. **Mi gran amigo Joe:** 17:30 - 20:00 - 22:45 - 01:00. **Shakespeare in love:** 17:30 - 20:00 - 22:45 - 01:00. **Salvar al soldado Ryan:** 17:15 - 20:30.

SAMANIEGO. **El show de Truman:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Payback:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Mi vida en rosa:** 17:00 - 19:00. **La delgada linea roja:** 21:00. **El abuelo:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Celebrity:** 17:00 - 19:45 - 22:30.

## BIZKAIA

### BILBO

ASTORIA. **Payback:** 17:30 - 19:45 - 22:00.

AVENIDA. **Lluvia en los zapatos:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **Payback:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **El general:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **Entre gigantes:** 11:00 - 16:00. **Lágrimas negras:** 19:30 - 22:00. **Tienes un e-mail:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **La mujer del puerto:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00.

CAPITOL. **Shakespeare enamorado:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Muertos de risa:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **La vida es bella:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Mi gran amigo Joe:** 17:00 - 19:45 - 22:30.

COLISEO ALBIA. **Salvar al soldado Ryan:** 17:00 - 20:30.

IDEALES. **Muertos de risa:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Dioses y monstruos:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Bichos:** 17:00 - 19:00. **La delgada linea roja:** 21:00. **El pianista:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **American history X:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Mi gran amigo Joe:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **Leyenda urbana:** 17:30. **Payback:** 20:00 - 22:30. **Patch Adams:** 17:00 - 19:45 - 22:30.

MIKELDI. **La delgada linea roja:** 22:30. **Bichos:** 16:30 - 18:30 - 20:30. **Shakespeare in love:** 17:15 - 20:00 - 22:45. **La vida es bella:** 17:15 - 20:00 - 22:45. **Celebrity:** 17:15 - 20:00 - 22:45.

MULTI. **El show de Truman:** 17:30 - 19:45 - 22:30. **Elizabeth:** 17:15 - 19:45. **Mi vida en rosa:** 22:30. **En el corazón de la mentira:** 17:30 - 19:45 - 22:30. **Pecker:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Solas:** 17:30 - 19:45 - 22:30. **Hilary & Jackie:** 17:15 - 19:45 - 22:15. **Muertos de risa:** 17:30 - 19:45 - 22:30. **El abuelo:** 17:00 - 19:45. **La cena de los idiotas:** 22:30.

### BARAKALDO

MAX CENTER. **American history X:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Salvar al soldado Ryan:** 17:00 - 20:30 - 00:00. **Muertos de risa:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **La delgada linea roja:** 16:30. **Muertos de risa:** 19:45 - 22:30 - 01:00. **Patch Adams:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Payback:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30 - 01:00. **Dioses y monstruos:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30 - 01:00. **La vida es bella:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Shakespeare in love:** 16:30 - 19:30 - 22:30 - 01:00. **Mi gran amigo Joe:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Bichos:** 16:30 - 18:30. **Leyenda urbana:** 20:30 - 22:30 - 01:00. **La cena de los idiotas:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30 - 01:00.

### BASAURI

BILBONDO. **La vida es bella:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Mi gran amigo Joe:** 16:45 - 19:45 - 22.30. **Patch Adams:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Bichos:** 16:30 - 18:30. **Leyenda urbana:** 20:30 - 22:30. **Payback:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30. **Salvar al soldado Ryan:** 17:00 - 20:30. **Shakespeare enamorado:** 16:45 - 19:45 - 22:30. **Muertos de risa:** 17:00 - 19:45 - 22:30.

SOCIAL ANTZOKIA. **Muertos de risa:** 17:00 - 20:00 - 22:30.

KULTUR ARETOA. **Solo en casa 3:** 17:00. **El general:** 20:00.

### DURANGO

ZUGAZA. **Entre las piernas:** 19:00 - 22:00.

### ELORRIO

ARRIOLA. **¿Conoces a Joe Black?:** 22:30.

### ERMUA

ERMUA ZINEMA. **Por siempre jamás:** 19:30 - 22:00.

### GALDAKAO

TORREZABAL. **Jack Frost:** 17:00. **Entre las piernas:** 19:30 - 22:30.

### GERNIKA

GERNIKA. **Tienes un e-mail:** 19:00 - 22:00.

### GETXO

GETXO ANTZOKIA. **Hormigas:** 17:30.

LAUREN. **Celebrity:** 17:00 - 19:45 - 22:45 - 01:00. **Salvad al soldado Ryan:** 16:00 - 19:30 - 22:45. **La delgada linea roja:** 16:15 - 19:30 - 22:45. **Patch Adams:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **La vida es bella (J.B.A.):** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:40 - 01:00. **Bichos:** 16:15 - 18:15 - 20:15. **54:** 22:15 - 00:30. **Leyenda urbana:** 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:15 - 00:30. **Payback:** 17:00 - 19:30 - 22:30 - 00:40. **Mi gran amigo Joe:** 17:00 - 19:15 - 22:15 - 00:30. **La vida es bella:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:40 - 01:00. **Shakespeare in love:**16:30 - 19:15 - 22:15 - 00:50. **Muertos de risa:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00.

AREETAKO GRAN CINEMA. **Mi gran amigo Joe:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

### LEIOA

CINESA ARTEA. **Leyenda urbana:** 16:15 - 18:15 - 20:15 - 22:15 - 00:15. **Muertos de risa:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Mi gran amigo Joe:** 16:15 - 19:30 - 22:30 - 00:45. **Bichos:** 16:00 - 18:00 - 20:00. **Celebrity:** 22:15 - 00:30. **Salvar al soldado Ryan:** 16:30 - 20:00 - 00:00. **Payback:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **La vida es bella:** 16:15 - 19:00 - 22:00 - 01:00. **Shakespeare in love:** 16:30 - 19:30 - 22:30 - 01:00. **Patch Adams:** 16:15 - 19:00 - 22:00. **La delgada linea roja:** 00:15.

### ONDARROA

BIDE ONERA. **Estado de sitio:** 18:30 - 22:15.

### PORTUGALETE

COLISEO JAVA. **Payback:** 17:30 - 20:00 - 22:15.

### SANTURTZI

SERANTES. **Celebrity:** 17:15 - 19:45 - 22:15. **Salvar al soldado Ryan:** 17:30 - 21:00.

### SESTAO

AMEZAGA. **Entre las piernas:** 19:30 - 22:00.

### ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA. **Entre las piernas:** 20:00 - 22:30.



## ‘Salvar al soldado Ryan / Il faut sauver le soldat Ryan’

**Steven Spielbergen azken filma Euskal Herriko hiriburuetan uda partean estreinatu bazen ere, berriz ari dira ematen zenbait aretotan; Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean esate baterako. Izan ere, bihar banatuko dituzte Oscar sariak, eta ziurrenik baten bat jasoko baitu film honek, hainbat Oscarretarako izendatu baitute. Bigarren Mundu Gerran girotutako istorioa kontatzen du. Oso irudi gordinak ditu, batez ere lehen zatian.**

## GIPUZKOA

### DONOSTIA

ASTORIA. **Muertos de risa:** 16:00 - 18:30 - 21:00 - 23:30. **Patch Adams:** 16:15 - 19:00. **La delgada linea roja:** 22:00. **Shakespeare in love:** 16:00 - 18:40 - 21:15 - 23:50. **Payback:** 16:30 - 19:00 - 21:30 - 23:50. **La noche de las chicas:** 16:15 - 18:40 - 21:00 - 23:40. **La vida es bella:** 16:15 - 18:40 - 21:15 - 23:50. **Salvar al soldado Ryan:** 16:30 - 19:50 - 23:00.

ANTZOKI ZAHARRA. **Sí quiero:** 12:00. **Hillary y Jackie (J.B.A.):** 17:15 - 19:45 - 22:30.

TRUEBA. **El pianista:** 16:30 - 18:40 - 20:50 - 23:00. **El show de Truman:** 16:30 - 18:40 - 20:50 - 23:00.

PRINCIPE. **Solas:** 16:30 - 18:50 - 20:45 - 23:00. **Shakespeare in love:** 16:00 - 18:30 - 21:00 - 23:30. **Dioses y monstruos:** 16:15 - 18:50 - 21:15 - 23:30. **Muertos de risa:** 16:15 - 18:30 - 20:45 - 23:00. **La vida es bella:** 16:15 - 18:40 - 21:15 - 23:30. **Celebrity:** 16:30 - 18:40 - 21:00 - 23:15.

GARBERA. **Muertos de risa:** 16:15 - 18:30 - 21:00 - 23:30. **Payback:** 16:15 - 18:50 - 21:20 - 00:00. **American history X:** 16:15 - 18:50 - 21:20 - 00:00. **Patch Adams:** 16:00 - 18:30 - 21:00 - 23:45. **Leyenda urbana:** 16:30 - 18:40 - 21:10 - 23:45. **Bichos:** 16:15 - 18:15. **La delgada linea roja:** 20:15 - 23:30. **Mi gran amigo Joe**: 16:15 - 18:40 - 21:10 - 23:45.

WARNER LUSOMUNDO. **Payback:** 12:30 - 16:10 - 18:30 - 20:50 - 23:00 - 01:00. **Salvar al soldado Ryan:** 12:00 - 16:30 - 20:15 - 00:00. **Jack Frost:** 12:00 - 16:10. **Tienes un e-mail:** 18:20 - 20:40 - 23:00 - 01:20. **Bichos, una aventura en miniatura:** 12:00 - 16:00 - 18:00 - 20:10. **Quédate a mi lado:** 22:10 - 00:45. **Muertos de risa:** 12:30 - 16:00 - 18:10 - 20:30 - 22:50 - 01:10. **Mi gran amigo Joe:** 12:30 - 16:00 - 18:20 - 20:40 - 23:00 - 01:20. **Mulan:** 12:10. **Leyendas urbanas:** 16:20 - 18:30 - 20:50 - 23:00 - 01:10. **La cena de los idiotas:** 12:10 - 16:20. **La delgada linea roja:** 18:00 - 21:15 - 00:30. **Patch Adams:** 12:20 - 15:45 - 18:00 - 20:15 - 22:30 - 00:45. **Shakespeare in love:** 12:20 - 17:00 - 20:00 - 22:30 - 01:00.

### ARRASATE

ALAI. **Quédate a mi lado:** 17:00 - 19:30 - 22:00.

### AZKOITIA

BAZTARTXO. **¿Conoces a Joe Black?:** 22:00.

### AZPEITIA

SOREASU. **Patch Adams:** 22:00.
ZELAITXO. **The general:** 22:00.

### BEASAIN

USURBE. **Tienes un e-mail:** 19:30 - 22:15.

### BERGARA

NOVEDADES. **Quédate a mi lado:** 17:00 - 19:30 - 22:30.

# hiriburuetako filmak

**SHAKESPEARE IN LOVE.** EEBB, 1998. Zuz:. John Madden. 122 m. Londres, 1593ko uda. William Shakespearek bizitza aldatuko dion neska gazte burges eta eder bat ezagutuko du. Gwyneth Paltrow aktoreak mito literario baten rola jokatzen du; Shakespeareren soneto erotikoetan ageri den emakume misteriotsuarena, hain zuzen ere. Maitemintzea, traizioa, gaizki ulertuak, dueluak, drama, glamour-a... komedia isabelino batek eskatzen dituen osagarri guztiak ditu Maddenen film honek. ***Iruñea (Carlos III, Golem Baiona). Baiona (Marine). Donostia (Astoria, Principe. Warner Lusomundo). Bilbo (Capitol), Mikeldi). Gasteiz (Guridi, Mikeldi zinemak).***

**MI VIDA EN ROSA.** Belgika, 1997. Zuz.: Alain Berliner. Iparraldean aspaldi estreinatu zen, eta orain gutxi iritsi da Hegoaldera. Zinemagile frantziarraren lan honek Urrezko Globo saria lortu du, Oscarretarako izendatua izan da, eta Cannes, Sarajevo eta Seattleko zinema jaialdietan ere sariak lortu ditu. Neskatila bat dela uste duen mutiko baten istorioa azaltzen du, komedia eta drama uztartuz. Michael Laroque, Helene Vincent, Jean-Philippe Ecoffey eta Georges de Fresne dira aktore nagusiak. ***Gasteiz (Samaniego).***

**MUERTOS DE RISA.** Espainia, 1998. Zuz.: Alex de la Iglesia. Nino eta Bruno (Santiago Segura eta Gran Wyoming) komiko bikotea da protagonista, eta haien astakeria barregarriak istorioaren osagaiak. ***Gasteiz (Guridi). Bilbo (Ideales, Capitol, Multi). Donostia (Astoria, Principe, Garbera, Warner Lusomundo). Iruñea (Golem Baiona).***

**HILARY & JACKIE.** EEBB, 1998. Zuz.: Anand Tucker. Jacqueline du Pre biolontxelo jole ospetsuaren bizitza kontatzen du, eta, horretarako, haren ahizpa Hilaryk eta haren neba Piersek idatzitako liburuan oinarritu dira. Batez ere, ahizpa bien harremanak betetzen du istorioaren zatirik handiena. Emily Watson (Jackie) eta Rachel Griffiths (Hilary) dira aktore nagusiak. ***Bilbo (Multi). Donostia (Antzoki Zaharra).***

**8 MILIMETRES.** EEBB, 1998. Zuz.: Joel Schumacher. 123 m. Senar hil berriaren kutxan aurkitutako *snuff movie* bat ikertzeko eskatuko dio alargun aberats batek ikertzaile pribatu bati (Nicolas Cage). Pornografiaren mundu ilunerako bidaia gogor eta bortitza proposatzen digu Schumacher zuzendariak, ikertzaile pribatuak egingo duen bide lazgarrian barrena. ***Baiona (Marine).***

**BELLE MAMAN.** Frantzia, 1998. Zuz.: Gabriel Aghion. 102 m. Ezkondu behar duen egunean, Antoine beste emakume batekin maiteminduko da: andregaiaren amarekin. Nolanahi ere, sentimendu horiek plazaratzeko nahi baino zailtasun gehiago topatuko ditu. Vincent Lindon eta Catherine Deneuve dira Aghion zuzendariak eginiko komedia honetako protagonista nagusiak. ***Baiona (Vauban).***

**CELEBRITY.** EEBB, 1998. Zuzendaria: Woody Allen. 110 m. Aktoreak: Kenneth Brannagh, Juddy Davis, Melanie Griffith, Leonardo DiCaprio, Winona Ryder. Arrakastarik ez duen kazetari baten eta emazte ohiaren bizitza eta ospearen inguruko grina ageri dira, gaur egungo gizarteari satira eginez, Allen-en azken film honetan. ***Gasteiz (Samaniego). Bilbo (Mikeldi). Donostia (Principe).***

**COSAS QUE IMPORTAN.** EEBB, 1998. Zuz.: Carl Franklin. 127m. Kate (Meryl Streep) alabarekin adiskidetu da. Bere gaixotasunaren kontra gogor borrokatuko da Kate, eta, era berean, senarra zaintzeko ahaleginak ere egingo ditu. ***Iruñea (Golem-Yamaguchi).***

**ÇA COMMENCE AUJOURD'HUI.** Frantzia, 1998. Zuz.: Bertrand Tavernier. 117 m. Hornaig herrian, Valenciennestik gertu, haur eskolako zuzendari eta maisuak aurre egin beharko die hainbat arazori. Bere esku dituen haurrez arduratuta, ahalegin berezia egingo du hezkuntza duina eskaintzeko. ***Baiona (Vauban).***

**EN EL CORAZON DE LA MENTIRA.** Frantzia, 1998. Zuz.: Claude Chabrol. Hamar urteko neskato baten bortxaketa eta hilketarekin hasten da istorioa. Rene irakasleak hil duelako zurrumurrua zabalduko da. Psikologikoki ahula da gizona, eta emaztearen babesari esker egingo du aurrera. Jacques Gamblin eta Sandrine Bonnaire dira aktore nagusiak. ***Bilbo (Multi).***

**HI-LO COUNTRY.** EEBB, 1998. Zuz.: Stephen Frears. Akt: Woddy Harrelson, Patricia Arquette. 114m. II. Mundu Gerraren ondoren, Estatu Batuetako mendebaldera itzuli berri dira Pete eta Big Boy, lehengo bizitzari eusteko asmoz. Baina emakume batengana biek sentitzen duten maitasunak elkarren kontra jarriko ditu bi lagunak. ***Iruñea (Golem Yamaguchi).***

**LA LEYENDA URBANA.** EEBB, 1998. Zuz.: Jamie Blanks. Akt: Jared Leto, Alicia Witt. 100 m. Ingalaterra Berriko Pendletongo Unibertsitatean hilketa misteriotsuak ari dira gertatzen. Azkenaldian egin diren beldurrezko filmen estilokoa da. ***Iruñea (Principe de Viana). Donostia (Garbera, Warner Lusomundo). Bilbo (Ideales). Gasteiz (Guridi).***

**LA LIGNE ROUGE / LA DELGADA LINEA ROJA.** EEBB, 1998. Zuz.: Terrence Malick. 170 m. Akt.: Sean Penn, Jim Caviezel. EEBBetako armadako fusilarien konpainia Guadalcanalera iritsi berria da, japoniarrak Pazifikoko uharteetan egiten ari diren aurrerakada geldiarazteko prest. Aktore talde bikaina bildu du Malickek, eta zazpi izendapen lortu ditu Oscar sarietarako. ***Gasteiz (Samaniego). Bilbo (Ideales, Mikeldi). Donostia (Astoria), Warner Lusomundo). Iruñea (Olite, Golem Yamaguchi).***

**LA VIDA ES BELLA.** Italia, 1997. Zuz.: Roberto Benigni. Akt.: Roberto Benigni, Nicoletta Braschi. 116 m. Guido Dorarekin maitemindu eta ezkonduko da. Baina bost urte geroago II. Mundu Gerra jaikiko da, eta, Guidok jatorri judua duenez gero, kontzentrazio esparru batera bidaliko dute, Giosue semearekin batera. ***Gasteiz (Guridi, Mikeldi zinemak). Bilbo (Capitol, Mikeldi). Donostia (Astoria, Principe). Iruñea (Golem Baiona).***

**LES ENFANTS DU MARAIS.** Zuz.: Jean Becker. Akt.: Jacques Gamblin, Jacques Villeret. Lehen Mundu

# zinema

**BILLABONA**

GUREA. **Quédate a mi lado:** 19:30 - 22:30.

**DEBA**

ZUBELZU. **Tienes un e-mail:** 19:30 - 22:30.

**EIBAR**

RIALTO. **Elizabeth:** 17:00 - 19:30 - 22:15.
UNZAGA. **La delgada linea roja:** 19:00 - 22:15.

**ELGOIBAR**

HERRIKO ANTZOKIA. **¿Conoces a Joe Black?:** 19:00 - 22:15.

**ERRENTERIA**

ON BIDE. **Celebrity:** 19:30 - 22:30.

**IRUN**

AVENIDA. **Celebrity:** 17:00 - 19:30 - 22:15.
TXINGUDI-OSCAR. **Muertos de risa:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Leyenda urbana:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Salvar al soldado Ryan:** 17:00 - 20:30 - 00:15. **Mi gran amigo Joe:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Bichos:** 16:00 - 18:00. **Pay Back:** 20:30 - 22:45 - 01:00. **Patch Adams:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Shakespeare enamorado:** 17:00 - 19:45 - 22:30 - 01:00.

**LASARTE-ORIA**

MANUEL LEKUONA. **La máscara del zorro:** 22:30.

**LEGAZPI**

LATXARTEGI. **Tienes un e-mail:** 19:30 - 22:00.

**MUTRIKU**

EDERRENA. **Ronin:** 22:30.

**OÑATI**

SANTA ANA. **Quédate a mi lado:** 19:30 - 22:30.

**ORDIZIA**

HERRI ANTZOKIA. **Entre las piernas:** 19:30 - 22:15.

**TOLOSA**

LEIDOR. **Pay back:** 19:30 - 22:30.
IPARRAGIRRE. **Bichos:** 19:30 - 22:30.

**ZARAUTZ**

MODELO. **Tienes un e-mail:** 17:00 - 19:30 - 22:15.

**ZUMAIA**

AITA MARI. **Quédate a mi lado:** 19:30 - 22:15.

## LAPURDI

**BAIONA**

L'ATALANTE. **Buffalo '66:** 20:30. **Rien sur Robert:** 18:30. **Vigo,...:** 14:30. **Nuage Paradis:** 16:30.
VAUBAN. **Belle maman:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Les enfants du Marais:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **American history X:** 22:15. **Babe, le cochon dans la ville:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Ca commence aujourd'hui:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **La vie revee des anges:** 19:45 - 22:15. **Les 1001 pattes:** 14:00 - 16:30. **Missisipi:** 15:00 - 18:30.
MARINE. **8mm.: Huit millimetres:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Asterix et Obelix contre Cesar:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Les ensorceleuses:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Suicide Kings:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **La fiancée du Chucky:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Shakespeare in love:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15.

**HENDAIA**

LES VARIETES. **Les fleurs de Shanghai:** 17:00. **1001 pattes:** 21:00.

**MIARRITZE**

ROYAL. **Belle Maman:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Une journe de merd:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **La ligne rouge:** 15:00 - 20:30.

## NAFARROA

**IRUÑEA**

CARLOS III. **Shakespeare in love:** 17:30 - 20:00 - 22:30.
GOLEM (BAIONA). **Shakespeare enamorado:** 17:15 - 20:00 - 22:45. **Muertos de risa:** 17:30 - 20:10 - 23:00. **Payback:** 17:30 - 20:30 - 23:00. **La vida es bella:** 17:30 - 20:10 - 22:45. **Patch Adams:** 17:15 - 20:00 - 22:45. **Bichos:** 16:30 - 18:30.
GOLEM (YAMAGUCHI). **Dioses y monstruos:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 23:00. **Salvar al soldado Ryan:** 19:30 - 22:30. **Elizabeth:** 17:15 - 22:45. **Hi-lo country:** 17:15. **Lágrimas negras:** 18:30 - 20:30. **La cena de los idiotas:** 16:30 - 20:30 - 23:00. **La delgada linea roja:** 19:30 - 22:30. **Cosas que importan:** 17:00.
OLITE. **Ciudad marcada:** 20:00 - 22:30. **La delgada linea roja:** 17:30 - 21:30. **Patch Adams:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Bichos:** 17:30. **Entre las piernas:** 20:00 - 22:30. Zine Kluba: **El abuelo:** 17:15.
PRINCIPE DE VIANA. **Mi gran amigo Joe:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Soldata de fortuna:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Leyenda urbana:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

## NAFARROA BEHEREA

**DONIBANE - GARAZI**

VAUBAN. **1001 pattes:** 18:00 - 21:00.

**DONAPALEU**

ARGITZE. **Venus beaute (institut):** 21:00.

## ZUBEROA

**MAULE**

MAULE BAITHA. **Asterix:** 21:00.

## estreinaldiak



ARTXIBOKOA

*El pianista* filmeko irudi bat.

■ **AMERICAN HISTORY X.** EEBB, 1998. Zuz.: Tony Kaye. Iparraldean aspaldi estreinatu bazen ere, aste honetan iritsi da Hegoaldeko zenbait zinema aretotara. Eskuin muturraren mundu itsuaren gaineko istorioa da. Derek (Edward Norton) izeneko mutil batek hiru beltz hil ditu, autoa lapurtuko zioten beldur zelako. Horrela hasten da filma. Dereken anaia gazte Dannyk, baina, anaia zaharrenaren pausoei jarraituko die. ***Gasteiz (Guridi). Bilbo (Ideales). Donostia (Garbera). Barakaldo: Max Center. Baiona (Vauban).***

■ **DIOSES Y MONSTRUOS.** EEBB, 1998. Zuz.: Bill Condon. James Whale zuzendariaren bizitzako azken egunei buruzkoa da. 1957an dago kokatua kontakizuna; ordurako ikuskizunaren mundutik erretiratuta zegoen Whale, eta gaitz bat garunari erasaten ari zitzaion. Ian McKellenek jokatzen du protagonista nagusiaren rola. ***Gasteiz (Guridi). Bilbo (Ideales). Donostia (Principe). Iruñea (Golem Yamaguchi). Barakaldo: Max Center.***

■ **El PIANISTA.** España, 1999, Zuz.: Mario Gas. Vazquez Montalbanen eleberri batean dago oinarrituta, eta 1936an dago girotua istorioa. Doria (Jordi Molla) eta Rosell (Pere Ponce) piano jole bi dira, txikitatik ezagutzen dute elkar eta lagunak dira. Baina biak daude emakume beraz maiteminduta, Teresaz (Paulina Galvez). Gerra Zibila hasiko da Espainian... ***Bilbo (Ideales). Gasteiz (Guridi). Donostia (Trueba).***

■ **MI GRAN AMIGO JOE.** EEBB, 1998. Zuz.: Ron Underwood. *Joe* izeneko gorila handi bati buruzko istorioa da. Bost metro da luze, eta Afrikako oihanean bizi da. Ehiztari batzuek, *Joe*-ren berri izandakoan, ez dute onik izango hura ehizatu arte. Jill izeneko neska gazte bat (Charlize Theron), berriz, Joe babesten saiatuko da. ***Gasteiz (Mikeldi zinemak). Bilbo (Capitol, Ideales). Donostia (Garbera, Warner Lusomundo). Barakaldo (Max Center). Basauri (Bilbondo). Getxo (Lauren). Leioa (Artea, Gran Cinema). Irun (Txingudi). Iruñea (Principe de Viana).***

■ **LA NOCHE DE LAS CHICAS.** EEBB, 1998. Zuz.: Nick Hurran. Valentziako Mostran publikoaren saria irabazi du. Dawnek (Brenda Blethyn) eta Jackiek (Julie Walters) elektronika lantoki batean egiten dute lan. Biek ametsa bera dute: *nesken gaua* iristea. Gau horretan, bingoan jokatuko dute neska guztiek. ***Donostia (Astoria).***

■ **BABE, LE COCHON DANS LA VILLE.** Australia, 1998, George Miller.96 min. Baserriko kontuak alde batera utzita, hirira joango da film berri honetan *Babe* txerri australiar ezaguna. Bere jabeen egoera ekonomikoa hobetzen saiatuko da txerritxoa, baina, horretarako, hiriko bizimodura moldatu beharko da. Katu, txakur eta hiriko beste animaliekin borrokan ariko da *Babe*. Film honetako aktoreak Magda Szunbanski, James Cromwell eta Mickey Rooney dira. ***Baiona (Vauban).***

■ **LES ENSOURCELLES.** Estatu Batuak, 1998, Griffin Dune. Min. Sally (Sandra Bullock) eta Gillian (Nicole Kidman) zoragarriak beren izeba zelebreek hezi dituzte: Frances (Stockard Channing) eta Jetek (Dianne West). Sorginen familia batetik datoz bi protagonistak: Sallyk bizimodu normala egiten du, baina Gillian amorantez aldatzen ibiltzen da etengabe. Egun batean, Gillianek Jimmy Angelov satanikoa ezagutuko du, eta orduan korapilatu egingo da istorioa. FBIko poliziak ere tartean izango dira. ***Baiona (Marine).***

■ **SUICIDE KINGS.** EEBB, 1998, Peter O'Faloon. 105 Min. Christopher Walkenek poker partida berezi bat jokatuko du Peter O'Fallonen lehen film honetan. Lau ikaslek mafiako gizon garrantzitsu bat bahituko dute. *Thriller* bat da, eta kontaketak jauziak egiten ditu denboran. Denis Leary, Henry Thomas eta Jeremy Sisto dira filmeko beste aktoreak. ***Baiona (Marine).***

Gerrako arrasto lazgarriak oraino nabariak direla itzuli da Garris txikitan bizi izandako etxaldera, Frantziako lurralde batean. Gerrak traumatizatutako gizon hori bere lagun Ritoni laguntzen saiatuko da, aldamenetik alde egin dion emaztearen oroitzapenetan murgilduta bizi baita. ***Baiona (Vauban).***

**LES 1001 PATTES / BICHOS.** EEBB, 1998. Zuz.: John Lasseter, Andrew Stanton. 96 m. Spielbergen *Antz (Hormigaz)* filmari lehia egin dio Lasseter eta Stantonen azkeneko lanak. Irudien hiru dimentsioak ondo baino hobeto lortzen ditu filmak, animazio digitalaren bitartez. Flik inurria da protagonista: hirira joateko prest dago, haren herriari eraso nahi dion matxinsalto taldeari aurre egiteko laguntza bila. Animaziozko film entretenigarria dugu. ***Baiona (Vauban). Gasteiz (Guridi). Bilbo (Ideales, Mikeldi). Donostia (Garbera, Warner Lusomundo). Iruñea (Olite, Golem Baiona).***

**PATCH ADAMS.** EEBB, 1998. Zuz.: Tom Shadyac. 115 m. Akt.: Robin Williams. Gaixotasunak sendatzeko barrearen eta maitasunaren indarrean sinesten duen mediku bat da Robin Williams. Hunter Patch Adams-en benetako istorioan dago oinarrituta. ***Gasteiz (Mikeldi Zinema). Bilbo (Ideales). Donostia (Astoria, Garbera, Warner Lusomundo). Iruñea (Golem Baiona, Olite).***

**PAYBACK.** EEBB, 1998. Zuz.: Brian Helgeland. Akt. Mel Gibson, Gregg Henery. 110m. Porterrek eta Valek lapurreta bat egin dute. Ongi atera arren, Valek laguna hiltzea eta, horrela, sari osoa bereganatzea erabaki du. Baina Porter itzuli egingo da. ***Gasteiz (Mikeldi zinemak, Samaniego). Bilbo (Astoria, Avenida). Donostia (Astoria, Garbera, Warner Lusomundo). Iruñea (Golem Baiona).***

**PECKER.** EEBB, 1998. Zuz.: John Waters. *Pink Flamingos* eta *Hair Spray* filmen egilearen azken komedia da. Pecker (Edward Furlong) ogitarteko saltzailea da, baina senitartekoei eta lagunei ateratzen dizkien argazki txarrekin ospea lortuko du, New Yorkeko emakume baten bidez (Lili Taylor). ***Bilbo (Multi).***

## horoskopoa

*Uxue Agirre*

**A R I E S** martxoak 21 - apirilak 20
Graziosoarena egiteak bere arriskuak ere baditu. Neurria bilatu.

**T A U R U S** apirilak 21 - maiatzak 20
Ez da batere sinesgarria kontuak beti zure aldekoak izatea.

**G E M I N I** maiatzak 21 - ekainak 20.
Zerbait kobratzen al diozu ileapaintzaileari esperimentuak egiten uzteagatik?

**C A N C E R** ekainak 21 - uztailak 20
Jarraitu horrela, kontu ugari izango baitituzu zure ilobei kontatzeko.

**L E O** uztailak 21 - abuztuak 23
Gero eta lan gehiago ematen dizu ohetik jaikitzeak. Zerbait erabaki beharko duzu.

**V I R G O** abuztuak 24 - irailak 23
Zuzen-zuzen ibiltzen zara. Desfileren bateko prestatzen?

**L I B R A** irailak 24 - urriak 23
Hobe da berandu iristea ez iristea baino. Prestatu eta joan.

**S C O R P I U S** urriak 24 - azaroak 23
Nondik datorkizu zuri parrandarako irrika hori? Geneak izango ote dira?

**SAGITTARIUS** azaroak 24 - abenduak 23
Siesta egitea erabakitzen duzun bakoitzean, arratsalde osoa pasatzen duzu lo.

**CAPRICORNUS** abenduak 24 - urtarrilak 20
Oso inteligentea zara. Hori bai, zure txisteak ez ditu inork ere ulertzen.

**A Q U A R I U S** urtarrilak 21 - otsailak 18
Zaletasun oso arraroak dituzu azkenaldian. Zer gertatzen zaizu?

**P I S C I S** otsailak 19 - martxoak 20
Noiz hasi zara agureei errepidea zeharkatzen laguntzen? Kontzientzia arazoak?

## efemerideak

### Juan de Garay hil zen

**1583**ko martxoaren 20an hil zen Juan de Garay. Hamabost urte zituela, Ameriketara joan zen. Bertan, konkistatzaileen armadan aritu zen. Buenos Aires, Santa Fe eta Veracruz hirien fundatzailea izan zen. Ezagunagoa izan zen lurralde haietan bere jaioterrian baino. Gaurko gauez, indiar kerandiek konkistatzaileak inguratu zituzten Santa Fe inguruan. Juan de Garay erasoan hil zen. **1533.** Urdaneta deskubritzailea fraile sartu zen.

**SANTUAK**

Donetsi, Maria Josefa.

## farmaziak

**Araba**

**GASTEIZ.** *09:00-22:00:* DIAZ DE VILLEGAS, San Viator, 50. RIVERO, Izardui Komandantearen kalea, 30 GONZALO-BILBAO, Posta kalea, 343. *Gau eta egun:* GONZALO-BILBAO, Posta kalea, 34.
**LAUDIO.** *Gau eta egun:* AIS, Gasteiz bidea, 2.
**AMURRIO, ARTZINIEGA, AIARA, URDUÑA.** *Gau eta egun:* PEREDA, Landako, 26 (Amurrio).

**Bizkaia**

**BILBO.** *22:00ak arte:* ARGINZONIZ, Julio Urkijo, 10. KORTA, Gordoniz, 50. DIAZ SARABIA, Buenos Aires, 11. GUENETXEA, Autonomia, 41. ISPIZUA, Cocherito de Bilbao, 3. LAORDEN, alameda Urkijo, 60. LARGATXA, Zamakola, 57. *22:00etatik aurrera:* ARIETA-ARAUNABEÑA, Agirre Lehendakariaren Etorbidea, 1 EGIRAUN, Hurtado de Amezaga, 10.
**ARRATIA.** *Gau eta egun:* BADIOLA, Herriko Plaza, 7 (Artea) .
**BARAKALDO.** *Gau eta egun:* MOLINER, Anteiglesia Enparantza, 13.
**BASAURI.** *Gau eta egun:* CATAPODIS, Hernan Cortes, 3 .
**BERMEO, MUNDAKA.** *Gau eta egun:* GABILONDO, Nardiz Tar Jon, 4 (Bermeo).
**DURANGALDEA.** *Gau eta egun:* EGUREN, Trañabarren, 15 (Abadiano).
**ERANDIO-TXORIERRI.** *Gau eta egun:* RAMON FERRER, Etxegorri, 3 (Astrabudua).
**GALDAKAO.** *09:00-22:00:* DOISTUA, Ibarluze, 2.
**GERNIKA, BUSTURIA, FORUA.** *Gau eta egun:* ZEBREIRO, Don Tello, 4 (Gernika).
**GETXO.** *Gau eta egun:* PLATERO, Eduardo Coste z/g (Areeta).
**LEIOA.** *09:00 - 22:00:* DIAZ MONTERO, Kandela Zubieta, 19.
**LEKEITIO-EA.** *Gau eta egun:* MARKUERKIAGA, Arranegiko Zabala, 5 (Lekeitio).
**MEATZALDEA.** *Gau eta egun:* LORAN WEIBLE, San Lorenzo, z/g. (Las Carreras).
**MUNGIALDEA.** *Gau eta egun:* URRUTIA, butron, 4 (Mungia).
**ONDARROA, MARKINA, BERRIATUA.** *Gau eta egun:* GONZALEZ, Ribera, 52 (Berriatua)
**PORTUGALETE, SANTURTZI, SESTAO.** *Gau eta egun:* SARRIA, Carlos VII., 13 (Portugalete). *Gau eta egun:*CARRAL, Genaro Oraa, 45 (Santurtzi). *09:00-13:30:* MUTIOZABAL, Marcos Grijalvo, 14 (Sestao).
**URIBE-KOSTA.** *Gau eta egun:* GOMEZ VALCARCEL, Lapurdi Kalea (Urduliz).
**ZORNOTZA.** *Gau eta egun:* SARRIA, Luis Urrengoetxea, 5 (Amorebieta).

**Gipuzkoa**

**DONOSTIA.** *09:00-22:00:* ETXEBERRIA, Txurruka, 5. RODRIGUEZ-MANZENAQUE, Balleneros, 20 (Amara). IMAZ, Bermingham, 2 (Gros). FERRER, Baratzategi, 24 (Intxaurrondo) *Gauez:* MOKOROA, Legazpi kalea, 7.
**ANDOAIN.** *Egunez:* ARZALLUS, Plazaola, 17. *Gauez:* RODRIGUEZ, Kale Nagusia, 42 (Lasarte)
**ARRASATE.** *Gau eta egun:* ZABALA, Zarugalde 42-44.
**AZKOITIA, AZPEITIA.** *Egunez:* GISASOLA, Jandonianiz, 6 (Azkoitia). *Gau eta egun:* ETXEBESTE, J. ARtetxe, 6 (Azpeitia).
**BEASAIN, ORDIZIA.** *Gau eta egun:* LAURNAGA, Kale Nagusia, 4 (Ordizia).
**BERGARA.** *Gau eta egun:* ESTELLA, Matxiategi, 5.
**BILLABONA, ANOETA, IRURA, ASTEASU, ZIZURKIL.** *Gau eta egun:* ITURRIOZ, Euskalerria, 3 (Ibarra).
**DEBA, MUTRIKU.** *Gau eta egun:* OTXAGABIA, Txurruka, 3 (Mutriku).
**EIBAR, ERMUA.** *Gau eta egun:* LARRAMENDI, FerminCalveton, 19 (Eibar).
**ELGOIBAR, SORALUZE, MENDARO.** *Gau eta egun*: F. ETXEBERRIA, Santa Ana, 1 (Elgoibar).
**ERRENTERIA, LEZO, PASAIA.** *Egunez:* RODRIGUEZ, Biteri, 9 (Errenteria). *Gauez:* PAGES, Biteri kalea, 11 (Errenteria).
**ESKORIATZA, GATZAGA.** *Gau eta egun:* ITURRALDE, Mitarte kalea, 18 (Aretxabaleta).
**HERNANI, URNIETA.** *Egunez:* GOMEZ, Kale Nagusia, 15. *Gauez:* RODRIGUEZ, Kale Nagusia, 42 (Lasarte).
**HONDARRIBIA.** *Gau eta egun:* LIZARRAGA, Damarri, 1.
**IRUN.** *Gau eta egun:*ETXEBESTE, Luis Mariano, 2.
**LASARTE-ORIA, USURBIL.** *Gau eta Egun:* RODRIGUEZ, Kale Nagusia, 42 (Lasarte).
**OIARTZUN.** *Gau eta egun:* IRAGORRI, Mikelteak kalea z/g.
**OÑATI.** *Gau eta egun:* GALARZA, Kale-Berria, 6.
**TOLOSA.** *Gau eta egun:* ITURRIOZ, Euskalerria, 3 (Ibarra).
**URRETXU, ZUMARRAGA, LEGAZPI.** *Gau eta egun:* MENENDEZ, Gernikako Arbola Plaza, 4 (Urretxu).
**ZARAUTZ, ORIO, AIA.** *Gau eta egun:* URANGA, Zigordia kalea (Zarautz).
**ZUMAIA, ZESTOA, GETARIA, AIZARNAZABAL.** *Gau eta egun:* AJURIA, Harategiko, 2 (Zumaia).

**Nafarroa**

**IRUÑERRIA.** *09:00-22:00:* RODIGUEZ ARBELOA, Kale Nagusi, 62. GARDE, Benjamin de Tudela, 38. ZURBANO, Zadarreko Futbol zelaiaren bidea.BARRENA, Monreal. CHASCO, Lapurbide, 9 (Antsoain). A*22:00-09:00*:AGINAGA, Zapateria, 25. CHASCO, Lapurbide, 9 (Antsoain). Iruñea aldeko farmazietara jotzeko SOS Navarra: 22 60 00.

**Oharra:** Frantziako legeei segituz, segurtasun neurriengatik Ipar Euskal Herriko guardiko farmazien izenak ematea debekaturik dago. Guardiako farmazia batera joateko herriko edo eskualdeko polizia komisariara deitu beharra dago derrigorrez.

# ‘Brouard kasuaren’ egungo egoera aztertuko du ‘Asteberri’ saioak

*Arratsaldeko 20:20an eskainiko da Carmen Barojak zuzendutako albistegia*

Erredakzioa / **Donostia**

**Carmen Baroja kazetariak zuzendu eta aurkezten duen saioak, *Asteberri*-k, *Brouard kasuaren* egungo egoera aztertuko du gaur arratsaldeko 20:20tik aurrera. Era berean, gorrek eguneroko bizitzan dituzten arazoei buruzko erreportaia ere eskainiko du gaurko *Asteberri* albistegiak.**



ARTXIBOKOA
**Santi Brouard, Herri Batasunako buruzagi izandakoa, 1983ko argazki batean.**

HASI eta Herri Batasunako buruzagia izan zen Santiago Brouard. Haren hilketaren kasuak aldaketa garrantzitzuak izan ditu azken astean. Izan ere, kasua ikertzen ari den epaileak Jose Amedo polizia ohiaren, Julian Sancristobal Estatuko Segurtasunerako zuzendari ohiaren eta Rafael Masa Guardia Zibileko teniente koronel ohiaren espetxeratzea agindu baitzuen joan zen astean.

Gauzak horrela, Santiago Brouard mediku eta politikariaren hilketatik ia hamabost urte igaro direnean, kasuak berriz hartu du gaurkotasuna. Hala, gaur arratsaldeko 20:20tik aurrera, Carmen Barojak ETB2n zuzendu eta aurkezten duen saioak, *Asteberri* albistegiak,1984ko azaroaren 20an gertatutakoa gogoratuko du. Egun horretatik kasuaren inguruan gertatutako gauza garrantzitzuenen errepasoa ere egingo du *Asteberri*-k.

Era berean, *Brouard kasuarekin* estuki lotutako hainbat pertsona ere elkarrizketatzen dira *Asteberri* albistegiak emango duen erreportaian. Horien artean, Santi Brouard Herri Batasunako buruzagiaren alaba, Edurne Brouard, nabarmendu behar da.

**Gorren arazoak eguneroko bizitzan**

*Asteberri* albistegiak gorrek eguneroko bizitzan dituzten arazoen inguruko erreportaia bat ere eskainiko du gaur arratsaldeko saioan. Horretarako, hainbat gor eta gormutuk bere esperientzia pertsonalaren berri emango dute ETB2ko saioan.

Era berean, teknologiaren aurrerakuntzek gorrei eskaintzen dizkieten hainbat aukera ere jakiteko aukera izango da. Hala, gorrek telefono bidezko elkarrizketak nola izan ditzaketen edota telebista kateek gorrentzat azpitituluak nola jartzen dituzten ikusiko dugu. ETBk adibidez, *Teleberri 2*, *Maité* edota *Entre 2 fuegos* azpititulatu ditu gorrentzat.

# Amaia Zubiriaren kantaldia eskainiko du ETB1ek

■ *Hilaren 12an Lesakan grabatutako kontzertua gaueko 23:00etatik aurrera emango da*

Erredakzioa / **Donostia**

AMAIA Zubiria abeslariaren kantaldi bat eskainiko du gaur gaueko 23:00etatik aurrera Euskal Telebistako lehen kateak. Emango den kontzertua hilaren 12an grabatu zen Lesakan, eta *Hou pitxo hou* bere azken lanean bildutako kantuak abestu zituen bertan Amaia Zubiriak.

Euskal Jai nagusien kantak biltzen ditu *Hou pitxu hou* diskoak, eta Ikastolen Elkartearen laguntzarekin grabatutakoa da. Hala, *Santa Ageda*, *Azeri dantza*, *Antzarrak*, *Ihauteriak Hüllatzen*, *Kandelario* edota *Habanera* bezalako abestiak agertzen dira bertan. ETBk emango duen jaialdian Lesakako dantza taldeak ere hartu zuen parte.



EDURNE KOCH
**Amaia Zubiriak Lesakan emandako kontzertua eskainiko du gaur ETBk.**

## laburrean

■

**Tau Baskoniako entrenatzaileak ‘Hitzaro’ eta ‘Lengua Viva’ saioetan gonbidatu**

Euskarari buruzko *Hitzaro* eta *Lengua Viva* saioek Tau Baskonia taldeko entrenatzaileak elkarrizketatuko dituzte gaur eta bihar. Hala, Josu Larreategi Tau Baskoniako bigarren entrenatzailea ETB1eko *Hitzaro* saioan izango da gaur 13:00etatik aurrera. Bihar, 12:55etik aurrera, berriz, Sergio Scariolo taldeko lehen entrenatzailea ETB2ko *Lengua Viva* saioan izango da.



■

**Europako Batasuneko krisia TVE1eko ‘Informe Semanal’ saioan**

Baltasar Magrok TVE1n zuzendu eta aurkezten duen saioak, *Informe Semanal*-ek, Europako Batzordearen dimisioa dela eta Europako Batasunean sortutako krisia aztertuko du gaur 21:30etatik aurrera. Era berean, anorexia gaixotasuna, Iberiako pilotuek Aste Santurako deitutako greba eta astelehenean izango den Oscar sarien banaketa ekitaldia ere aztertuko dira *Informe Semanal* saioan.

■

**TVE eta Universal estudioek 2002ra bitarteko hitzarmena sinatu dute**

Espainiako Telebista Publikoak (TVE) eta Universal estudioak 2002. urtera bitarteko hitzarmena sinatu berri dute. Bertan jasotzen denaren arabera, TVEk izango du 1999. urtetik 2002ra bitartean Universal estudioetan egiten diren produkzio guztiak Espainian emateko eskubidea.

## ‘Teknopolis’ saioa ETB1ean

ETB • 11:40etan

Pili Kaltzadak aurkeztutako saio honetan zientzia eta teknologia gaiak lantzen dituzte. Ikerketa eta aurkikuntza berriak ere zabaltzen dituzte.



### ETB 1

06:45: **Euskaraokea.**
08:15: **Superbat.** Haurrentzako marrazki bizidun eta telesaila sorta. ‘Hypermanen abenturak’, ‘Ipar haizearen erronka’, ‘Hartz txiki’, ‘Karate Kid’, ‘Borroka-taldea’, ‘Robinson Crusoe’.
11:40: **Teknopolis.** Zientzia eta teknologiaren inguruko saioa.
12:10: **Iparraldea: Le magazine du Pays Basque.**
12:30: **Elkartasunaren bideak.** Dokumentala: Lan duin bat.
13:00: **Hitzaro.**
13:30: **Sustraia.**
14:00: **Gaur Egun.** Albistegia.
14:20: **Lazkao Txiki.**
14:35: **Burusoiltxo.** Umorezko saioa.
15:00: **Txirrindularitza: Munduko kopa.** Milan-San Remo.
16:55: **Kirolez kirol.**
Zesta Punta: Bereikua-Goitia / Egiguren II-Enbil.
Futbola. Liga-2. maila (17:55ean): Lleida-Eibar.
20:00: **Gaur Egun.**
20:20: **Kirolez kirol.**
Futbola: Liga-1.maila: Espanyol-Athletic.
23:00: **Hou pitxu hou.** Amaia Zubiria.
00:10: **Boxeo izarrak.**
01:30: **Zinema.**
**Satyricon.**
Zuzendaria: Federico Fellini. Aktoreak: Martin Potter, Hiram Keller. 1979.
03:40: **Sustraia.**
04:10: **Watching whales.** Dokumentala.
04:40: **Hau komeria.**
05:30: **Gizon traketsak.**
06:05: **Haran eta gailur.**
06:55: **Bizi giroak.** Dokumentala: *Goizingira.*

### ETB 2

08:00: **Sustraia.**
08:30: **Del pais de los Vascos.** El vino del Pirineo.
08:55: **Vida salvaje.**
09:45: **Voluntad de hierro.**
10:45: **De leyendas y viajes.** *Vietnam.*
11:40: **Lobos y bufalos; una antigua alianza.** Dokumentala.
12:25: **Empresa vasca.**
13:00: **Desde el gallinero.** Kultur saioa.
13:25: **Rutas de solidaridad.**
14:00: **ETB Kirolak.**
14:28: **Teleberri.**
15:30: **Mr.Bean.**
15:40: **Cineaventura.**
**Indiana Jones y el templo maldito.**
Zuzendaria: Steven Spielberg. Aktoreak: Harrison Ford, Kate Capsahw. 1984.
17:50: **Zinema** .
**Crossworlds: entre dos mundos.**
Zuzendaria: Krishna Rao. Aktoreak: Rutger Hauer, Josh Charles.
19:25: **La peña.**
20:20: **Asteberri.**
20:58: **Teleberri.**
21:30: **Maité.** Telesaila.
22:30: **Zinema.**
**Red scorpion.**
Zuzendaria: Joseph Zito. Aktoreak: Dolph Lundgren, All White.
00:25: **Zinema.**
**Joyride.** Zuz.: Joseph Ruben. Aktoreak: Desi Arnaz, Melanie Griffith, Robert Carradine. 1977.
02:00: **Medias de seda.** Telesaila.
03:30: **Zinema.**
**La casa de Dios.**
Zuzendaria: Donald Wyre. Akt.: Tim Matheson, Charles Haid. 1979.
05:15: **Lengua Viva.**
05:40: **Amaiera.**

## gaurko filmak

Ane Muñoz

■ **ROCCO Y SUS HERMANOS.** Italiako zinemagintzan ez ezik mundu osoan ere klasikoa bilakatu den maisulan zoragarri hau Visconti eroak egina da, eta Alain Delonek antzeztua. Herria utzi eta hiri handi batean kokatuko den sendi baten istorioa kontatzen du, zuri-beltzeko argazki ederraren bitartez, eta eszenaratze sinple samar baina zuzen batez. Bizimodu berrira egokitzea kostako zaie, ohitura zaharrei eutsiz arrotz sentituko baitira hiriko kale zabal horien erdian. Rocco, anaia zaharrena, boxeoaren munduan sartuko da. Gauzaleentzat nahitaezko zita deritzot.

■ **SATYRICON.** Fellini maisu italiarraren filmografia zabal eta oparoa aztertuz gero, ezagunetakoen artean aurki dezakezue, baina ez zait iruditzen horien guztien artean nabarmenetakoa denik. Petronioren testu ospetsua egokitzen du, amesgiroko tonu fantastiko eta kuriosoaz aurkeztuz. Martin Potter eta aurpegi ezagun ugari biltzen ditu kameraren parean, eta euskaraz mintzatuz azalduko zaizkigu. Erromatarren garaiko abentura bitxia kontatzen du.

■ **INDIANA JONES Y EL TEMPLO MALDITO.** Indiana Jonesen bigarren abentura pertsonaia bera kutxa galduaren bila zebileneko istorioa baino kaskarxeagoa da, nekagarrixeagoa, eta topiko ugariek kaltetzen dute gainera. Dena den, Harrison Forden jarraitzaileen gustukoa denik ez dut dudarik, rol nagusia hark jokatzen baitu, Indiana Jones ausartarena berriro eginez. Erritmo biziko abentura izanik ere, hutsa da edukiz, eta tarte entretenigarria igarotzeko baizik ez du balio; filma amaitu eta berehala ahaztu egiten diren horietakoa da. Ezustekorik ezak eta erraz aurreikus daitezkeen eszenek bat baino gehiago aspertuko dute.



ARTXIBOKOA

Diane Keaton aktoreak zuzendu zuen *Una flor salvaje* filma 1991n.

### *Diane Keaton, aktore gazteak zuzentzen*

■ **UNA FLOR SALVAJE.** Urte askotan Woody Allenen musa izandakoak, Diane Keaton aktore interesgarriak, saiaketa bat baino gehiago egina du kameraren atzean. Gaur ikus dezakegun istorio arin, samur eta hunkigarri hau, adibidez, emakume horren bigarren lana izan zen ; *Heaven* erreportaia modukoa filmatu zuen aurretik. Ez da oso film nabarmena, baina zuzentzat dut, besteak beste, aktore talde erakargarria bildu izanagatik. Patricia Arquette eta Beau Bridgesek protagonisten rolak jokatzen dituzte.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **La mujer de California** | ♠♠ | | **Joyride** | ♠♠ | |
| 1987, Melanie Mayron | 15:25 T5 | | 1977, Joseph Ruben | 00:25 ETB2 | |
| **Dos en casa de la abuela** | ♠♠ | | **Le sixième jour** | ♠♠ | |
| 1992, Jeff Franklin | 15:35 A3 | | 1986, Youssef Chahine | 01:10 Arte | |
| **La leyenda del caracaiman** | ♠♠ | | **Satyricon** | ♠♠♠ | |
| 1996, Victor Sarin | 15:35 TVE1 | | 1979, Federico Fellini | 01:30 ETB1 | |
| **Indiana Jones en el templo...** | ♠♠ | | **Rosa Rosae** | ♠♠ | |
| 1984, Steven Spielberg | 15:40 ETB2 | | 1992, Fernando Colomo | 01:30 T5 | |
| **Atrapados en la tormenta** | ♠♠ | | **Rocco y sus hermanos** | ♠♠♠♠♠ | |
| 1995, Charles Wilkinson | 17:25 A3 | | 1960, Luchino Visconti | 01:55 La2 | |
| **Nuevo en esta plaza** | ♠ | | **Lazos de sangre** | ♠♠♠ | |
| 1966, Pedro Lazaga | 17:40 TVE1 | | 1994, Glen Jordan | 02:10 A3 | |
| **Crossworlds** | ♠♠ | | **Buscando a Perico** | ♠ | |
| Krishna Rao | 17:50 ETB2 | | 1982, Antonio del Real | 02:30 TVE1 | |
| **Una flor salvaje** | ♠♠♠ | | **Hermanos** | ♠♠ | |
| 1991, Diane Keaton | 20:55 La2 | | Arthur Barron | 02:30 TVE1 | |
| **Red Scorpion** | ♠♠ | | **La casa de dios** | ♠♠ | |
| Joseph Zito | 22:30 ETB2 | | 1979, Donald Wyre | 03:30 ETB2 | |
| **Jack el oso** | ♠♠♠ | | **Ha entrado un ladrón** | ♠♠ | |
| 1992, Marshall Herskovitz | 00:10 A3 | | 1949, Ricardo Gascon | 04:45 La2 | |

♠ TXARRA ♠♠ ESKASA ♠♠♠ BALEKOA ♠♠♠♠ ONA ♠♠♠♠♠ BIKAINA

## irratia ◆

**Euskadi Irratia.** Hamaiketan hasiko da *Bide Batez* magazina, eta ordu bata arte izango da. Arrazakeriaz berbetan hasiko dute saioa. Horretarako, Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeria taldeko kidea lagun hartuta ariko dira solasean asteroko hirukotearekin. Euskalerria Irratira salto egingo dute gero, aurtengo Korrikak omendu dutenetako bat baita. Eguraldiaren kontuak jaso ondoren, irratsaioko gonbidatua nor den asmatu beharko dute entzuleek, eta ondoren, nahi izanez gero, Alberto Iturbe eta Amaia Perales dietisten kontsultan sartu.

**Herri Irratia.** Goizean, 08:00etan hasitako albistegia amaitu ondoren, 10:00etan, *Kuku miku* haurren saioa hasiko da. Ordubete pasatutakoan, 11:00etan, *Herriz herri* irratsaioan Hondarribiko eta Arrasateko kontuen berri emango dute Arantxa Kaltzadak eta Alberto Gorritibereak, hurrenez hurren. Eguerdiko albistegiaren ostean, 13:30etan, *La movida deportiva*-n kirolen berri emango dute. Ordubete geroago, 14:30etan, *Aquellos maravillosos años* musika saioa aurkeztuko du Jose Gurrutxagak. Arratsaldean, 18:00etan, solasaldiaren tartea hasiko da Txema Auzmendik aurkeztuta. El Salvador eta SOS Arrazakeria izango dira lehen solasaldian hizpide, eta euskalkien tokia herri-hedabideetan bigarrenean.

**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Martin Ugalde ● **Kontseilu Editorialeko Zuzendaria:** Joan Mari Torrealdai ● **Kontseilari Ordezkaria:** Iñaki Uria ● **Zuzendaria:** Martxelo Otamendi ● **Gerentea:** Fernando Furundarena ● **Publizitatea:** Idoia Sanz.

**Egoitza Nagusia:** Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain ✆ 943300222 / Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 / Publizitateko faxa: 943300707 ● **Web gunea:** www.egunkaria.com ● **Posta elektronikoa:** egunkaria@jalgi.com/ **publizitatea:** publi@egunkaria.jalgi.com

Egunkaria

Larunbata, 1999ko martxoaren 20a
X. urtea / 2.570. zenbakia

Batzorde Parekidea: 72564 E ● Lege Gordailua: SS 800/90 l ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA

**Ordezkaritzak:** ● **Araba:** San Antonio, 20-1. ezker / 01005 Gasteiz / ✆ 945233872 / Faxa: 945233873 Publizitatea: ✆ 945131965 ● **Nafarroa:** Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea / ✆ 948178078-79 / Faxa: 948178077 / ✆ Publizitatea: 948176686 ● **Bizkaia:** Zabalburu Enparantza, 2-1.ezkerra / 48003 Bilbo / ✆ 944104046 / Faxa: 944103715 / ✆ Publizitate Orokorra: 944701199-80 / Publizitate Lokala: 944701114 ● **Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pannecau 14, 1/503 Posta kutxatila, 64100 Baiona / ✆ 559593575 / Faxa: 559257511




# Bilbo zaharretik modernorako bidean

## ■ *Ehun urtetik gora duen Uribitarteko trenbidea desagertzen ari da*



Xouse Simal

**Trenbidea kentzeko lanak Ezkerraldean.**

ABANDOIBARRA aldeko ibaiertza itxuraldatzen ari da, abiadura handian gainera. Hilaren 3an martxan jarri zen hegoaldeko linearen ondorioz, Naja geltokitik Guggenheimera zihoan trenbide zatia baztertu eta, orain, burdinbidea bera kentzen ari dira; bertarako dagoen proiektuaren lehen pausoa da.

111 urte dituen trenbide hori desagertzen ari da Bilboko ibaiertzetik. Najako geltokitik udaletxera bitarteko tartean, jada ez da ikusten trenbideen harri zatiak besterik; ez dago burdinbidearen zatirik agerian. Kendu, eta gordeta daude jadanik. Najako tunela ere adreiluz itxia dago, eta trenen joan-etorriak zekarren mugimendu eta zarata desagertu egin da. Isiltasun eta lasaitasun bitxi bat jabetu da Arenaleko zubiaren behealdeaz. Langileen mailu hotsak eta erretiratuen pilaketek ematen dute lanen berri.

Azken urteotan, Bilboko erretiratuak eraikuntza lanetan espezializatzen ari direla dirudi, eta ehunka lagun biltzen dira lanak nola doazen ikustera. Hala ere, trenbidea kentzeak beste misteriorik ez duelako edo, lan hauetara bildu diren *ingeniariek* beste askotan baino komentario, azterketa eta proposamen gutxiago izan dituzte, eta ohi baino kritika gutxiago egin dizkiete obrei. Lanak ikustera bildu dira, baina, begira egon arren, nahiko isilik egon dira, ohiko zurrumurru eta aholkuak alboratuta.

Kilometro bat eta berrehun metroko ibilbideko burdinbidea kentzeko lanetan, Renfek kontratatutako enpresa bat ari da, eta apiril hasierarako lan horiek bukatuta egotea espero dute. Bilboko Udalak presa du lanok bukatzeko. Izan ere, hegoaldeko linea uste baino beranduago jarri da martxan, eta horrek arriskuan jarri du Uribitarteko gunea onbideratzeko proiekturako lortua zuen Europako finantzaketa. Joan den astelehenean hasi ziren lanak, eta apiril bukaerarako amaitzea espero da.

### Bilbo berria

Bistan da itxuraz guztiz aldatzen ari dela Bilbo, eta hiri modernoa egiteko proiektu erraldoi horren barnean dago honako hau ere. Lehen, espazioriк eza zen Bilboren ezaugarrietako bat; etorkizunean, ostera, garrantzi handia emango zaie espazio zabalei: museo eta jauregi erraldoi, modernoak egin dituzte; tren zaharretako burdinbideak ikusi beharrean, metroko burdinbideak izango dira nagusi etorkizuneko hiri aurreratu horretan.

Alde Zaharra Abandoibarrarekin lotuko duen pasealekuaz gain, Arenaleko zubiaren eta Guggenheim museoaren arteko zatia urbanizatzeko asmoa ere badago, 44.000 metro koadroko gune baten barnean. Paseatzeko 21.000 metro koadro izango dira, eta, ibaitik urrunen geratzen den aldean, ibilgailuentzat abiadura motelean ibiltzeko bidea izango da.

Bestalde, tranbiarentzako plataforma bat izango da, eta bizikletentzako bidegorria; baita 3.500 metro koadroko lorategiak eta 250 zuhaitz ere. Kalatrabako zubitik pasabide nagusia izango duen gunean, urbanizazio bat egitea ere pentsatu dute.

Aitziber Laskibar

BILBO




## kasu!

### ◗ Guardia zibil bat 'sex-shop'-ean lapurretan

Ceutako sex-shop batean sartu zen J.L.S.M., 30 urtekoa, eta, aurpegia estalia zuela, lapurtzen saiatu zen lanerako erabiltzen zuen armarekin. Dendariak, ordea, ausarta izaki, ez zion lapurtzen utzi, eta atzetik joan zitzaion guardia zibilari ihesi joan zenean. Plaza batean atxilotu zuten polizia.

### ◗ Esoterismoagatik auzitan

Emakume bat eta haren alaba atxilotu zituzten Malagan, Telefonicari 3 milioi pezetako iruzurra egiteagatik (120.000 libera inguru). Kontratu telefonikoa erabili zuten esoterismo gaietan aritzen den 906 zenbakira sartzeko. Telefonicari ezer ordaindu gabe eginiko dei horiengatik, zortzi telefono linea zituzten hitz egiteko. Auzitan dira orain ama-alabak.

### ◗ 150 kilo leihotik behera

80 urteko emakume bat leihotik atera behar izan zuten suhiltzaileek atzo Kanariar uhartetan. Gaixorik zegoen, eta, mugitu ezinik zebilenez, larrialdietara deitu zuen. Larrialdietako telefonoan mezua jaso zutenean, anbulantzia bidali bai, baina, egoera ikusita, suhiltzaileek ere joan behar izan zuten. 150 kiloko emakumea ezin zen eskaileretatik atera, eta leihotik atera behar izan zuten, suhiltzaileen garabi baten bidez.